LANDER GARRO

Kontrarioa

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2010 Lander Garro
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2010eko maiatza
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

–1–

– Atera ezak daukaan guztia.

– Ez zaukaat ezer.

– Hire beroki horrek zama ederra dik ba.

– Kategoriakoa duk.

Hasperen egin zuen zinpeko zaindariak. Ahoa estutu eta aulkitik jaiki zen.

– Ea ba –esan zuen–, patrikako horiek kategoriakoak edo beste zerbait ote diren.

Eskuak patriketan sartu eta bi liburu agertu zituen Oliveirak.

– Dena –agindu zion zinpekoak.

Beste bi liburu atera zituen orduan galtzarbetik.

Oilalokak bezala harrotu ziren bi zaindariak, lapurra harrapatu izanagatik hanpatuta. Elkarri besarkatuta dantzan hasiko ote ziren susmoa egin zitzaion Oliveirari. Halako altxorrik!

– Beno... hirea ez, orain geurea duk hau guztia. Askok izaten ditek ordaindu gabe hemendik alde egiteko tentazioa. Suertea gutxiagok. Esadak: lehen aldia da lapurtzen saiatzen haizela?

– Bai.

– Lehena eta azkena! Eman nortasun agiria.

– Ez zaukaat hemen.

– Idatzi orduan orri honetan hire izena eta etxeko helbidea eta telefonoa.

Idiarenaren tamainako lepoa zeukan morroia ikusi bezain pronto jakin zuen Oliveirak eguna hala amaituko zuela, gela kirasdun hartan azalpenak ematen. Ezin zuen bestela izan. Kaskoan larruraino moztuta zeraman ilea morroskoak, eta Oliveirarengana hurreratuta liburuak arreta gabe hartzen hasi zen. Liburuak erosi nahi dituenak azala miatzen du, atzeko gezurrak irensten ditu, autorearen argazkia begiratzen du... zalantza handiak dabilzkio buruan: erosi, ez erosi. Denak erosi nahiko lituzke, baina badaki ezin duela. Ez zen hura idi lepoko morroi kaskamotzaren kasua. Edozer hartzen zuen esku artean, sukalde liburuak bezala haurrentzako ipuinak, Oliveira zeharka zelatatuz. Nobela baten kontrazala irakurtzen aritu zen Oliveira, morroiak zer egingo. Morroiak itzuli txiki bat egin zuen eta aldamenean jarri zitzaion berriz. Ez zegoen dudarik. Jostailuen korridorean sartu zen Oliveira,

pauso arinez iheska; ezkerrera gero, brikolajegaien artean geratu zen, torlojuen artean arretatsu. Morroiaren burua korridorearen beste muturrean agertu zen orduan. Akabo. Torlojuak bere tokian utzi eta kutxara abiatu zen zangoka. Bidean koaderno bat eta boligrafo kaskar bat hartu zituen, zer ordaindua izatearren.

Hantxe zeukan beste bat zain. Lehena ez bezala, laneko uniforme morearekin jantzia: txikiagoa, biribilagoa. Altoa eman zion kutxatik pasatu ondoren.

– Ez duk zenbakia idatzi nahi, ezta?

– Nahiago ez.

Oliveirak asmatuzko izena eta helbidea idatzi zituen orrian. Telefonorik ez.

– Legez kontra besterena dena eramateko kopeta daukak, horretarako gizona haiz, baina ez etxean aurpegia emateko?

– Hala ematen dik.

– Hala ematen dik edo hala duk?

– Kanpotik ikusita hala ematen dik.

– A, kanpotik. Barrenetik diferente ikusten duk beraz.

– Segun.

– Segun zer?

– Nork begiratzen duen.

– Mutil azkarraren itxura egin nahi duk orain –elkarri irrika ari ziren bi zaindariak–. Bazakiagu hau ez dela hire izena. Etxean esango zigutek benetakoa...

– Ez diat telefonoa emango, ezta erotuta ere.

– Poliziari eman nahiko diok akaso.

– Hi ez al haiz ba polizia?

Gelaren ate azpitik trostan desagertu ziren irriak.

– Gu zinpeko zaindariak gaituk, ez poliziak.

– Alde txikia zagok.

– Aldea.

– Txikia.

Liburuak pila batean atondu zituen zaindariak.

– Gauza bat egingo diagu: nik alde egiten utziko diat, kategoriako hire beroki horrekin, eta hi ez haiz hona itzuliko.

Baietz egin zuen buruarekin Oliveirak, berehala joatekoa zelako pozik. Aholkuren bat entzun beharko zuen aurretik.

– Gizondutakoan, sosak irabazten dituanean, orduan erosketak egitera sartzen utziko diat... Utziko al zioagu, Paco?

– Bai –morroskoak.

– Baina bitartean ez hadi hurbildu, ados? Herrian izango duk bibliotekaren bat. Har itzak liburuak han, izango da-eta zer irakurria ugari.

Mamut-eko aparkalekua zeharkatu zuen Oliveirak, bide bazterretik Oreretarantz. Kilometro bat aurrerago, Lartzabalgo futbol zelaiaren parean, bi liburu atera zituen gerritik, praken barrenetik. Izerdituta zeuden, haragiak berotuta: Harkaitz Canoren *Beluna jazz* eta Norman Mailerren *La canción del verdugo.* Harrotasunez begiratu zien Oliveirak, eta Gaspar tabernara abiatu zen, bere lagun Oskarrengana. Xakerako irrikatan zegoen.

–2–

Ozeano arriskutsua zen mundua Oliveirarentzat.

Giltza sarrailan sartzeko ahaleginetan zebilen, baina lekutan zegoen. Begiak itxi zituen une batez eta barruko zirimola areagotu besterik ez zitzaion egin. Azkeneko bi ron tragoak madarikatu zituen. Bi horiek izaten dira, hain justu, errefusatzen zailenak. Txanbilekoa behar zuen ron hark, marroiz tindatutako alkohola. Pixka bat makurtu zen orduan, lurrean babes hartzeko tentazioari amore emanda. Ez, ez ezazu amore eman, loak hortxe hartuko zaitu. Hatzez arakatu zuen berriz sarraila, forma igarri zion zuloari, arrailduraren kroskak, inguruko metal lau eta hotza; giltza hantxe sartzea, hori zen egin beharreko guztia. Gerturatu zuen, poliki, gorputz osoarekin bultzatu zuen txanbileko pozoiak utzitako energia apurra erabilita, baina giltza krosketan galdu zen, sartzeko asmorik gabe.

Akaso, kalera itzuliko balitz, arnasa hartuko luke: hauspoa bete, hauspoa hustu, hauspoa

bete. Bazekien ezin zuela eseri. Higuina ematen zioten goizeko ordu txikietan ate alboan zerraldo azaltzen ziren horiek. Estiloa behar da edateko. Hanka sartze handia litzateke han esertzea. Goizean irtetean sustoa hartuko zuen Maitek, eta aste luzeko isilaldia sortuko litzateke, beti bezala: enkontrua, desenkontrua, isiltasuna, enkontrua berriz. Zutik eustea zen konponbide bakarra.

Maite esnatuta egongo zen agian. Begi bakarra ixten zuen lo egiteko. Sartzerakoan izaren igurtzia entzungo zuen, mihia kliskaka, murmurioa, maldizioak. Korridorearen erdian isilik geratuko zen eta mehetuz joango zen murmurioa, mututzeraino. Oholen gainean oso astiro ibili behar zuen halakoetan. Eta hobe ate ondoan hanka hutsik jartzea. Egurrek zarata eginez gero esnatuko zen Maite, euli baten firrindak esnatzen baitzuen: Nor dabil? Denak ohera!

Belaunak bigundu zitzaizkion kolpetik, kasu egiteari utzi zioten, bakarrik zihoazen lurrerantz... Oliveirak bestela agindu arren. Besoaz indarra egiten saiatu zen, barandan zintzilik ge-

ratu arte. Burdinen aurka jo zuen saihetsekin. Lurrean zegoen.

– Zer ari zara hor? –sorbaldatik heldu zuen norbaitek.

Baina gaina hartu zion ametsaren plazerak, hara ihes egin zuen atzera.

– Raul, esnatu oraintxe, puñetas!

Derrepente desagertu zen loaren kotoi bigu-na. Eskaileren hotza. Egunsentiaren argia. Errua. Maiteren gomazko botak. Beldurrik gabe estutu-ta biltzen zuen ilea mototsean, aurpegiko zimu-rrak ere kentzen zitzaizkion.

– Zain nengoen. Giltzak ahaztu ditut. Ez nuen inor esnatu nahi.

– Sartu etxera oraintxe bertan, malapartatu halakoa! –Maitek zira jantzia zuen, katiuska berde eskamaz beteak.

Suminduta bai, desilusiorik ez. Amak halako irudia ia normaltzat jotzeak, horrexek mintzen zuen Oliveira. Berandu ibili behar hori, ordea, in-tegratuta zegoen Oliveiraren nortasunean. Amak ez zekiena zen, noski, gaueko ordu txikietan jo-katutako xake partidak zirela balio zuten partida bakarrak. Gau hartan hamasei jokatu zituen Os-

karren aurka. Denak galdu arren, ezinbesteko sakrifizioa zen erabateko buhame izateko bidean. Besteengandik bereizten zuen izaeraren zatia zen: erdipurdiko gizagaixoengandik bereizten zuena.

– Gaur ere bai...

– Xakean ibili gara –arin zutitzen saiatu zen–. Ez dut ezer txarrik egin.

– Ongi dakit zertan ibili zaren, eskailera guztian utzi duzu kiratsa.

Eskuko papurrak kendu zituen Oliveirak, zer esan asmatu gabe. Amak bi hatzekin txamarratik heldu eta etxe barrura bultzatu zuen.

Idazlea izan nahi zuela esan zionetik zapuztu zen bien arteko harremana. Auzokoek, gainera, homosexuala zelako zurrumurrua zabaldu zuten, eta Maitek sinestea erabaki zuen. Dibertigarria egiten zitzaion Oliveirari. Amak hartutako minaz ez zuen ardurarik; homofobia gainditzen lagunduko zion, guraso guztiei gertatzen zaien moduan. Denbora emango zion, denbora behar bazuen. Amak nahiago zukeen lapurra balitz, edo diskotekako atezaina, torturatzailea, militarra, politikaria, bortxatzailea. Baina aurreiritzi horiek

apaltasunez baztertuko zituen noizbait. Geroago esango zion Oliveirak, Oskar ez zela bere nobioa. Lagun ona bai, lagun onena ere bai, eta baita lagun bakarra ere.

Etxera sartutakoan konturatu zen orduak zeramatzala kanpoan lotan. Sarraila gogoratu zuen, itsaspean pasatako zorabio alkoholizatu hura. Eskaileretako heldulekua, belaunen ahultasuna, lurra, loa. Eta Maite gogoratu zuen ondoren. Buruz ezagutzen zuen bere erreakzioa: zalaparta hura eta ondorengo isiltasuna. Zikin sentitu zen. Hortzak garbitu beharko lituzke sikiera, baina nagikeriak harrapatuta zeukan. Hezurrak ere nekatuta. Zalantzan geratu zen, ohe ertzean eserita. Oinetakoak erantzi zituen, galtzerdiak; oin bustien kiratsa azkar zabaldu zen logelan. Naturaren logika madarikatu zuen. Leihotik egunaren argia sartzen hasia zen, autoen burrunba. Egunsentia. Tristezia sortzen zion gaua ia lorik egin gabe pasatzeak.

Bobby Fischerren eta Boris Spasskyren arteko lehiaren argazkia zeukan paretan zintzilik. Hari begira geratu zen. Humanitatearen historian izandako unerik zirraragarriena zen behar-

bada, artearen eta epikaren gailur eguna. 1972ko abuztuaren 31, Fischerrek munduko txapelketa lortu zuen eguna, Spassky maisuaren aurka zazpitan irabazi, hirutan galdu eta hamaika bider berdindu ondoren. Argazkian azken partidaren unea ageri da: xake mahaia espazio zabal baten erdian, atzean gortina eta bulegoetan izaten diren landare handi horietako bat, ustez apaintzeko jarria. Mahaitik hainbat metrotara dago Spassky, eta hara doa oinez. Mahaian dago Fischer, zutitzeko keinua egiten. Zoragarria da argazkia, xakean gutxitan ikusten den unea jasotzen duelako, xakelarien arteko etengabeko joan-etorria. Xakelariek, izan ere, mahaitik aparte pentsatzen baitituzte mugimenduak, aurkariaren txanda denean urrundu ondoren. Aurkaria zenbat eta gutxiago ikusi, orduan eta hobe.

Hortxe dago garai haietako xarma: jantzi dotore ilunak, eszenatokiaren apaltasun diskretua. Eta hantxe zegoen bera, ohean eserita, dutxara joateko nagikeria ezin kanporatuz. Abailduta. Aldiro egiten zuenez, gauza txarrak gogoratu zituen, gaurkoak bezala iraganekoak, eta horien artean arakatu zuen, dagoeneko oso ezaguna zi-

tzaion bidea eginda; baina ez zuen ezer berririk aurkitu: betiko bide antzua.

Zerbait *ezezaguna* zen tristatzen zuena.

Oraindik Maialenen usaina zuen elastikoan. *Eau jeune* erabiltzen zuen, fruitu usainekoa. Oparo botatzen zuen lepoan eta eskumuturretan, eta Oliveirari usaina geratzen zitzaion ezpainetan musu ematean. Mihiaz zaporea kentzen saiatzen zen; lurrin garratza geratzen zitzaion orduan, Maialenen haragi zati bat jan izan balu bezala.

Iragana zen Maialen. Lekuonako izkinan utzi zuen. Ez zen neska bat toki hartan bertan utzi zuen aurreneko aldia. Norbait utzi beharra desgrazia handia iruditzen zitzaion, neskek zitala eta bihozgabea zela leporatzen bazioten ere. Maitatua ez izatea baino askoz nahasgarriagoa zen ezin maitatzea.

– Neska utzi eta gainera negar egin behar al duk? –esaten zion Oskarrek.

Oskarrek ez zekien zer zen maitasuna tantaz tanta desagertzen ari zela sentitzea, eguzkitan lehortzen den putzua bezala. Zer zen jainkosa bat hezur eta haragizko emakume akastuna bila-

katzea, oharkabean jainkosa izandako emakume haren akatsak besterik ez ikusteko begirada miopea izatea. Maitasunaren eztia dastatu eta biharamunean egiten zion maiteminak ihes, atea ireki orduko etxetik alde egiten duen katuaren abileziaz. Zentzua galtzen zuten musuek, antzerki bilakatzen ziren irriak, jasangaitza egiten zen isiltasuna. Aspaldi zen azalpenak bilatzeari utzi ziola, edo azalpenak bilatzea bere buruaren zoko batera baztertutako ekintza zela behintzat.

– Haziko zara noizbait –esan zion Maialenek saminez.

Negarrez hasi zen gero, barkatuka, oro zotin, eta orduan are gizatiarrago bilakatu zen. Ikuskizun hura jasan ezinda, negarrik ez egiteko erregutu zion Oliveirak. Une hari aurre egitearren maitasun zipriztin bat bilatu zuen bere barruan, baina han arrastorik ez. Gezurretan hasi behar izan zuen, enbarazuari ihes egiteko:

– Ez zaitut merezi.

– Zerbait hobea merezi dudalako utzi al nauzu?

– Ez dut hori esan nahi. Ez da hori bakarrik.

– Zer da ba?

Ez zen neska ergela, baina utzia izateko atakak modu harrigarrian berdintzen gaitu izaki guztiok. Denok jokatzen dugu zentzugabe, batbatean bizitzea ahaztu izan balitzaigu bezala. Arrazoi bihurriak bilatzen ditugu arrazoi sinpleen tokian. Ahaztu egiten zaigu garbantzu baten barruan kabitzen dela bizitza. Eta abandonurako arrazoi bakarra dagoela: izakiek elkar gogaitzeko edo aspertzeko duten gaitasuna. Unea iristen denean, ordea, astiroegi barneratzen da begibistako printzipio hau, zopa platerkada handi baten antzera. Amorante guztiek besteak platerkada bukatu dezan itxaroten dute mahaitik altxa gabe. Horregatik hainbeste gezur:

– Ez da maite ez zaitudala. Baina... ez dakit.

Bazekien azalpenek mina luzatzeko baino ez zutela balioko. Maialenena aurrena, ondoren berea. Maialenek norbait aurkituko zuen laster (neska ederra zen), baina Oliveirak harremanetik harremanera eramango zuen maitatzeko ezintasun kronikoa.

Musika pixka bat, gogoaren soka mozteko. Moztu egin behar zen, bai. Moztu, moztu, moztu. James Taylor, Tim Buckey, kanta zezatela, arren,

entzun zedila besteren baten ahotsa. Easo kalean epeka erositako Philips musika jogailua argiz bete zen, kontzertu bikain baterako prestatzen den orkestra bat afinatzen ariko balitz bezala han barrenean. James Taylorrena boza entzun zenean abiatu zen saltoka dutxara.

Beharbada bizitzaz aldatuko banu, pentsatu zuen. Beharbada ama utziko banu. Urrun joan. Zerbait handia egin, zerbait ikaragarria. Liburu on bat idatzi, inoiz idatzi den libururik onena.

Elkarrizketak egingo lizkidakete.

– Zergatik idatzi duzu liburu hau?

– Galdera zaila da. Arrazoi bakarra entzun nahiko zenuke, Cassius Clayren ukabilaren indarrekoa, baina erantzuna ez dago nire baitan. Arrazoiak ugariak dira, egunero aldatzen dira. Gaurko arrazoiak gezur ziratekeen atzo, faltsuak bihar. Une honetan egiazkoak izan arren, bost minutura iraungiko lirateke.

– Motibazioren bat izango zenuen...

– Zorretan nago neure buruarekin. Barrengo piztia batek zerbait eskatzen dit etengabe, zerbait sublimea. Konturatu orduko atzaparrak zo-

rroztuta dauzkat, gorputza biloz estalita, eta ilargiari ulu egiten diot, otso zahar baten moduan.

– Izaera filosofikoa duzu, Oliveira jauna...

– Ez dakit filosofiaz ezer ere! Baina nire aita bete-bete eginda etxera itzultzen ikustean, galtzak txizaz bustita, jostailu baten moduan balantzaka, derrepente agertu zitzaidan filosofia. Hautsitako harlauzarekin estropezu egiten dugun bezala, halaxe topo egin nuen galderak erantzun beharrarekin, ezustean. Ez erortzeko baliabideak bilatzen hasi nintzen orduan. Horra nire filosofia.

– Zauri horiek sendatzeko modua al da idaztea?

– Idaztea nortasuna da, jarduna baino lehen. Ez fidatu mendiko jantziez agertzen diren idazle sano eta kaskarinez. Ez dakite ezer literaturaz. Izan nintekeen margolaria (edo eskulturagilea), baina idazlea naiz, akaso errazagoa eta merkeagoa delako, ez delako beste ofizioak bezain aparatosoa... Ez dakit ulertzen didazun. Pintoreak etxetik irten behar du, olioak eta pintzelak eta bastidoreak eta mihiseak aurkitu, aukeratu, konparatu, erosi. Obra baten erdian buka liteke olio zuria edo urdina. Une horretan pintoreak eten

egin beharko du bere jarioa. Idazleak beti izango du arkatzen bat inguruan, propagandarako erabiltzen diren boligrafo horietako bat, koaderno bat, orri zatiren bat.

– Noiztik datorkizu istorioak kontatzeko bokazioa?

– Bokazioa! Gezurra! Nire ahotsa entzuteak plazera sortzen dit, eta sinetsita nago besteei halako zerbait sentiarazten diedala. Idazleak, gehienetan, munduaz oso irudi okerra du, bere buruaren isla deformatuak sortutako haluzinazioan oinarritua. Ongi pentsatuta, nahiko barregarriak gara. Politikarien antzekoak: hitzontziak eta dantzariak. Gure bizitza engainu hutsa da.

Miravalles hotelean daude, oro luxu, aspaldiko hotel hauts usaineko batean. Altzariek apaindurak dituzte ertzetan, ilunak dira, pisuak, eta lanparak erraldoiak, ehunka anpuluz hornituak. Horietako bat norbaiten gainera eroriko balitz, labezomorro bat bezalaxe zapalduko luke: krask! Gortina luzeak, zetazkoak agian, beilegiak. Izerditan dago kazetari lodia. Lepoa estutzen dio gorbatak, zigarreta bat pipatzen du. Aurpegi biribila du, eta erdian bibote txikia, lau-

kia, groteskoa. Ordu asko daramate elkarrizketan. Irudi onenaren bila itzulika dabil argazkilaria, marrazo baten zuhurtziaz. Kamera beherantz jarri du, eskuen mugimendua harrapatzearren. Argazkilariei eskuak ateratzea gustatzen zaie, ez dutelako begien keinu zehatza noiz azalduko itxaroten egon nahi. Zabarrak dira. Eskuak desagertuz gero, begien ardura da elkarrizketatuaren adierazgarritasuna ordezkatzea. Elkarrizketa osoan segundo batean gerta liteke hori, bi, hiru segundotan. Baina argazkilariek ez dute une horren zain egon nahi izaten, nahiago dute sotiltasunik gabeko eskuen adierazpena. Efektistak dira. Horregatik jartzen du argazkilariak kamera bertikalean. Flash! Hortxe du argazkia: «Oliveira: lokaztitik zerura». Oliveirak mahai azpian ezkutatu ditu eskuak. Argazkilariak euliari bezala jarraitu dio, ziztuan, traje handiegiaren barnean eskuen zain. Baina Oliveirak azpian gordeko ditu: bila dezala bere begirada, begien atzean ezkutatzen duena. Egin dezala lan, madarikatuak.

Ardo botila ekarri du zerbitzariak. Bi kopak bete ditu. Irri egin dio ardoa bota bitartean. Ez-

pain haragitsuak ditu, hortz zuriak, xingola buruan. Beltzez pintatuak ditu begi-ertzak, eta barruko urdinak zerbait esan nahi lioke: «Begi urdinak ditut, idazle, eta bihotz bakarti bat. Hemen nago, zerbitzari soil. Nire bizitza tristea da, zure bizitzan ez badago. Neure iluntasunetik aterako ninduke zurekin egoteak». Alkandora beltza du, paparra bistan, larru zurizko eztanda bulartsua. Emakume betea da, goserik pasatzen ez duten horietakoa. Gozozalea izango da agian. Haren ipurmasailetan lo hartuko luke Oliveirak, arrakalaren ostatuan.

– Zaude pixka batean –agindu dio zerbitzariari–. Nola duzu izena?

– Nastassia, jauna.

– Nongoa zara ba?

– Hemengoa, jauna, Oiartzungoa.

– Eta izen hori?

– Zuretzat aukeratu dut –erantzun dio irriño batekin.

Txundituta geratu da. Neskaren xalotasunaren atzeko emea azaldu da: piztia. Zakila harrotu zaio Oliveirari. Zorabiatzen hasi da, neskaren alkandora urratu du eskukada batez, ardo kopa

mantal zurian lehertu da, odola. Airean geratu dira Nastassiaren bularrak, bigun, dantzan. Argazkilariak flasharen lanpara aldatu du: «Begira ezazue une batez!». Fluk!

Kea.

Halako ametsak izaten zituen Oliveirak, eta ia beti amaitzen ziren berdin: Nastassiaren titi zurien dantzarekin.

Txorien kanta entzun zuen leihoaren bestaldean. Besoa luzatu zuen. Nastassiaren arrastorik ez. Hobe sentitu zen, hala ere. Ahoan katuarraina zuen jaikitzeko tenorean. Hamabiak, ez zen horren berandu.

Sofaren izkinan eseri zen, artean begiak zabaltzear zituela, eta Oskarri deitu zion. Gau txar baten ondoren, beti deitzen zion Oskarri. Batik bat gaua elkarrekin pasa bazuten, zeina, ezinbestean, beti gertatzen baitzen. Oskarrek lasaitu egiten zuen Oliveira, bera bezala galduta zebilelako, edo mundua galduta zebilela jakitun. Beti xakean jarduteko xakelarien gaitz sendaezina zeukan. Maisu Handia izan nahiko zukeen, FIDEren lehia handiak jokatu, munduko txapelduna izan. Baina ikastolako maisua zen, letra larririk

gabea; Euskal Ligan jokatzen zuen, ez zuen nahikoa talentu errusiarren aurka lehiatzeko, Oliveiraren begietara jenioa izanagatik. Urrun iristen zen Oskarren pentsamendua. Ez zen bere burua behin eta berriz errepikatzen duten horietakoa behintzat. Oskarrekin hitz egitea zen Oliveiraren plazer handienetakoa. Hiztun ona zelako eta, bereziki, bera ere hiztun ona sentiarazten zuelako.

– Capablanca!

– Eta?

– Bof.

– Puta.

– Mozkorra.

– Eta ama?

– Biraoka hartu nindian sotoan.

– Sotoan?

– Ezin nian giltza sarrailan sartu!

– Giltza? Zuloan, Oliveira!

– Ostikoka hartu nindian, arrandegiko gomazko boten ezkatak ditiat jertsean. Ez dik gupidarik: «Hasi lanean!, alferra!».

Oliveira pozik sentitu zen lagunaren ahotsa entzutean. Bizitzak aurrera segitzen zuen, horratik, bere arintasunean. Oso sentimendu lausoa

zen hura, baina sentitzen zuenean ia hegan egiten zuen. Halako axolagabekeria faltsu bat zen, inozoa, animalia, oinarrizkoa. Ideiarik jasoenek ezertarako balio ez zutenean iristen zen sentimendu horretara, eta istant batez horrela sentitzea lortzen zuen. Film amerikarren irudiak etortzen zitzaizkion gogora, errepide bazterreko eserleku gorriko tabernak, kafe txarro haiek, edo paisaia hori bat, gari soro luze-luzeak... Irudi solteak ziren, baina denak zetozkion zineman emandako une zoriontsuen akordutik. Beti esaten zuen filmek asko laguntzen ziotela gauzak modu irrazionalean erlatibizatzen, ze arrazionalki ezer erlatibizatzea ezinezkoa baita. Zinemaren terapia bezalakorik ez dago. Ez edozein film. Osagai zehatzak izan behar ditu filmak. *Jaws*, adibidez, hura izan liteke film egokia. Itsasoa du, trama ederra, marrazo ikusgarria eta marinelen bizitza epikoa. Ezinezkoa da *Jaws*en aurrean arazoak une batez ez ahaztea, eta parentesi horretatik abiatuta erlatibizatzeko arrazoi bat ez aurkitzea, arrazoia funtsik gabea izanagatik ere.

– Maialenek deitu al dik?

– Ez.

– Neska jatorra zuan.

– Jatorregia, beharbada.

– Nola izan liteke inor jatorregia?

– Misteriorik gabea, tolesdurarik gabea, gardena, zer dakit nik!

– Gardena? Zer...?

– Gustuko baduk emango diat haren telefonoa.

– Norena?

– Maialenena, gizona!

– A, bai... telefonoa.

– Bai, deitu nahi badiok...

– Nori deitu?

Eztul egin zuen Oliveirak:

– Oskar, zergatik ez haiz telefonoa hartu aurretik esnatzen? Zergatik hartzen duk telefonoa oraindik lo bahago?

– Ze lo eta ze kristo! Azkazal hau duk, azkazal puta hau. Moztu egin behar diat –esan zuen Oskarrek–, azkazalak moztekoa aurkituko banu.

–3–

– Asper-asper eginda utzi nuen unibertsitatea –esan ohi zuen Oliveirak.

Oskarrek bakarrik ezagutzen zuen egia. Gainerakoek gertakariaren bertsio faltsua baino ez.

– Antihumanista da unibertsitatea, jende otzana ekoizteko fabrika.

Antihumanista hitza etengabe erabiltzen zuen garai batean; gustukoa zuen haren soinua, eta esanahi ustez jasoa ere bai.

Oliveirak ezinagatik utzi zuen unibertsitatea. Noraezean ibili ondoren erabaki zuen amore ematea. Zuzenbidean matrikulatuta egon zen urtebetez, Historian beste urtebete batez. Alferrik. Halako batean, unibertsitatera joatekotan zenean, etxeko eskaileratan behera hartu zuen erabakia: ez zen gehiago estolda hartara itzuliko. Kisketaz itxi zituen atea, pertsianak, leihoak; ohean sartu zen, eta burusiekin estali. Bere arnasa entzuten geratu zen, autoen joan-etorria, etxeko isiltasuna.

Ezin zion bere buruari zentzuzko azalpenik eman. Gertakariak errepasatzen hasi zen. Eskolan gaizki sentitu zen lehen aldian hiru urte zituen. Andereñok plastilinaz ‘m’ bat egiten irakatsi zien. Mugimendu azkar batez egin zuen letra Andereñok; formarik gabeko zatia ‘m’ bilakatu zen, aztikeria baten antzera. «Egin ezazue zuek orain» agindu zien haurrei. Lanean hasi ziren. Ingurura begira geratu zen Oliveira, izututa, handik ihes egiteko premiaz. Alboan zeukan Oskar, ‘m’-a eginda. «Nola egin duk?» galdetu zion. «Mendi bat egin behar duk aurrena» esan zion, «gero bestea, eta gero hirugarrena; eta ondoren denak elkartu». Erraza! Mendi bat egin zuen, gero beste biak, eta elkartu egin zituen azkenik. Orekarik gabe geratu zitzaion, plastilina gaizki banatuta, baina ‘m’-a zen! Oliveirari, hala ere, ondoeza geratu zitzaion, besteek gauza bat azaldu eta berak ulertzeko biderik ez aurkitzearen sentipen nekagarria.

– Gaur ‘m’ bat egin dugu plastilinaz –esan zion amari.

– Oso ondo, Raul, 25 letra bakarrik falta zaizkizu!

Amak asmo txarrez esan ez bazuen ere, kezkaren harra sortu zuen Oliveiraren barruan. Gauean amesgaiztoak izan zituen plastilinazko letra madarikatuekin: ikastolako patiotik ihesean doa, eta atzetik plastilinazko piztia erraldoiak; haur guztiek «Gezurrezkoak dira!» oihukatzen diote barreka. Gezurrezkoak, bai zera, piztia likits letratu ikaragarriak dira!

Plastilina: bere ezintasunaren ehundura biguna, malgua eta lazgarria. Usainak ere higuina emango zion aurrerantzean. Urrutiko plastilina eta unibertsitatea uzteko erabakia lotu zituen Oliveirak, hantxe, ohean sartuta. Ez zuen ikara handirik izan. Artista izango zen.

Bere burua imajinatu zuen: bufanda zuria, jaka laukiduna, betaurrekoak, panazko galtzak. «Raul Oliveira, begira ezazu hona», plak!, «Oliveira jauna, Oliveira jauna!». Eta aldamenean izango zuen ama, soinekoz jantzita, ezpainak gorri, irribarrez: «Ondo Raulito, oso harro nago, aitak ikusiko bazintu!».

Baina ama ez zen harrotu. Belarrondoko bat eman zion.

Gero bost egun eman zituzten sokatiran, eta Oliveirak ez zuen amore eman.

– Aita bezalakoa zara –gaitzetsi zion amak, bizitzan sarritan esango zion horixe bera.

Gibeleko minbiziak jota hil zen aita. Bizitza osoa urre gorriari itsatsita. Gizon txikia zen Isaias Oliveira, ona eta zintzoa. Ez zen mozkor erretxindu horietakoa. Umore finekoa baizik. Galegoen ironia. Beti sesioan aritzen zen amarekin, egunero hausten zuelako bezperan egindako promesa:

– Bukatu da zakur bizitza hau –esaten zuen, baina etxetik irten orduko sartzen zen tabernan.

Etxetik bota zuen azkenean. Baina ez *guztiz*. Goizetan etxean sartzen zen, zer edo zer jaten zuen (saltxitxoi ogitartekoa aukeran) eta pixka bat garbitzen zuen bere burua, lotara joan aurretik. Ordu batzuk geroago itzultzen zen, amarekin topo ez egitearren. Janaria eginda uzten zion amak, hitzik gabeko hitzarmena zuten.

Aitak gaua non igarotzen zuen, hori ez zuen Oliveirak sekula jakin. Nahiz eta behin galdetu egin zion.

– Ez dut inoiz lorik egiten!

Ez zen gezur erabatekoa izango seguruen. Nolanahi ere, erantzun bikaina iruditu zitzaion Oliveirari, eta maiz kontatzen zuen lagunartean.

Figura iheskorra, lanbroa zen aita, baina oso maitea zuen. Lausoaren lausoaz, gauza txarrak desagertu egin ziren Oliveiraren memoriatik. Aita gozotasuna zen, baikortasuna. Eta abilezia: Joaquinen tabernan bera zen tutean onena. Sarritan joaten zen hara Oliveira, arratsaldeko saioak ikustera. Txanpon batzuk ateratzen zituen aitak, Oliveirari dirutza iruditzen zitzaiona, eta batere tranparik egin gabe. Karta handiak gordez, bereak zirenak eta ez zirenak irabazten zituen. Ez zuen barkatzen.

Bizitzaren artea erabateko xumetasunera ekarri zuen gizon hura hain pozik egoten zen, aho ertzean txotxa eta patxaran kopa eskura izan ez balitu ume batekin nahasiko baitzuketen.

Oliveirak unibertsitatea utzi zuen astean bertan, lana bilatzen hasteko agindu zion amak, bien arteko sokatirari gustua hartzen hasi zitzaiola konturatuta. Oliveirarentzat etxean gozo egoteko aitzakia bilakatu zenez eztabaida, amak

azkar jarri zuen erremedioa, aitaren aldrebeskeriak akorduan.

– Etxe honetan bizi nahi baduzu, zoaz lan bila.

Unibertsitatea utzi zuen honenbestez. Baina artista izango zela erabaki zuen egunean amaren zaplaztekoak utzitako arrain kerua usaindu zuen, apaindurarik gabeko erantzunaren arrastoa.

–4–

Lana aurkitu zuen: entziklopedia saltzaile.

Egunkarian ikusi zuen iragarkia. Lan posibleen artean txarrenetakoa iruditu zitzaion, baina ez zegoen non aukeratu handirik. Bazen beste bat kalkulagailuak saltzeko. Lan bitxia: kalkulagailu ekoizleek ez ote dute banatzailerik? Imajinatu zuen elektronika enpresa hartako buruzagiaren buruhaustea: «Makina mundialak ditugu, baina saltzeko modurik ez». Ezin enpresa fidagarria izan.

Universal Fundaziora deitu zuen. Tino izeneko gizon batek erantzun zion:

– Lanari beldurrik ez badiozu, sosak pilatuko dituzu gurekin.

Panikoa ematen zion lanak Oliveirari, bereziki lan horrek, baina ez zeukan besterik.

– Imajinatzen dut jendeak eskutik kenduko dizkidala liburuak.

– Urte asko daramatzat lan honetan. Sinets iezadazu, jendeak nahi duena eta nahi ez duena segundo batetik bestera aldatzen da; eta nahi ez

duena erosteko zein bidetik eraman azkar ikasiko duzu.

– Gezurrak franko esan beharko ditut orduan.

– Ez, arren! –esan zuen Tinok–. Egon zaitez lasai...

– Ez daukat ezer galtzeko.

Handik egun batzuetara elkartu zen lankideekin. Aspaldiko zirku gizonen bibotea zeukan Tinok, zurruna eta luzea, biribila. Gutxitan ikusten diren alproja horietakoa zirudien, komiki batetik ateratakoa. Amarrugilearen imitazio komikoa zen. Oliveirari, ordea, nolabaiteko konfiantza sortzen zion. Sentimendu lizuna, lohia, baina ezin zuen saihestu. «Alprojak ezin du alprojaz jantzi» pentsatzen zuen, «alprojaz janzten den alprojak ezin du alproja izan». Horren begi-bistakoa zen Tinoren itxura txarra, ezin baitzen horren txarra izan.

Hiru lankide izango zituen Oliveirak: Koro izeneko neska ttattarra, Jon pikorduna, eta adin ertaineko Gotzon kaskazuria.

Korok konspiratzaile itxura zeukan, segituan lagunak eta arerioak egiten dituen horietakoa. Zer lan egin behar zuen, hori gutxienekoa zen

beretzat, garrantzitsuena lantaldearekin izango zituen harremanak ziren: nor maitatu, nor gorrotatu.

Gotzon ere arriskutsua zen. Carrefourren apalategiak betetzen aritu zen garai batean, baina kaleratu egin zuten lapurretan ibili zela zabaldu zenean. Orduko despita burutik kentzearren, Kororekin harreman klandestinoa hasi nahiko zuen, eta fantasiarik bizarroenak egiteko baliatuko zuen istorioa. Segituan damutuko zen, Koro setiatzaile profesionala baitzen: lanak izango zituen bere bizitzatik berriz uxatzeko.

Jon isila zen, baina ez diskrezioagatik, zekenkeriagatik baizik. Aldez aurretik isiltzea erabakitzen dutenetakoa, kalkulatzailea, tematia. Informatikari itxura zeukan (eta ez zen harritzekoa, informatikaria baitzen). Eskolan porrot egin zuen, Tetrisean eta Capitain Sylver izeneko makina batean jokatzen ematen zuelako aste osoa. 1995ean Ourensen jokatutako Capitain Sylver munduko txapelketan parte hartu zuen, baina lehen txandan kanporatu zuen filipinar batek. Ordenagailuak konpontzeko denda jartzea zen bere ametsa, bezeroen konputagailuen urdaile-

tan arakatzea, besteen intimitatea zelatatzeko. Erantzun burutsuak aurkitzen zituen etengabe, eta barre egiten zuen bere ateraldiekin (besteek ere barre egingo zutelako itxaropenaz).

Eta Tinok barre egiten zuen, noski, zirkuko gizona zenez.

Lehen egunean Beraunen egin zuten hitzordua, Vivaldi taberna parean. Taldeka ibili behar ez izatea erregutu zuen Oliveirak. Derrigorrezko solasaldiak imajinatu zituen: Jonekin gurutzatutako hitz txoroak, Gotzonekin trukatutako elekeria antzua. Taberna aurrean ikusi zituenean ihes egitekotan egon zen, baina ez zuen ausardiarik izan.

– Tira ba, hemen ditut kaleak eta sotoetako zenbakiak–esan zuen Tinok–. Bakoitzak bereak izango ditu. Ateak banan-banan jo beharko dituzue: etxean badaude, ireki dezatela; ez badaude, hurrengora. Ez du balio ateak deitu gabe sototik irteteak. Irekitzen dutenean, etxeko nagusia hor ote den galdetu behar duzue. Nagusi, jaun, andre... hasiera-hasieratik azaldu behar duzue umil, etxekoak ez dezan beldurrik izan, ez dezan pentsa mehatxua zaretenik. Ulertu?

– Ados –Gotzonek bakarrik erantzun zuen.

– Etxekoak mesfidati azalduko dira hasieran. Oro har minutu eta erdi inguru behar du bezeroak ate aurrean dagoena lapurra ez dela ohartzeko. Lotsagatik edo begiruneagatik, horrexegatik ez dute lehenago atea ixten. Tarte txiki horixe izango da mugarria, oso azkar ibili behar duzue. Ez zaitezte totelka hasi, ez ezazue dudarik egin: munduko entziklopediarik onena da esku artean daramazuena. Edozein etxetan da premiazkoa horrelako liburu sorta eder bat: testu bikainak ditu eta irudi are ederragoak.

– Ados –esan zuen berriro Gotzonek.

– Hauxe da gakoa: zein da etxeko etorkizuna liburuotan ezkutatzen diren *funtsezko* gauzak jakin ezean? Etorkizun beltza!

Zinez egiatan ariko balitz bezala mintzatu zitzaigun Tino. Ofizioa ongi ezagutzen zuen. Seguruenik dirua ere erruz irabazitakoa zen, etxez etxe bera gutxitan ibili arren.

– Bizimodua hobetzeko, pobrezia baztertzeko, gizartearen jokoan aurrera egiteko... horretarako balio dute liburuok. «Auzo miserable hau utzi nahi zenuke, jauna?». Horra galdera handia.

Denek pentsatuko dute baietz, noski, baina gutxi batzuk ausartuko dira onartzen. Onartzen dutenek jakingo dute, bai, aldatzeko zer egin behar den: liburuen bidez jakintzaren unibertsoan sartu, hain justu!

Atzamarra luzatuta, atseden dramatikoa egin zuen Tinok, ortzi-mugaz harago begira. Harantz begiratu zuen Jonek ere.

– Jakintzaren unibertsoa! –errepikatu zuen–. Argi azaldu, lotsarik gabe. Nagusia konbentzitzea lortuz gero, 15.000 pezeta patrikara. Horrelako pagotxarik! Etxetik sinatutako paperarekin ateratzeko, ordea, hauxe jakin behar duzue: mundu guztiak, entzun ondo, mundu guztiak dauka bizitza aldatuko dionarekiko jakin-mina. Naturala da, instintiboa, nahi baduzue. Zuek ezin duzue zalantzarik egin. Nabaritu egingo dute totelik txikiena eta segituan egingo dute atzera. Sinesgarritasuna: horixe da gakoa. Zuek sinesten duzuena, horixe sinetsiko dute erosleek. Zeuek sinesten ez baduzue, akabo fandango!

Tinok esku-orri batzuk banatu zizkien. Entziklopediaren liburukoteak agertzen ziren irudi sorta baten erdian. Planetak, lehoi bat, gizon

zahar bat (Michelangelo margolaria), piramideak, indigena batzuk, eta, jakina, neska gazte eder baten irudia, zeina irudi guztietan garrantzitsuena izango baitzen seguruenik. Neska gaztea entziklopedia *gaur egungoa* dela berrestera zetorren: gauza modernoa, XXI. mendekoa, arina, alaia, positiboa, xaloa, erakargarria, garailea. Munduko iragarki guztietan agertu behar du neska gazteak. Legea da. Gaur egungo munduaren legezko logika.

«Munduaren ateak irekiko dizkizun jakintza» irakurri zuen Oliveirak. Bere burua imajinatu zuen esaldi hori ahoskatzen, eta atearen beste aldekoaren aurpegi sinesgaitza: «Zer esan duzu jakintzaz, gazte?».

– Ez zarete saltzaileak –ohartarazi zien Tinok–. Ahaztu hitz hori. Zuek Universal Fundazioaren ordezkariak zarete. Hala azaldu behar duzue zeuen burua: «Kaixo, Koro nauzu...». Nola duzu abizena? –galdetu zion Korori.

– Muñoz.

– Horixe bada: Koro Muñoz nauzu, nagusi, Universal Fundazioaren ordezkaria. Unetxo batean azalduko dizut zein den nire bisitaren

xedea: zenbatetan ez ote gara geure jakintza sakondu ez izanagatik damutu? Jakintza boterea dela entzungo zenuen askotan, zalantzarik gabe (hemen aipu pertsonalagoa gehi dezakezue; adibidez: «Zure aurpegia ikusita erraz nabari daiteke hori badakizula»). Han eta hemen saiatzen dira geure xalotasunaz baliatzen gu baztertzeko, gu galbidera kondenatzeko. Baina inoiz ez da berandu. Ongi eta eroso bizitzeko eskubidea dugu, ez al duzu uste? Gure fundazioak interes handia du herritarren jakinduria areagotzeko. Zergatik? Ezjakintasunak iluntasunera kondenatzen gaituelako, ez zu bakarrik, baizik eta denok!

– Ezjakina dela esan behar al diogu etxekoari? –galdetu zuen Oliveirak.

– Galdera ona. Ez, etxekoa ez da ezjakina, mundua da ezjakina, bazter guztietan dago ezjakintasuna: erakunde politikoetan, merkatuan, hedabideetan... Dena da ezjakintasun. Nora goaz? Hau al da nahi genuena? Horretarako borrokatu al ziren geure arbasoak? Ez! Gure fundazioaren erantzukizuna da geure arbasoek hasitako borroka hura bururaino eramatea... Ez dakit jarraitzen ote didazuen.

Isilik geratu ziren laurak. Korok irri urduri bat egin zuen eta Gotzonek eskuaz kaskezurra igurtzi zuen, lozorrotik esnatu nahiko balu bezala.

Ilea hazteko botika faltsuak saltzen dituztenen konbentzimenduaz hitz egiten zuen Tinok. Guztiz ezinezkoa iruditu zitzaion Oliveirari elekeria horrekin liburu bakarra saltzea. Eta Tinok ezagutzen zituen susmo horiek.

– Ez ezazue pentsa libururik salduko ez duzuenik. Egin ezazue esandakoa, sinets ezazue, eta ikusiko duzue posible dela. Orain –erantsi zuen–, ahaztu lehen egunean aberastuko zaretelako ametsa. Tirriki-tarraka egin beharko duzue lan, egunetik egunera. Trankil, larritu gabe. Emaitzak uste baino bizkorrago iritsiko dira.

– Zenbat balio du entziklopediak? –ausartu zen Oliveira.

– Esku-orrian ikusiko duzuenez, entziklopediak hileko 1.600 pezeta balio du. Alegia, eguneko 50 pezeta. Ogi batek baino gutxiago. Hiru urtean ordaintzekoa denez, 60.000 pezeta guztira. Interesik gabe, interesik gabe! Oso merkea da, baina saia zaitezte zenbaki handia ez esaten. Tematzen badira, esan; baina asko tematzen badi-

ra bakarrik. Zenbat balio du? Eguneko 50 pezeta! Kito. Ogi batek bezala. Eta interesik gabe. Jesus, oparia da!

Beltz ikusi zuen Oliveirak kontua. Inguru hartan bakarrik gelditzeak, paper zahar horiek eskuan, deprimitu egiten zuen; baina beste edonorekin ibiltzea baino hobea zen. Unibertsitateaz gogoratu zen. Hain gaizki ote nengoen han?

Tinok hantxe ondoan aparkatua utzi zuen Renault 21 Chamade-a. Ez zuen luze geratzeko asmorik. Larrialditarako argiak deika zeuzkan: goa-zen, goa-zen, goa-zen, goa-zen.

Inguruko etxeei so egin zien Oliveirak. «Etxe guztietan ezkutatzen da herritar inuzenteren bat, amua jateko zorian egon litekeena». Higuina sentitu zuen beregatik, bere lan berriarengatik.

– Zer, Oliveira, gogoz? –galdetu zion nagusiak.

Denak begira zeuzkan. Gizakia gorrotatu zuen, gizakiaren gizarteratzeko manera petralak. Jonen bizitza petrala begi aurretik ezohiko abiadaz pasatzen ikusi zuen: ikasgelakoek barre egiten zioten. Zergatik? Futbolean txarra zelako,

oihalezko musuzapia eramaten zuelako, bost urterekin ikaskideen aurrean kaka gainean egin zuelako, muki kandelak izaten zituelako, txiroa zelako, Nintendorik ez zuelako. Hortxe zeukan Jon mozoloa begira. Ilusioa izango zuen agian. Taldeak onartu zuen. Taldekide bat gehiago zen. Lana ongi egingo balu, Tinoren kuttuna izatera iritsiko litzateke. «Ongi aritu zara, Jon; banuen susmoa jendearekin esku ona duzula, ikusi orduko igarri nizun. Etorkizun handikoa zara, alajaina!».

– Bai, noski –erantzun zuen Oliveirak ahapeka.

– Hitz egin ezazu kartsu, mutila! –eta aldarriz amaitu zuen–: Etorkizuna zuena da!

–5–

Infernutik zerurako bidea ezaguna zuen. Eta zerua inoiz baino zeruago azaltzen zitzaion, infernua dastatu ondorengo ordu haietan. Talking Headsen *Psycho Killer* kanta entzuten zen Gaspar tabernan.

– Gero eta hobe ulertzen ditiat hiltzaileak –esan zuen Oliveirak–. Lana egin besterik ez zagok halako ideiak izateko.

– Horren gaizki joan al zaik ba? –galdetu zion Oskarrek.

– Tino alproja hori: «Opari bat!». Nori sartuko zioat ziria hautsa pilatu besterik egingo ez duten liburu barregarri horiekin...

– Mugi ezak, hire txanda duk.

– Galduta nagok.

– Ez duk egia, hasi besterik ez diagu egin.

– Bai, motel, txikituta, itxaropenik gabe.

– Begiratu ondo, erreparatu piezei, bakoitzaren kokapenari, bakoitzak duen...

– Bai, bai: bakoitzaren proiekzioari, bakoitzaren potentzialari... Kaleen izenak baino ez zaizki-

dak etortzen burura! Irumugarrieta, Parke, Jesus Guridi... Laostia, hainbeste kale zegoenik!

– Beraun New York da.

Taulari itzulia eman zion Oskarrek. Oliveiraren piezak aztertu zituen. Askotan egiten zuen hori harroputzak! Oliveirak galduta zegoela esan orduko, taulari buelta ematen zion Oskarrek, bestearen piezekin jokatzen hasteko. Burua igurtzi zuen une batez, bekainak zimurtu.

– Irabazi egingo diat –esan zion, zaldia d5 laukira eramateaz batera.

Orain Oliveirarena zen alfila mehatxatu zuen. Beraz, alfila kendu beharko zuen. Posizio guztiak ziren okerragoak ordea. Non zegoen ba zaldi hori hamar segundo lehenago? Alfil horrek diagonal garrantzitsuena zaintzen zuen: ederki pairatu zuen ordura arte Oliveirak alfil horren kokapen bikaina. Umiliagarria zen alfila hortik mugitu behar izatea. Beti gertatzen da berdin: sekulako ahalegina egiten dugu diagonal garrantzitsuenaz jabetzeko, eta gero umezurtz geratzen gara pausaleku eroso hori utzitakoan.

– Nondik atera da zaldi putakume hori?

– Heuk jarri duk.

– Noiz.

– Duela 12 mugimendu.

– Harroputza!

– Heuk galdetu didak.

– Bai zera...

Ez zen jokaldi aparta, baina funtsean dena aldatzen zuen. Zaldia jan zezakeen Oliveirak, baina jokaldi horrek peoi bat galtzera eramango luke. Jokaldi aparta izan gabe, zitekeenetan onena zen Oskarrek egindakoa. Horrela irabazten da xakean, mugimendu onekin eta hutsik gabe. Sotilak, diskretuak, ageriko zentzurik gabekoak, baina sakoneko arrazoi baten aldekoak. Oliveirak lilura eta amorrua bi-biak sentitu zituen. Oskarren jokaldi onak estimatzeko (eta pairatzeko) jakintza bazuen, baina ez horiek egitekoa. Jenialtasunaren amarrua da: jenialtasunik gabekoei sinetsaraztea jenialtasuna beren eskura ere badagoela. Pintura on baten aurrean, margoaren ustezko erraztasuna ikusiko du talenturik gabeak. Erraza da, pentsatuko du, baina etxean ez zaizkio kopia txarrak baino aterako. Bariazio txikiak egingo ditu, kopia dela nabaritu ez dadin,

baina bariazio txiki horiek zentzu guztia birrinduko dute: oreka hautsi, edertasuna lapurtu.

– Ez diat ulertzen onenen artean ez egotea. Ona haiz...

– Ez, hi haiz txarra, demonio!

– Zaila zuan zaldiaren mugitze hori ikustea. Ez zakiat nondik atera duan lauzango putakume hori. Hire mahukatik akaso... Piezak mahukan gordetzen dituk hik! Esadak, tranpak egiten al dizkidak?

– Hamar urterekin ikasten duk mugimendu hori, Oliveira.

«Raul Oliveira nauzu, Universal Fundazioko saltzaile kaskarra eta xake jokalari penagarria».

«Ez dut libururik nahi». Danba!

«Liburuak! Nolako gauza prosaikoa: *jakintza*, horixe ekartzera nator ni!».

Peoia hatzen artean zerabilen Oskarrek, harekin jolasean, pazientzia galtzen ari zelako akaso. Xakean ari zenean, xakean ari zen Oskar; eta beti ari zen xakean. Hitz gutxiko laguna zen. Etxerako bidean, orduan hasten zen hizketan. Eskerrak.

– Garagardo pare bat eskatzera noak –esan zion Oliveirak, Oskar ozpinduko zuela jakitun.

– Mugi lehenago.

– Mugi heuk, txanda uzten diat.

Zutitzean Oskarren kexua entzun zuen gibeletik:

– Nola kristo mugituko diat ba bi bider, erotu al haiz?

Baina dena zen jokoa, baita haserrea ere.

Joxemari zegoen barran, etxeko nagusia, kapelu dotoreaz: 30eko hamarkadako mafioso hegoamerikar bizizalea ematen zuen, edo eman nahi zuen behintzat, beti zuriz jantzita. Inguruko baserri batekoa zen. Dandy trajeak inauterietako mozorroa zirudien bere soinean.

– Ea ba, hi –esan zion Joxemarik–, ba al dakik zein izan zen eszenatokira traje gabe igotzen lehen taldea?

– Larrugorritan?

– Larrugorritan ez, etiketa gabe, zera, kaleko jantziekin.

– Ez zakiat, ideia putarik ez –erantzun zion Oliveirak.

Joxemarik ezpainak estutu zituen ironiaz. Horrenbeste daukazue ikasteko. Horixe esan nahi zion. Oliveirak ezin zuen kalamatrika hura jasan.

– Eta ez zaidak axola.

– Tira, Oliveira, hiri asko gustatzen zaizkik kontu hauek...

– Esan behar baduk, esan.

Joxemarik belarrian jarri zuen atzamar bat:

– Entzuten duan hauxe: Talking Heads!

– Ez al dira ba 1970 ingurukoak?

– Ez, redios, 60ko hamarkadakoak.

– Joder, lehenago hemengo abeslari asko ibiltzen zuan trajerik gabe: Laboa, Lertxundi...

– Bai zera! David Byrne, bai horixe, hura izan zuan galtza bakeroak jantzita oholtza bat zapaldu zuen lehen gizasemea. Txorakeria irudiko zaik, baina norbaitek izan behar zian lehena, eta bera izan zuan; beragatik ez balitz, gaur egun *mierda de ciudad* guztiak ibiliko lirateke gorbataz. Gandorra buruan eta trajea soinean!

Penizilina deskubritu izan balu ere ez zegokeen hain arranditsu. Buelta eman zuen basoen bila joateko, alaitasun lodikote batez, saltoka edo. Eta bizkarra ematen ziola aprobetxatuz, Oli-

veirak tiro egin zion, eskuaz, pistola irudikatuta: Pam!

–6–

Alerik saldu gabe joan zitzaizkion lehen bi egunak. 21 urtetan baino gehiago ibili zen bi egunetan. Beraunen igogailurik gabeko dozenaka etxe daudela ikasi zuen. Txirrina jotzen zuen bakoitzean urduritu egiten zen, sentimendu gaizto batek harrapatuta. Ez zuen inork irekitzerik nahi. Norbaitek irekitzen zuenean, hitz egin beharrean aurkitzen zen ezinbestean. Eta ez zekien nondik hasi. Lekutan geratzen zen Tinoren hitzaldia. «Hitz egin ezazu kartsu, mutila!». Esaldia behin eta berriz gogoratzen zitzaion alfer-alferrik.

Hirugarren egunean, aurreneko txirrina jotakoan, atso zahar batek ireki zion, betaurrekoak sudur puntan. Jakin-mina agertu zuen, batere ikararik gabea. Egun on esan ondoren isilik geratu ziren biak. Bekainak goratu zituen atsoak: «Zerbait nahiko duzu, seme».

– Etxeko nagusia zara?

– Nagusiena bai behintzat.

– Universal Fundaziotik nator. Gure fundazioa, zera, jakintzaren kontuarekin kezkatuta dago, eta...

– Liburuak saltzera zatoz.

– Halako zerbait –aitortu zuen Oliveirak, eta segituan ohartu zen egindako akatsaz.

– Ez dakit irakurtzen, gazte –atea itxi zuen.

Parekoa jo zuen gero. Zarata sotil bat entzun zuen, ia ohartezina. Norbait zebilen behazuloaren atzean zelatan. Ez zekien zein aurpegi jarri, lasai agertu beharko zuen behintzat; psikopata bat izango balitz behazulora begira legoke; beraz, alboetara begiratu zuen, ate aurrean zain atsegin handiz balego bezala, harmonian. «Bai, egun ederra dago, hementxe nago, zuri opari bat egiteko irrikaz». Itzala desagertu egin zen behazulotik. Txirrinari sakatu zion berriz, suabe. Hontz disekatu baten begia ematen zuen behazuloak. Ez zuen inork erantzun: ez zuten oparirik nahi.

Gustura itzuliko zatekeen etxera, ohean sartu eta Nastassia zerbitzariarekin amestera. Baina bigarren solairura abiatu zen, bizirauteko senak aginduta. Bigarren solairuko ‘A’ atean jo zuen.

Emakume bat agertu zitzaion, ileak zuri, zimurrez josia. Eskuak goratuta zituen sama aldean, zerbait heltzen ariko balitz bezala; ez zeukan ezer, ordea. Arropak hezurren gainean jantzita zituela zirudien: txabusina arrosa eta kolore bereko txapinak. Begi biak elkarrengandik oso gertu, behinola urdinak izandakoek gris ederra erakusten zuten. Txakur txiki bat atera zen andrearen hanka artetik eta, Oliveirari itzuli bat egin ondoren, etxean sartu zen erdi oinez erdi brinkoka. Zaunka egin zuen etxe barrutik.

– Bada norbait hemen nire patrikari zimurrak kentzeko gogoz –esan zuen zakarkeriarik gabe.

– Bista zorrotza duzu!

– Ez da zorrotza izan behar goizeko hamaiketan txirrina jotzen duen gaztea, atez okertu ez bada behintzat, neure lepotik bizimodua ateratzera datorrela asmatzeko.

Emakumearen metafora irudikatu zuen Oliveirak: bere burua ikusi zuen atsoaren lepo zimeletik zintzilik. Ohartu orduko denbora gehiegi eman zuen ezer erantzun gabe, denbora *gehiegi*. Esaten zuen guztia gezurrezkoa izango zen aurrerantzean. Solairu berean zeuden beste bi

ateei erreparatu zien iheskor. Emakumeak atearen ertzean bermatuta zeukan eskua, gogor eusten zion, zainak agerian. Azkazal gorriak. Burdel bat ote zen?

– Zer da saltzen duzuna?

– Jakintzaren bidez bizitza hobe bat proposatzen du geure fundazioak, andrea.

– Bizitza hobea! –egin zuen oihu emakumeak–. Duela 50 urte etorri izan bazina...

– Inoiz ez da berandu.

– Ez ala?

Berriz atera zen txakurra eta hezur bat utzi zuen Oliveiraren oinetan. Makurtu zen andrea, hartu zuen ñañarroa eskuaz, magalean jarri eta laztan egin zion. Hankak zintzilik, isatsa ateratzen zitzaion atzealdetik pozaren erakusgarri. Jator agertzearren Oliveirak sudurra ukitu zion animaliari, haren hezetasunak erakarrita. Muturra harrotu zuen txakurrak, letaginak agerian. Hortzetako karmina erakutsiz egin zuen barre emakumeak. Ez zuen atea ixteko asmorik, antza.

– Tira, zer ikas nezake, adibidez?

Oliveirari ez zioten halako argibiderik eman: zer ikas dezake 70 urteko andre batek? Lehen

minutu eta erdia pasatu zen andreak aterik itxi gabe. Aieru ona izan zitekeen, edo txarra. Zerbait erosteko prest zegoen ala adarra jotzeko gogoz?

– Ikas nezake erizaintza?

– Jakina.

– Bai? –txalo egin zuen emakumeak, alai; isatsa mugitu zuen txakurrak ere.

– Baietz uste dut –xuxurlatu zuen Oliveirak apur bat zalantzati, ez baitzekien erizaintzaz zer arraio zekarten liburu haiek.

– Oso ongi. Zatoz, nire datuak emango dizkizut.

Koadroz estalita zeuden korridoreko paretak. Onak iruditu zitzaizkion lehen begiratuan. Margolaritzaz apenas zekien ezer Oliveirak, baina segituan antzeman zien indar espezial bat.

– Pintura interesatzen al zaizu?

– Pixka bat –orduantxe konturatu zen ez zuela gezur gehiago esateko premiarik.

Ez zuen inoiz interes berezirik agertu, baina sarritan gelditzen zen koadroen aurrean geldirik, arreta xalo batez. Lucian Freud, Edward Hopper eta Francis Bacon ezagutzen zituen, ohiko ize-

nak. Hirurak zituen gogoko, aldizkarietan ikustetik. Aurrez aurre goren graduko koadrorik sekula ikusi gabea zen. San Telmo museoan izan zen aspaldi; nahiko zukeen besteren batera joan, noizbait aukerarik sortuko balitz. Oskarri aitatuz gero, beharbada...

– Jose Zaraterenak dira. Ezagutzen al duzu?

– Ezaguna egiten zait.

– Ez duzu ezagutzen beraz.

– Bueno, seguruenik ez.

– Esan ezazu ba ezetz, ez dago kuidadorik.

Olio askorekin pintatzen zuen Zaratek. Gertutik pintzelkadak ondo ikusten ziren. Puntan amaitzen ziren batzuetan, olatuak bezala, eta hain ziren zorrotzak ukitzeko gogoa ematen baitzuten.

– Nahiko al zenuke egilea ezagutu?

– Ez dakit –estualdian sartzeko beldurrez.

– Hementxe dago –korridore amaierako atea seinalatu zuen.

Emakumeak aurrera segitu zuela baliatu zuen Oliveirak oihaletako bat haztatzeko. Kremazko ehundura izan arren gogortuta zeuden

pintzelkadak. Horietako baten punta zorrotzari sakatu zion, olio lehorra haragian ziztatuz.

Koadroz estalita zeuden korridore amaierako gelako hormak ere. Altzari zaharrak, hautsa eta, egoitzaren erdian, ospitaleko ohe bat. Ohean gizona: aurpegi larua, arnasa hartzeko makina bati lotua. Peter Cushing aktorearen antza zeukan Zaratek. Zilindro handi bat zen arnasa hartzeko makina, barruan eskusoinu modukoa zuena gora eta behera, oxigenoa biriketara bidaltzen.

Miradore handi bat zeukan gelak. Ia kalea baino argitsuagoa zen etxe barnea. Haizeak jotzean leihoek dardara beldurgarria egingo zutela bururatu zitzaion Oliveirari; gauez han egon nahiko luke, euriak kristalean utzitako arrastoei beha.

– Aupa! –esan zuen Oliveirak, eskuaz keinu ergel bat eginez.

Begiak mugitu zituen Zaratek, eta azkartu egin zen makinaren hauspoa.

– Ez dizu erantzungo.

Zakurra gaixoaren ohe gainera igo eta eskua milikatu zion. Dardara ahul bat egin zuten agu-

rearen atzamarrek, kilimak egin zizkiolako edo zakurrari eskerrak eman nahian.

Artista handi baten aurrean ote zegoen jakin nahi zuen Oliveirak, ez baitzekien errukia edo miresmena sentitu behar zuen. Gaixo baten etxean zegoela baino, pintore handi baten mundu buhamean barneratu zela sentitu nahi zuen.

– Ospetsua al da?

– Osperik izan zuen, bai. Are gehiago izango du hildakoan. Hildako artistak miresten dituen gizartean bizi gara. Nekrofiloak gara.

Imintzio maitagarria egin zuen emakumeak, nekrofiloa esan beharrean ekologista edo solidarioa edo tankerakoren bat esan izan balu bezala. Oliveirak hotzikara izpi bat nabaritu zuen: oheko gizonarekin sexu jostetan irudikatu zuen emakumea.

– Bere lanik badago museoetan?

– Askotan.

Oliveirak errukia desagertzen sentitu zuen, eta asko poztu zen. Oskarri esango zion Jose Zarate handiaren etxean izan zela, bere emaztearekin eta bere zakurrarekin. Oskarrek ezagutuko

ote zuen Jose Zarate? Ongi legoke ezagutzea, gertakariari tamaina *egokia* hartzeko.

– Eta zuk, zer egiten duzu?

– Liburuak saltzen ditut etxez etxe.

– Horrez gain ez al duzu ezer egiten?

– Idazlea izan nahiko nuke.

Emakumea barrez hasi zen:

– Idazlea!

– Barregarria al da idazle izatea?

– Izatea ez, baina izan nahi izatea bai.

– Zergatik? –galdetu zuen zapuztuta.

Universal Fundazioaren esku-orria begiratzen ari zen emakumea, arretarik gabe.

– Zergatik izan nahi duzu idazle?

– Istorioak kontatu nahi ditut –ametsetako Nastassiaz gogoratu zen, haren bular oparoen esnetasunaz.

– Zein istorio?

– Istorio onak, onenak.

– Zeintzuk dira ba istorio onenak?

Eremu arriskutsuan labaintzen ari zela pentsatu zuen.

– Truman Capoterenak, Salingerrenak...

– A, Capote! Eta zerbait idatzi al du gure Truman Capotek orain arte?

– Gutxi –aitortu zuen Oliveirak zuhur.

– Bitxia da zerbait egin nahi izatea eta ez egitea. Zerbait desiratzeko modu arraroa da hori.

– Ongi idazteko *prest* egon beharra dago.

– *Prest* egoteko entrenamendu txarra da zain egotea.

Idazteko entrenatu egin behar al da ba? Liburua, ona eta handia bada, barruan *darama* idazleak. Bizitzak berak zer emango, horri erreparatuz bizi zen Oliveira. Jakintza pilatzen ari zen, eta pilatutakoan jarriko zen liburukotea idazten.

– Norbait izatea ez da oso interesgarria, gazte. Galdetu egiozu gizon zahar honi. Zer balio dio *izateak*? *Egin* ahal izango balu, orduan bai zoriontsua!

Oliveirari izugarria iruditu zitzaion adibidearen indar sinplea. Bere iritzia ontzi txiki baten modura hondoratu zen derrepente. Emakumeari begiratu zion, ezpain zimurtuen karmin inperfektuari. Bere eskua imajinatu zuen ispiluaren aurrean, dardarati, marra zuzen margotu ezinik. Nor ote zen?

– 20 urterekin asko pintatutakoa al zen Zarate jauna?

– Demasa! 20 urterekin famatua zen Donostian.

– 20 urteko pintoreak gaur egun ez dira ba oso famosoak.

– Eguna telebista aurrean pasatzen dutelako. Ongi dakit, adin horretako biloba daukat eta... –esplikatzen hasi zitzaion emakumea, mahai biribilean esertzen ari zen bitartean, estilografikoa eskuan–. Neuk bete behar al dut hau?

– Ez, ez, neronek egingo dut.

Gabriela Otegi zuen izena. 79 urte. Argia zuen burua hala ere, eta ez sasoi gutxi. Zaila zirudien emakume hark laster hil behar zuela pentsatzeak. Nola hilko zen ba 79 urtez bizi izan eta gero? Ez zuen behintzat beldurrez bizitzeko itxurarik. Alderantziz. Beldur guztiak uxatuta bizi zen, lotsa guztiak uxatuta batez ere. Horregatik zegoen Oliveira han, emakumeak ez zuelako zentimo batzuk galtzeko beldurrik. Jakin-minez utzi zion gazteari sartzen, gazte hark liburu mordo bat baino zerbait gehiago ekar zezakeelakoan.

– Pentsatuko dut –esan zion Oliveirak.

– Zer da pentsatu behar duzuna?

– Idazteari buruz esan didazun hori.

– Dudarik gabe... Gauzak serio hartzen dituzu. Ez serioegi hartu, baina izan beti ausarta.

Oliveirak apaltasunez onartu zuen aholkua.

– Soto honetan topatuko al dut liburuak erosiko dituen beste inor?

– Ongi engainatzeko abilidadea beharko duzu... Zaude pixka batean.

Gelatik alde egin zuen. Zarate jaunarekin bakarrik gelditu zen Oliveira. Oheari begiratu zion. Eta han eseriko balitz? «Zure koadroak oso ederrak dira, jauna» esan ziezaiokeen, «indar espeziala daukate». Hormetara hurbildu zen koadroak banaka miresteko. Bazuten Baconen eta Freuden lanen antzik: aurpegi zoroak, suminduak, haserretuak; ez patxadarik ez nobleziarik. Harrigarria zen duela 50 urte Euskal Herrian halakoak pintatzen zituenik egotea.

Beste gela batean zebilen Gabriela, zarata txikiak ailegatzen zitzaizkion handik.

– Emakume bitxia da zure jabea –esan zion Oliveirak zakurrari.

Eta gizonari erreparatu zion berehala, erreakzio baten esperoan, ezertaz konturatzen ote zen egiaztatzearren. Zirkinik ez, Peter Cushingek maisuki jokatutako Drakula bera bezain zurrun. Akaso bat-batean altxatuko zen, begiak odolduta, eta lepora egingo zion jauzi, azken tanta xurgatzeko. Ez, Peter Cushingek Van Helsingen papera jokatzen zuen; Cristopher Lee zen Drakula; Cushing laguna zen, beraz. Lasai.

Erretratuetako batean Gabriela izan zitekeena ikusi zuen, gaztetan. Ez zen horren ederra. Zorrotzegiak matrail-hezurrak, txikiegia ahoa. Etxean legea gogorki ezartzen duten emakume hotz horietakoa ematen zuen. Eta hala ere irri moduko bat zeukan ezpainetan. Pintorea lizunkeriak esaten ariko zitzaion agian. Ekintza pribatua da koadroa margotzea, baina noizbait ekintza kolektiboa ere izango da, ekintza publikoa, noizbait museo batean eskegita egongo da ustezko intimitate hura. Horregatik ote zeukan irria lotuta? Pintorea ez zen jabetuko, seguruenik, ekintza hark izango zuen proiekzioaz, baina Gabriela bai: banitatez, noski, eta konfiantza osoa zuelako senarraren lanaren balioan. Beharbada

asko maiteko zuten elkar... Aspaldi hartako Gabriela artistarekin sexu jostetan irudikatu zuen berriro Oliveirak.

– Gustatu zaizu, ezta?

– Zu al zara?

– Gaztea nintzen hura da.

Nola esaten ote da *Ederra zinen*. Inozo samar botata... «Ederra zinen»: gezurra badirudi ere. Edo... «Ederra zara oraindik»: zure zaharrean, zure errespetagarritasunean. Ataka zaila.

– Irri txiki-txikia zenuen –atera zitzaion.

– Bi edo hiru aste eman zituen erretratua margotzen. Batzuetan koadroak argazkiak balira bezala begiratzen ditugu, baina ez dira gauza bera. Keinu hori nik inoiz egin dudan, edo gisakoren bat, baliteke. Bai, neure burua ikusten dut keinu horretan. Eta nolanahi ere badu karikaturarik zerbait, sotila izan arren. Erretratuan agertzen denak zein traza izango duen margolariak erabakitzen du. Berak oso gogoko zuen anbiguotasuna. Eta gu erabili egiten gintuen –koadroak seinalatu zituen esku meharraz: hezur, zain eta azal–, hormetan gaudenok eta ez daudenak.

Oliveiraren kaskezurrean «neure burua ikusten dut» oihartzun egiten ari zen... «badu zerbait karikaturatik» durundi moduko bat... «sotila izan arren»...

– Tori –esan zuen emakumeak.

– Niretzat? –sutan jarri zitzaizkion masailak.

– Ez lotsarik izan! –sorgin traza hartu zion Gabrielari.

–7–

– Ezagutzen al duk Zarate margolaria?

– Zarate? Nongoa?

– Hemengoa, Oreretakoa.

– Ez, hemengoa ez diat ezagutzen.

– Eta beste nonbaitekoa?

– Ezta ere.

– Zergatik galdetu didak orduan *nongoa*?

– Ez zakiat, akaso pistaren bat emango hidalakoan.

Zirika jarduten zuten Oskarrek eta Oliveirak. Eta batez ere elkarri arrazoia kentzen. Baina bazuten mundua eurek ikusten zuten bezalakoa zelako sentimendua, elkarri arrazoia ematen bukatzen baitzuten gehienetan. Zer zen mundua? Elkarren artean mintzatzean ateratako ondorioen isla, hori besterik ez. Eta ondorio horiekiko fede itsua zuten, ia dogmatikoa. Munduaren behatzaileak ziren, orduak eta orduak ematen zituzten ñabardura txikien eta datu harrigarrien bila. Gero hori dena epaitzen zuten, ozpin eta umore dosi batez.

Erdipurdikokeria, horixe zen *besteen* ezaugarri nagusia.

Liburuak irakurtzen eta musika entzuten eta xakean jokatzen zuen mundua nahi zuten. Gutxietsi egiten zituzten, beraz, hiru oinarri horiek betetzen ez zituztenak.

– Ospetsua omen duk Zarate margolaria.

– Dudarik gabe.

– Bere etxean izan nauk gaur. Liburuak saldu zizkioat bere emazteari. Emakume brillantea.

– Hara!, lehena saldu duk!

– Utzi kontu horiek, Oskar. Beste zerbaitez ari nauk.

– Poztu egin beharko hintzateke, ezinezkoa zirudiena lortu duk.

– Pozten nauk, bai –onartu zuen etsita.

Oskar ogi mami zati bat biribiltzen ari zen mahaiaren kontra. Beste nonbait zeukan burua.

– Gaur ero pila bat zabilek hemen barrena –esan zuen azkenik.

– Eta?

– Ezer ere ez.

Publikoa. Hori zen arazoa. Oskarrek publikoaren beharra zuen: 18 urteko neskatila koadrila

pare bat, begiratu bat, irriño lotsagarriak, barrarainoko paseoak, gerriak arreta eske eta... bi xakelariak serio, euren gogoeta estrategikoetan murgilduta. Baina egun hartako publikoa, betiko moduan, herriko eskizofrenikoek osatzen zuten.

Oliveirak bere aita gogoratu zuen, haren jokaera eszentrikoa, dena aldrebes egin behar hura, gauza guztiei eta uneoro barre egiteko joera. Dibertigarria zen, eta hori nahikoa zen. Urrundik begiratuta, ordea, aitaren piurak eta atzeko haienak antzekoak iruditzen zitzaizkion. Bazekien aita beretzat beti izango zela tipo inpekablea, ona, alaia, bikaina ia. Zergatik bikaina? Gizakion baitan noizbait izandako umeak agintzen duelako, aginte hori aldatzeko edo sikiera dekoratzeko ahalegin neketsuak eginagatik ere. Oskarri behin baino gehiagotan esan izan zion putaseme handia zela aita, fundamentu gabea. Baina hori guztia umearen diskurtsoari gehitutako elekeria zen, arrazionaltasun handiz baino egiarik batere gabe esandakoa.

Oskarren aita ez zen hobea. Bizi zen, artean. Sekulako herra zion Oskarrek. Gorroto zuten Oskarren ume begiek ere. Oskarren baitan ez zego-

en aita barkatzeko arrakalarik txikiena. Ezta beharrik ere. Oliveirak ez zuen uste Oskar horretan disimuluan ibiltzen zenik, bera bezala, gauza bat sentitu eta bestea adierazten; gezurra sentitu eta egia esaten, hain justu.

Garai batean, hamar solairu dauzkan etxeko diruzaina izan zen Oskarren aita, diruarekin ospa egin zuen arte. Herriaren ingurumarian jarri zen bizitzen, abandonatutako lantegi batzuetan, auto barruan. Udaltzainek atxilo eraman zuten, baina gizonak bide judizial amaigabean endredatu zituen bizilagunak, legearen geldotasuna baliatuz. Zigortzeko ordua iristerako, azken xentimoa ere xahutua izango zuen. Tipo grisa eta bakartia, inori irri faltsurik egiten ez ziona. Fama txarra izan zuen beti Oskarren aitak, txutxu-mutxuen biktima ohikoa. Arrazoi lausoei esker irabazitako famari, azkenean, pisuzko argudioak erantsi zizkion; hitz egin nahi bazuten, orain bazuten motiborik: diru guztiarekin ospa egin zuen.

Ereduzko aitaren itxura zeukan, gaizkile guztiek bezala. Horrek ematen die gaizkile izateko parada: ihes egingo dutelako sentimendu gozoak. Gaizkile itxura balute, nekez onartuko lituz-

kete diruzain, eta ez lukete izango diru hori guztia argi neonezko etxezulo bateko beltzaran baten titien gainean gastatzeko tentazioa.

– Ilargi betea izango duk agian –esan zuen Oliveirak tabernako bezeroengatik.

– Bai, etxetik bota ditiztek denak. Bazterrak nahasten ariko zituan, hozkailua irekitzen, tiraderetatik jantziak ateratzen, gau osoan telebistako zozketak begiratzen, etenik gabe zigarroak erretzen. Begiratu egiok Txarliri...

Eroen taldeko mutiletako bat zen, euren irakaslea izandakoa; urteak ziren normaren arrastotik aterea zela, baina Oliveirari ezinezkoa iruditzen zitzaion erotuta zegoenik sinestea. Hortxe zuten Txarli, pare-parean. Ez zen filmetako eroen oso desberdina. Ero estandarra zen, nolabait. Soinurik egin gabe egiten zuen barre, algara isilez; kanpotik ikusita irudi bitxia zen, soinua kendu baliote bezalakoa: keinuak bai, mugimenduak bai, ahoa zabaldu beharra bai, sabela besoez bildu bai, baina soinurik ez. Munduko barre ikusgarriena eta aldi berean diskretuena zuen Txarlik.

Taberna dotorea zen Gaspar. Txikia baina oso garaia, kubo baten modukoa. Esklusibo sentitu nahi zutenek hantxe zeukaten leku egokia. Eta hala ere zeharo proletarioa zen. Trajedun bakarra ibiltzen zen, abokatu txoro bat, Oliveirak gorroto zuena. Taberna zegoen etxeko eskailera nagusiak taberna barruan sartuta zeuden, kuboaren zati bat hartuz; eta justu hortxe zeuden hiru mahaiak, eskailerapean. Han egoten ziren Oskar eta Oliveira.

Taberna barruan eskailerek irentsita zeukaten zatiaren aldamenean egurrez eraikitako sasisolairu bat zegoen: azpialdean komunak eta goialdean mahai bakarra, apartatua, maitaleentzako aproposa. Gaspar osoa ikusten zen han goitik. Hormak koadroz apaindurik, egoitzaren garaiera ondo baliatuta. Aldian behin aldatzen zituzten zorionez, koadro txarrak izaten baitziren ia beti, inguruko artista saiatuek egindakoak. Argazki handiak paratzen zituzten noizean behin, jaietako kartelak edo inauterietako maskarak.

Komuneko atearen aldamenean: izozkientzako eta xanpainarentzako hozkailua, kristalezko ateekin. Denek zekiten botila haiek urteak zera-

matzatela han logaletuta. Txotxolo batek baino ez zukeen xanpain botila bat eskatuko, eta txantxa motibo bilakatuak ziren. «Xanpain botila bat baino abandonatuago nabil» esango zuen batek. «Ozpina ni? Xanpain botila horietan bai!» beste batek. Edozertarako balio zuten, edateko izan ezik. Hozkailu gainean gordetzen zituzten xake taulak eta piezen kaxak; eta, hauekin batera, asteko egunkariak eta igandeetako gehigarriak.

Dual markako disko jogailua eta ehunka LP zeuzkan Joxemarik, denak ere erabileraren poderioz atzealdean kartoia deseginda. Bozgorailu handi eta ahaltsuak ere bai, musika bolumen ederrean jartzeko, garrasika hitz egitera bultzatzeko moduan.

– Mundu zabalean ez duzue halako disko jogailurik aurkituko –harrotzen zen Joxemari.

Txarlirekin Benegas elkartzen zen, musika irakasle bat, lodikotea eta amultsua; eta baita Barandalla ere, oso margolari txarra (Gasparren sarritan koadroak eskegitzen zituena).

Joxemarirekin eztabaidan ari zen ero koadrila. Oskarrek, aspertuta, eztabaidari so, «Begiratu egiok Txarliri» esan zuen berriro. Oliveirak ez

zion jaramonik egin, petralduta zegoen Zarate pintoreari buruzko istorioak izan zuen arrakasta eskasagatik.

Tabernari gehienak bezala, azken tragoa ere ezkutuan zenbatzen zuenetakoa zen Joxemari. Horrek eztabaida bat baino gehiago ekartzen zion, hilaren amaieran lazeriak pasatzen baitzituzten bezeroen patrikek. Joxemarik, gangster itxura bitxi horrekin, ez zuen inoiz barkatzen:

– Kontuak egiten zuei utziko banizue, hondoratuta nengokeen dagoeneko.

– Hamasei garagardo dira! –oihu egin zuen Txarlik.

– Hemeretzi izan dituk guztira, ez hamasei –zuzendu zion Joxemarik zalantzarik gabe, bere irriño ironikoarekin, maltzurkeriaren bat pentsatzen.

– Kontuak zerorrek egiten dituzulako, horrexegatik zaude aberastuta, putre halakoa! –erantzun zion Txarlik.

Joxemari ez zen bere onetik aterako, bazekiten hori. Zikoitzegia zen bezeroak galtzen hasteko. Suabe, poliki, temaz lortuko zuen garagardo guzti-guztiak kobratzea; bestela, biharamunean

hartuko zuen dirua, errondaren batetik txanpon gutxiago itzulita. «Gaurkoak bi eta atzokoak beste bi, lau», eta alferrikakoa izango zen kexatzea edo mehatxu egitea. Gasparren kukurruku nork egiten zuen, horretan ez zegoen dudarik.

– Eskuak lepotik hazten zaizkizu zuri –bota zion Benegasek, eta barre egin zuten denek.

Zer adierazi nahi ote zuen, auskalo.

– Nahi duana esan ezak, baina ez dituzue tragoak nire lepotik edango –Joxemariren arrapostua–. Hemeretzi garagardo izan dira, ez bat gehiago ez bat gutxiago.

Oliveirak eskua zakuan sartu eta txano bat atera zuen, irlandar tankerakoa.

– Dotorea! Nondik atera duk ba?

– Zarateren emazteak eman zidak.

– Joder, nor da emazte hori! Liburuak erosi, txanoa oparitu...

– Pintorearena zuan, baina berak jadanik ez dik behar –txanoa jantzi zuen Oliveirak, Oskarrek ondo ematen ziola esan zekion–. Lotsa ematen zidak janzteak, hi, jendea begira jarriko zaidak, badakik.

Atzamarra belarrian sartu zuen Oskarrek, buruaz baietz.

– Utziok horri –egin zion errieta Oliveirak.

– Zer?

– Zeren bila habil?

– Azkura zaukaat, kristo; nire ama ematen duk.

Kanta lasaia jarri zuen Joxemarik: Van Morrisonen *Moondance*. Gustu ona ezin zitzaion ukatu gangster hari.

– Zenbat biztanle gaituk herri miserable honetan? –galdetu zuen Oliveirak.

– 40.000, pixka bat gehiago igual.

– Eta erdipurdikoak? Zenbat izango dituk zaku horretan?

– Ez zakiat. Mordoa bai.

– Eta zenbat nik baino lan kaxkarragoa dutenak?

– Ez dituk erraz aurkituko –barre egin zuen Oskarrek.

– Ez horixe. Puzker kiratsa besterik ez zagok herri honetan: paper fabrika ustel bat eta nortasunik gabeko jendea. Baina denek zaukatek nik baino lan hobea. Nola azaltzen duk hori?

Xake piezen kaxa zabaldu zuen Oskarrek.

– Zertan ari haiz?

– Ez al dugu partidatxo bat jokatu behar?

– Ez didak erantzun –eskua kaxa gainean tinkatu zuen Oliveirak.

Bizarra igurtzi zuen Oskarrek.

– Otzanak dituk, Oliveira. Otzana izan behar duk egokitzeko, errailetik ez ateratzeko.

– Gezurretan ari haiz –eskua aldendu zuen kaxatik.

– Zuriak hiretzat –eskaini zion Oskarrek.

– Ez, ez, ez diat bentajarik nahi.

– Bueno, beltzak orduan.

– Zuriak hartuko ditiat.

Zigarro bat atera zuen Oliveirak beretzat, eta gero beste bat lagunarentzat.

– Batzuetan ikara sartzen zaidak. Horixe duk: ikara.

– Hastea duk kontua.

– Hastea...?

– Bai, hasiera duk inportantea: *nora* jo, badakik. Hik ere aurkituko duk bidea. Kontua ez duk lana, kontua duk: *zer* egin, eta hortik bizibidea nola atera. Nik ez nitizkek xake eskolak emango

xakelari profesionala banintz, baina bidea behintzat aurkitu diat. Igual bide okerra duk.

– Ez duk, ez. Hik ez al duk Olaizola garaitu?

– Bai.

– Ez al duk De Miguel garaitu?

– Bai.

– Hortxe zagok! Entzuten duk hau? Van Morrison! Hortxe morroi handi bat. Morroi handi asko zaudek: David Bowie, Chet Baker, Julian Gorospe... zer zakiat. Eta gero jende arrunta zagok. Eta non nabilek ni? Erdian: ez batera ez bestera. Akaso besteak bezalakoa nauk, baina ezin onartu. Handikeria duk hori, zera.

– Gizaki normala izan nahi baduk ez ezak nirekin kontatu. Gizaki normalak saldoka zaudek.

– Gogoratzen duk Javier Lukin?

– Ziklista.

– Tourrean azkena egin zian, eta iseka egiten ziotean denek. Baina dirutza irabazi zian. Hogeigarrenak zer irabazi zian? Amaren deia ere ez. Tour osoa paseatzen eman zian Lukinek. Tipo aztia hura. Eta gero dirutza.

– Hi jartzen bahaiz, gauza handiak egingo dituk. Konfiantza diat higan. Berritsuegia haiz, baina zerbait egingo duk.

Horixe entzun nahi zuen. Peoia d4 laukira mugitu zuen Oliveirak, adiskidearen lausenguekin biziki hanpaturik.

– Zergatik nauk berritsuegia?, zergatik esaten duk hori?

– Ez dakik aho puta hori ixten. Horixe duk dena.

Barrara begiratu zuen Oliveirak eta Joxemariren begiekin topo egin zuen. Basoak hutsik zituzten Oskarrek eta Oliveirak. Kezka existentzial hori izango zuen gangsterrak. Norbait edan gabe luzatzen zenean, hortxe jarriko zen erpai, ezer esan gabe, zakur zaharra.

– Hi, noiz irabazi diok hik Olaizolari? Ez diok sekula irabazi!

–8–

Begiak lainotuta atera ziren Gasparretik. Etxerako bidean Eguberrietako bonbillei txanponak botatzen aritu ziren Olentzerori burua itzaltzeko xedez, gutxi falta ziren-eta apurtzeko. Apaingarriaren alde banatan jarrita, Oliveirak txanpona bota eta Oskarrek bestaldean jaso, eta segi harrika berriro. Gehienetan bonbillen artetik pasatzen ziren txanponak, baina baten batek asmatzen bazuen: pof!, kea.

– Nire aita putaren batekin ibiliko da une honetan, eta ni, hementxe, Olentzero izorratzen. Ederrak Eguberriak! –esan zuen Oskarrek.

Eguberriak madarikatzen zituen, baina gero etxean besteen gisara ospatzen zituen opariz eta konfetiz. Hutsala zen zakur abandonatuaren planta hura. Beharbada Oliveira okerrago ez sentitzearren egiten zuen, baina aurkako bihotzondokoa sortzen zion: inbidia, bakardadea inoiz baino astunagoa egiten baitzitzaion egunotan. Oskarrek amarekin eta anai-arrebekin igarotzen zituen Eguberriak. Nahiko zukeen berak.

Musean jarduten zuten Oskarren etxera joaten zenetan. Oliveira konturatuta zegoen, muserako laugarrena falta zutelako onartzen zutela etxe hartan; eta hala ere estimatua sentitzen zen. Auzoan denek zekiten Isaias zurruteroaren semea zela, sorbalda gainetik begiratzen zioten, semeak aitaren galbidea barnean zeramala jakingo balute bezala. Oskarren sendian alderantziz portatzen ziren: epaileak juzgatzen zituzten, epaileak ere norbaitek juzgatu behar zituelako konbentzimendu naturalarekin.

Oskarren anaia, Alberto, pintorea zen: brotxagordakoa. Tolesdurarik gabea, ondratua eta jatorra. Futbolari planta zeukan, korrikalari kankailuarena, zehatzago esateko. Urre koloreko metalezko betaurrekoak zituen, norbaitek utziak ziruditenak eta beti oker zeramatzanak. Txandalean ibiltzen zen gela batetik bestera, eskua ipurdian sartuta. Ipurdi alde horretan zeren bila ote zebilen, berak bakarrik zekien. Trebezia falta zuen musean: kartarik gabe lokartu egiten zen, eta kartak zituenean tapetea jan beharrean jartzen zen; inortxok ere ez zion apusturik onartzen. Harekin bikote zenetan ahapeka esaten

zion Oliveirak: «Utzidak niri jotzen». Albertok begia kliskatzen zion, mezua ondo ulertu izan balu bezala, baina gero nahi zuen moduan jokatzen zuen.

Arreba, Alizia, neska azkarra zen: militante politikoa. Auzoan kartelak ipintzen ibiltzen zen, zerbait larria gertatzen zenean bereziki. Poliziaren eskuetatik pasatakoa zen, nahiz eta berehala uzten zuten aske. Auzoan oso aintzakotzat hartzen zuten, bera izan baitzen santomas jaia antolatzen lehena. Zentroan egiten zutenez, auzoan ere egin behar. «Txistorra doan jatearren nahi dute festa» salatzen zion Oliveirari. Umoreko beti.

Oskarrek kontatu zion behin, Aliziak gauak eta gauak ematen zituela irakurtzen. Eta Aliziak, aldiz, beti esaten zuen liburuak ez zituela gustuko. Beretzat munduko gauzez jabetzea ez zen irakurtzea, antza; irakurtzeari buruzko iritzi bitxia. Liburu haietako batean izan zuen Nikaraguako gerrillarien berri. Handik zetorren Oliveirari gehien gustatzen zitzaion istorioa. «Gerrillari talde txikia zen hasieran», kontatu zion Aliziak, «apenas zuten jatekorik. Pentsatu zuten tximuak

jatea zela aterabide bakarra. Joan ziren ehizara eta segituan aurkitu zuten tximu talde bat, hainbat zuhaitzetan sakabanatuta. Hartu zuen gerrillari batek fusila, destatu zuen eta, tarte baten ondoren, fusila jaitsi zuen. *Begiratu egin dit!* esan zuen. Eta ezin zuela tirorik egin. Hartu zuen beste batek fusila, eta berdin. Ezin zuten jasan tximuek zeukaten *gizaki begirada*. Esku hutsik itzuli ziren, hortzak izerditan». Omar Cabezasek idatzi zuen *La montaña es más que una inmensa estepa verde* liburuan.

Baziren Alizia baino itsusiagoak.

Egongelan Aliziaren eta Oskarren txikitako argazkia zeukaten apaingarri: eskutik helduta, praka motzetan biak, udako egun batez. Bularraldea biluzik zuen Oskarrek, eta ilea bustita; inguruan igerilekua izango zen edo iturriren bat. Dotoreago zegoen Alizia, jantziago behintzat, urpekari betaurrekoekin. Haiei beha, bizitza tantaka iristen zela pentsatzen zuen Oliveirak; argazkiek tanta bakoitza jasotzeko ahalmen liluragarria zeukatela, eta horixe zela argazki hura: tanta eder bat.

Oskarrek Olentzerori txanpona botatzean aitari eta putetxeari buruzko aipamena egin zuenean, argazki hartaz gomutatu zen Oliveira: Oskarrek ahaztu egiten zuen irudi hark sentiarazten zuen sosegua. Erraz ahazten dira eskura dauden gauza ederrak.

Ehun pezetako pieza lurretik jaso zuen Oliveirak. Bat, bi, hiru pauso eman zituen aurrera eta bortxa gabe bota zuen. Pof! apurtu zen Olentzeroren sudurra. Kea atera zen, argizko egiturak dardara egin zuen eta oso-osorik itzali zen.

– Aibadios!

Txanpona parean erori orduko zapaldu zuen Oskarrek.

Etxera kontu handiz sartu arren, mihiseen igurtzia entzun zuen Oliveirak. Begi bat irekita lo egiten zuen Maitek. «Mutil hau...» entzun zuen ohetik zetorren ahotsa, «ume lotsagabe hau...». Oliveira harria baino geldiago geratu zen. Hasperen bat aditu zuen. Hanka puntetan abiatu zen sukaldera.

Mahai gainean arropa batzuk, eta haria eta jostorratzak eta guraizeak. Zerbait josten ibili zen ama. Irratia piztuta zegoen artean, oso apal.

Asteak ematen zituen piztuta, inori axola ez zitzaion kalakan; esatariak ere ez zuen Maiteren etxean inorentzako hitz egiteko eragozpenik. Pixka bat ozenago jarri zuen Oliveirak, benetan zerbait esaten ari ote ziren jakiteko irrikaz. Eguberrietan ez gizentzeko aholkuak ematen ari ziren. «Ogi gutxi jatea komeni da, eta bazkalostean pentsatu gabe jaten diren gozoak saihestea» esan zuen emakumezko batek aditu doinuz. «Ahoa ixtea, horra gakoa!» erantzun zuen beste batek, biak algara txikitan tenteldu aurretik. REM taldearen *Losing my religion* kanta jarri zuten ondoren, «Mikelek Laurari eskainia».

Lapikoa zabaldu zuen: arrautzak tomatetan. Arrautzak odoletan, esango zukeen aita zenak. Ogi gogor zati bat busti zuen tomatean; ona iruditu zitzaion, hotza egonagatik ere. Arrautzak mikrouhinean berotu bitartean atun poto bat zabaldu zuen gosea baretzeko. Fluoreszenteak berdez margotzen zuen sukaldea, betiko zarata mehe horrekin; tutu haien barruan ere molekula mordoa zebilen saltoka, mikrouhinean bezala. Afari molekularra, benetan. Labeko platera tomate zipriztinez bete eta narraskeriak higuin

egiten zionez, beste batera aldatu zuen. Beste zeremoniarik gabe eseri zen afaltzera.

Maiteren gomazko botak zeuden ate atzean, ezkatez beteak. Gaueko jantzi bateko oinetakoak balira, lentejuelak lirateke ezkatok. Eta ongi pentsatuta, gaueko oinetakoak ziren, goizeko bostetan janztekoak. Hirurak eta hogeita bost ziren hormako erlojuan. Laster jaikiko zen begi bat irekita lo egiten zuen emakumea. Tomatez zipriztindutako mikrouhin labean sartuko zuen kafesnea, zutik edateko. Komunerakoan, Oliveiraren ate aurrean geldituko zen une batez; ez zuen burua sartuko, baina Oliveirak entzungo zuen bere arnasa. Komunean bost minutu eserita pasatu ondoren, bizi-bizi orraztuko zituen buruko sasiak, eta konketan utziko zuen orrazi iletsua, baso baten barruan.

Sukalde hartan hirurak elkarrekin egonak ziren noizbait, ez horren aspaldi. Isaiasek txorizoa erretzen zuen batzuetan, patata frijituekin zerbitzatzeko. Ziztu batean zuritzen zituen patatak, azal kiribildu bakarrez erantzita. «Milaka zuritutakoa nauk ontzian». Bost duroko txanpon bat uzten zuen mahai gainean: «Azala puskatzen

bada», apustu egiten zion Oliveirari, «hiretzat!». Tutean irabazita zoriontsu etortzen zenean izaten zen hori. Olio zipriztin gorriz betetzen zen sutondoa, trapu zahar batekin garbitzen zuen eta gero semeari aurpegia igurzteko keinua egiten zion. Jatean olioa kokotsetik behera etortzen zitzaion aitari, eta Maitek «Zoaz ohera lehenbailehen» agintzen zion.

Maiteren jogurt bat hartu zuen hozkailutik, debekua hautsiz. Maitek beretzat erosten baitzituen jogurtak eta urdaiazpikoa. Ondo zaintzen zuen Oliveirak ezer ez ukitzea, baina aldian behin aleren bat lapurtzen zuen, ama ohartuko zela jakin arren. «Jogurtak nahi badituzu, has zaitez etxera dirua ekartzen!» ekingo zion iskanbilari. «Nik ez dut bakar batere jan, gaizki zenbatuko zenituen». *Irabia* markakoak ziren, zaporez sobera arruntak: esnea eta kolorantea. Poto hutsa zakarretara bota eta koilara harraskan utzi zuen Oliveirak; iturria ireki orduko koilaran jo zuen zurrustak eta ura harraskatik kanpora ateratzen hasi zen, harik eta eskukada batez handik kendu zuen arte.

Leihoa zabaldu zuen, sukaldeko gantz usaina haizatzeko esperantzaz. Ilargia irensten ari zen hodei ilun bat.

–9–

Berun bilakatua zuen gorputza goizeko zortzietan. Bost minutuz bakarrik lo egin izana iruditu zitzaion iratzargailuak esnatu zuenean. Orduak zenbatu zituen: lau. Tino ere orduan esnatuko zen seguruenik. Emazteak kafea jarriko zion, ogi xigortua, gurina, mermelada. Herriko planoa hartu eta gorriz margotu gabe zegoena banatuko zuen lau saltzaileen artean; ez joatea erabakiko balu putada ederra egingo lioke zirkuko gizon miserable hari, beretzat gordetako kaleak beste hiruren artean banatu beharko lituzke.

Jaikitzea ekintza heroikoa iruditu zitzaion Oliveirari. Hanka bat atera zuen. Hezurrek basoan zapaldutako adarren hotsak egin zituzten. Ohean eserita piztu zuen zigarroa: lehenengo kolpean zorabiatu egin zen, baina bizitzeko gogoa itzuli zion.

Laugarren solairuko Mamen zegoen autobus geltokian. Ez zen harekin inoiz mintzatzen, irribarre bat trukatu besterik ez. Ezinegona sentitzen zuen Oliveirak *beti hitz egiteko prest* dago-

en jende klase horrekin; baina berdin, kaixo ere esan gabe modu nahiko adierazgarrian ihes egiten zion Mamenekin ere. Geltokietan oso sotilak izaten dira keinuok, baina mundu guztiak ulertzen ditu, adin batera arte behintzat (zahartzaroan inork ez die jaramonik egiten, eta autobusean edozein agure hasten zaizu berriketan, ezagutu ez arren edo zeu hitz egiteko uzkur agertu arren, silaba bakarreko hitzekin erantzunez). Mamenekin behin hitz egingo balu egunero egitera behartua egongo litzatekeenez, izua sartzen zitzaion. Liburuak saltzen ibiltzen zela aitortu beharko zion, Isaiasekin gogoratuko zen Mamen orduan, eta aita-semeen patuaren arteko loturak egingo zituen segituan: «egur bereko ezpalak»; hurrengo egunean neska lagunaren gaia aterako zen ziur, eta berriz azalpenak, berriz loturak. Hobe, beraz, urrundik eta epel agurtzen segitzea.

Neska ederra izandakoa zen Mamen. Urte batzuk lehenago haren balkoiko barandak margotzen jardun zuen Oliveirak, ondo akorduan gordetzen zituen egun haiek. Minioa ematen ari izan zen arratsaldean komunera sartu zen eskuak

garbitzera. Zutik zegoen Mamen, bizkarka. Bueltatu egin zen atearen zabaltze soinuarekin, flan platerkada baten antzera mugitu zitzaizkion bularrak, tanta txikiez beteta zeuzkan aluko biloak, eta haragitasun haren aurrean Oliveirari erotu egin zitzaion bihotza. Masusta usaina nabaritu zuen. «Aizu!» oihu egin zuen Mamenek. Urre koloreko gorputz bikain haren usaina zela pentsatu zuen Oliveirak. Berehala itxi zuen atea, baina ikuskizun labur hura ezingo zuen burutik sekula kendu.

Estankoa irekitzera joateko autobusaren zain zegoen urre azaleko emakumea. Hortxe gordeta izango zituen titipunta arrosak, parpailadun zorro zurietan bilduta, bero-bero. Mamenekin ibiliko ziren batera eta bestera, euren edertasunaz jabetu gabe; eta estankoan gizonak haiek ikusteko irrika bizian, nolakoak ziren ezin asmatuz.

Autobusean *Zekale artean harrapaka* ireki zuen Oliveirak, bigarren aldiz irakurtzen ari zen nobela. Sinpletasun haren barruan zer ote zegoen deskubritzeko obsesioa berriro ere. Sinpletasunaren barruan zer zegoen, sinpletasunaz aparte?

Tinok bizkarreko batez agurtu zuen, besteek zeharka begiratu zioten, «aparte dabilen mutilak merezi» bezala. Kale txarrak ematen zizkion Tinok, eta Oliveira hasia zen aldeaz ohartzen. Babes ofizialeko etxeetara bidaltzen baitzuen, 40 milioiko etxeetara besteak, Jon eta Koro bereziki. Kurrikez Tinori bibotea kentzen ziola irudikatu zuen une batez: honen erreguak eta erostak! Baina Tinok alai zirudien, plano mordo bat eskuetan, Korori azalpenak ematen:

– Han bada malda bat, gora eta behera doana... Maldaren amaieran, eskuinera hartuta hasten da Los Luises kalea. Erraza da, neska!

Korok orriak aztertu zituen, kopeta zimurtuz. Gurdi zahar bat zen bere burua.

«Gora eta behera doan malda» esan zuen Tinok. Oliveirari ederra iruditu zitzaion esaldia; elur hotzaren pareko, edo uretan dabiltzan arrainak, bustitzen duen euria, zeruko izarrak, bizi den biziduna, pilota biribila, gatz gazia... eta gora eta behera doan malda. Eguna tautologia horrekin bukatuko zela uste izan zuen Oliveirak, baina ez zen hala izango.

Galtzarabordako planoaren fotokopia eman zion Tinok, eta hara bidali aurretik errieta txikia egin zion:

– Gaur Etxebeste tabernan bazkalduko dugu, baina zuk izango duzu beste zereginik...

Azkar erantzun zuen Oliveirak:

– Aitona bisitatu behar dut, zoritxarrez.

Tinok buruaz ezetz egin zuen:

– Taldea sendotu nahi badugu, elkarrekin bazkaltzea garrantzizkoa da.

– Badakit, bai.

Etxe berriak ziren ia denak, 10 urte asko jota. Lehen sotoaren kanpoaldetik barrura begiratu zuen deitu aurretik. PVCko atea, igogailuarenak metalezkoak, atariko ispilua hormari silikonaz lotua, plastikozko landareak... babes ofizialeko etxea zen, zalantzarik gabe.

– Zeren bila zabiltza? –galdetu zion gizon batek gibeletik, 40-45 ingurukoa, Ramones taldearen elastikoa galtza barrenean sartua.

– Txirrina jotzekotan nengoen.

– Zertarako? –giltzak zeuzkan esku batean, bestean *El Diario Vasco*, ogia, esne kaxa bat

– Universal Fundaziokoa nauzu...

– Saltzera zatoz.

– Liburuak.

– Ba hemen jai daukazu!

– Eskertzen dira animoak. Saiatu egingo naiz hala ere.

– Jende nagusia bizi da. Hobe bakean uztea. Akaso hurrengo sotoan...

Rockero birziklatua, ezkutuko erreakzionarioa, pentsatu zuen Oliveirak: mordoxka bat ibiltzen dira Gasparren gisa honetakoak.

– Nahiago nuke haiek esatea zein iritzi duten gure liburu bikainen inguruan –txirrinen panelera hurbiltzeko imintzioa egin zuen Oliveirak.

Gizonak besoa jarri zuen erdian.

– Jende gaixoari dirua kentzea beste asmorik ez daukazue.

Ramoneroaren zerri-begien atzean behatu zuen Oliveirak: Felipe Gonzalezen jarraitzailea izango zen seguruen (nahiz eta Aznarren alde bozkatuko zuen azken hauteskundeetan), best-seller irakurle obsesibo horietakoa, edo instituturen bateko irakaslea, ikasleak txuleta egiteagatik zigortzen plazera sentitzen duena. Umeekin ikasturte amaierako oporretara joateko bolon-

dres agertuko zen beti, gero gazteen atzetik zelatan ibiltzeko, euren ametsak zapuzten, ateak ixten, beti mehatxuka.

– Zer ote dakizu zuk.

– Zein fundaziokoa zarela esan duzu?

– Universal –listua irentsi zuen Oliveirak–. Utzidazu pasatzen.

– Ez.

Norman Batesek bezala ama etxean izango zuen morroiak, lastoz beteta, aulki batean eguzkitan lehortzen.

– Nor zarela uste duzu?

– Ba... –sudurra igurtzi zuen azkazalaz–, komunitateko presidentea.

Oskarren aita gogoratu zuen, diruarekin ospa egiten.

– Presidente jauna! – oihu egin zuen Oliveirak–. Ni edozeinekin ari nintzelakoan, eta presidentearekin ari naiz! Barka ezazu nire ezjakintasuna, presidente jaun txit agurgarri horrek.

Aldameneko fruitu-dendatik hainbat lagun atera ziren, iskanbilak erakarrita; mertzeriatik ere bai emakume bat, neskatila txikiarekin;

gizon mehar batek agertu zuen burua botikatik, bata zuriz jantzia. Oliveirak publikoa ikusi zuen.

– Aizue! Ba al dakizue nor den gizon hau? Itxuragatik ez zenuketen asmatuko, baina komunitateko presidentea dugu! Ez, jaun-andreok, ez ezazue bere itxura kaskarra epaitu...

– Nahikoa da –esan zuen presidenteak ahapeka.

– Baina presidente jauna!, ez ezazu lotsarik izan, nor zaren jakiteko eskubide osoa dute!

Kontakatiluen multzoa handitzen ari zela konturatuta, sotoa ireki eta barrura sartu zen gizona pauso luzeak emanez. Atzera itzuli zen, Oliveirari «lapurra» edo «alua» edo «kaikua», *ua*-z amaitutako laidoren bat botatzeko. Atea itxi aurretik hanka jarri zuen Oliveirak.

– Presidente jauna, presidente jauna!

Eskaileretan gora hasperenka alde egin zuen presidenteak. Pentsatzen hasia zen eztabaidak bide pugilistikoa hartuko zuela. Ingurukoek jakin-minez begiratu zioten une batez, baina segituan galdu zuten interesa, aurkarietako batek ringa utzi zuela ohartuta. Oliveirak mertzeriako neskatilari agur egin zion eskuaz, eta agur egin

zion neska herabeak ere. Lotsatuago zegoen Oliveira, baina egun hartan Jose Zarate pintorearen txanoa zeraman kaskoan; bebarruko ispiluan morroi dotore bat ikusi zuen, libururen bat salduko zuela konbentziturik zegoena.

–10–

Baina ez zuen alerik saldu. Izan zen baten bat esku-orria hartu ziona «pentsatuko dut» esanez, baina berak bazekien jendeak ez zuela pentsatzen, esku-orria zakarretara botatzen zutela afariaren soberakinekin batera.

Azken etxean ordu eta erdi pasatu zuen: kafea atera zion andreak, denetik aritu ziren hizketan, klixeak erabiliz, kortesiaz, puzzle bat hamaikagarrenez egiten ariko balira bezala. Batbatean emakumeak kontatu zion alargunduta zegoela, Oliveirak erantzun zion sentitzen zuela, emakumeak esan zuen ez zuela zertan.

– Aspaldian egin nahi nuena egiteko aukera baliatzen ari naiz alargunduz geroztik.

Jadanik kaferik ez zegoen kikaran kondarrak koilaraz nahasi zituen Oliveirak.

– Berandutzen ari zait –mahai gainetik txanoa hartu eta zutitu egin zen.

– Lastima! –zizpuru egin zuen emakumeak lotsa gutxiz.

Tabernara joan zen egun gogorraren arantzak kamustera. Txarlirekin xakean ari zen Oskar. Xakelari narrasa zen Txarli, zazpikia: jokaldi onekin eraikitzen zuena jokaldi txarrekin eraisten zuen. Lehen hamar-hamaika mugimenduak legeen barruan egiten zituen, eta ondoren estrategia finaz jokatzen zuen ahalik eta posizio hoberena lortzeko; Oskarri ere zaildu egiten zizkion lanak, baina halako batean iparra galtzen zuen, arerioaren endrokea txikitzeko piezak oparitzen hasten zen: bat, bi, hiru... berdin zion. Endrokea txikitu behar zen, gerta zer gerta. Eta lortzen zuen, noski, baina piezarik gabe geratzen zen endrokeaz hustutako erregeari eraso egiteko.

– Hautsi dezagun endrokea! –esaten zuen.

Dorre bat botatzen zuen peoien aurka, eta alfila ondoren, eta beste alfila, eta zaldia. Hortxe hasten zen partida beretzat. Erasoa amaituta, piezarik ez zuela erreparatzean, eskuaren gainean bermatzen zuen burua.

– Non daude ba nire piezak?

Txarlik ez zuen gustuko inork bere irakasle garaiak gogora ekartzea, baina sarritan gerta-

tzen zitzaion, denek ezagutzen baitzuten handik. Denek uste zuten, gainera, laster itzuliko zela ikastolara; labur esateko: «Joan dadila lanera behingoagatik!». Baina ez zuen itzultzeko asmorik. Horri buruz galdetutakoan, modu misteriotsuan erantzuten zuen:

– Zuek ez dakizue ezer!

Azken garaietan Txarlik gitarra eramaten omen zuen eskolara. Larriena ez zen gitarra eramatea, ikasleen aurrean kantatzen zuela baizik, edo kantatzen saiatzen zela. Mikel Laboaren *Lekeitioak* maite baitzituen, aldameneko gelako irakasleak hurbiltzen ziren iskanbila hura baretu nahian. Txarli gitarra magalean ikusten zutenean desenkusatu egiten ziren; eta gero zuzendariak, desenkusatu zirenek salaturik, kargu hartzen zion ikasketa planari jaramonik egiten ez ziolako. Ikasleen artean ospe handikoa zen Txarli, ospea eta trufa nahasten diren toki lanbro horretan.

Hiru garagardo eskatu zituen Oliveirak. Purrustaka eseri zen, lagunak bere nekeaz ongi kontura zitezen. Taula aztertu eta betikoa ikusi zuen gutxi gorabehera. Oskarren piezak gerlari

zitalak ziren, bilaukeria suntsigarriak egiteko prest. Txarlirenak gazteluko pasadizoetatik korrika eta estropezuka zebiltzan, batera eta bestera espantuka, armak eta esperantza galduta.

D6 laukitik aurrera zetorren peoi bat (amen batean dama bilakatuko zena) jan zuen Txarlik dorreaz, hain justu taula osoan ondoen defendatuta zegoen peoia (alfil batek eta zaldi batek babestua). Oskarrek eta Oliveirak harrituta begiratu zioten, zeinen erraz irentsi zuen amua. Ezikusiarena egin ondoren burua altxa zuen eta...

– Erne! –bota zuen larderiaz.

Oskarrek bere asmo xumeari segitu zion: alfilaz edo zaldiaz Txarliren dorrea jan ordez, beste zaldiarekin xake eman zion. Zaldi lasterketa bat ematen zuen: a ze animalia airosak! Oskarren mehatxuarekin Txarliren gerlariak pasadizoan ere ezingo ziren gotortu, harresian behera jauzi egiten hasi beharko zuten, suak hartutako gaztelutik ihesi.

– Zer egin behar duk bihar gauean? –galdetu zion Oskarrek Oliveirari.

– Afaldu, zer egingo diat ba?

– Etxera etorri nahi al duk?

– Zuenera?

– Partida jokatuko diagu...

Urteko azken gauaz ari ziren. Oliveirak bazekien ezin zuela etxetik ihes egin, inon idatzi gabeko baina azalean burdinaz xakitutako legeen ondorioz. Baina baziren bospasei hilabete ez zuela amarekin hitz egiten. Eta Oskarren etxera joatea ez zen batere plan txarra.

– Amarekin geratuko nauk. Ez diat ama bakarrik utziko...

Erregea a8 laukira mugitu zuen Txarlik (gillotinan jartzen ari zen). Oskarrek xake eman zion berriz. Oskarren piezak hienak ziren, gose ziren, odol usaina zegoen. Hurrengoan mate emango ziola ikusi zuen Oliveirak. Txarli ere konturatu zen, begiak bueltaka baitzituen, pieza batetik bestera saltoka, ihesbidearen xerka. Bibotea orraztu zuen, eskuak izterretan jarri zituen, etsita zebilen.

– Errepublikak irabazi du, biba errepublika! –esan zuen Oliveirak, aspaldiko txantxa bat berpiztuz.

Txarlik ozen egin zuen barre orduan, xakea eta monarkiaren galera, biak parekatzeak benetako zirrara eragiten baitzion.

– Sutara! –esan zuen Txarlik.

Gero Oliveirak hartu zuen erabakia:

– Afalostean joango nauk, Oskar. Pozik joango nauk.

– Hiru gaudek muserako. Pozik ez bada ere, etorri. Mesedea egingo diguk.

– Bai, bai, mila esker.

– Mila esker?

– Argi esateagatik, esan nahi diat; horrela, zuzen esateagatik.

Garagardoari trago luzea eman zion Txarlik. Xakean ari zenean ahaztu egiten zitzaion, baina partidaren ondoren hondorik ez balu bezala edaten zuen. Aparra geratu zitzaion bibotean, eta algara eginez opa:

– Urteberrion, putakumeok!

Ilun zegoen Gaspar, beti bezala. Joxemarik giro intimoa laket zuela aldarrikatuko zuen bere gangster kapeluaren azpitik. Denek zekiten watt gutxiko bonbillak erosten zituela, mesanotxean ere apenas argitzen zuten horietakoak; fakturak

minimora murrizteko aparteko abilezia zeukan, bezeroen patriketatik papurrak ere kentzekoaren parekoa. Gasparreko bezeroei, ordea, zirrara eragiten zien iluntasun hark. Iluntasun hark bezeroei buruzko argibide zehatzak eskaintzen zituen, bezeroak taberna hartako iluntasunean *egin* edo *moldatu* izan balira bezala. Bezeroen ametsa zen Moskuko taberna bat zela hura, edo Parisko kafe bat, bat-batean jazz izarren bat agertuko zela heroinaz hordituta eta saxoaz armatuta. Argi horixka nekagarri hura, beraz, ez zen istilurako arrazoia.

Oliveira desafiatu zuen Txarlik:

– Xake entziklopedikoa egingo diagu.

– Zein?

– Hire lanagatik esaten diat.

– Bazakiat. Baina galdera duk, nire entziklopedian zein xake agertzen den ba ote badakian.

– Ez, noski –onartu zuen Txarlik.

– Horixe nabarmendu nahi nian, ez daukaala arrasto putarik.

– Ezta beharrik ere. Xake entziklopedikoa jokatu nahi ez baduk, xake arrunta jokatuko diagu, txar horietako bat: taberneroa –alferrikako lana

zen Txarli samindu nahi izatea–. Lanak kalte egiten dik, Oliveira. Kontuz ibili. Badakik zertaz ari naizen.

Lehen mugimenduak bizkor egin zituzten. Txarlik modu siziliarrean hasi zuen partida. Oliveirak ez zuen eragozpenik jarri. Biek buruz zekiten atariko hura. Arazoak sortzen ziren Txarli atarikoaz nekatu eta pentsatzen hasten zenean, baina artean une miresgarri hori iritsi gabea zen.

– Amarekin bakarrik afalduko al duk? –galdetu zuen Txarlik.

– Bai.

– Joder, beti afaldu al duzue biek bakarrik?

– Ez –esan zuen Oliveirak Oskarri begira–. Garai batean lehengusuekin afaltzen genuen, Ikerrekin eta Nagorerekin. Jende pinpirina: marra alde batera orrazten zuten eta uniformez jantzita joaten ziren eskolara, Angus Young kakalardo horren modura. Ikerrek tuba ekartzen zuen gure etxean jotzeko. Masailak gorri-gorri jartzen zitzaizkion madarikatuari, itsasoan jolasteko gomazko ontzi bat puztean bezala. Etxeko kristalak dardara batean ipintzen zituen zarata higuinga-

rri harekin. Begiak ixten nituen nik, bertan lehertuko zen beldurrez.

– Tuba, tresna ederra duk ba: pom-pom-pampom –esan zuen Txarlik.

– Gainetik kentzeko bidali zuten gurasoek tuba ikastera, baina hazi zenean utz zezan eskatzen zioten etengabe. Ikerrek segitu egin nahi zuen ordea, eta han egoten zen, geltokian, trenaren zain, tuba handia alboan, kutxa marroixka batean sartua. Egundoko pena ematen zidan, bakar-bakarrik joaten zen bandaren kontzertuetara, ez guraso ez arreba. Orain EuskoTreneko makinista da.

– Eta non dabil ba Nagore?

– Haurrak ginenean afera bat izan genuen. Bospasei urte genituela. Berea izan zen ikusi nuen lehen alua, artean ilerik ez zuela. Galtzarabordako txabola batean izan zen. Ez dakit nola iritsi ginen hara. Aldizkarietan noiz edo noiz ikusitako alua ikusteko ilusioa nuen nik, baina gauza txiki xalo hura ikustean desilusioa hartu nuen. Hatza sartzen utziko ote zidan galdetu nion. Baietz berak. Hatza haragi bigun hartan sartzean, ordea, atzera egin zuen. «Min emango

didazu» esan zidan. Ez nuen pena handirik izan. Zakila ukitu zidan behintzat.

– Sei urterekin? –harrituta galdetu zuen Txarlik–. Nik hogeita hamarrekin izan nian lehen harremana!

– Hura ez zuan harreman bat izan. *Harremana* beste kontu bat duk.

– Ez, zera!

– Gero modelo izan nahi zuela; badakizue, Cibeles eta ximaur usaineko pasarela horiek guztiak –jarraitu zuen Oliveirak gaia desbideratuz–. Uste dut modelo ibiltzea lortu zuela, telebistako *Txiskola* saioan azafata ere aritu zela... Ospea hortxe ukitu zuen hatz mamiekin. Ondoren pixka bat gizendu zen, beste horrenbeste zimurtu... Orain pelukera dabil Pasaiako zaharren etxean.

– Hangoak pozik –esan zuen Oskarrek.

– Baita bera ere. Garai bateko neska ederra dela sentitzen laguntzen ziok miresmen gaindosi horrek.

– Zeharo erotuta ibiliko dituk zaharrak –esan zuen Txarlik.

Oliveirak alfila jan zion Txarliri, eta alfila galdu zuela baliatu zuen bere esperientzia azaltzeko:

– Nire anaia Mikel urtero-urtero berandu azaltzen da afaltzera. Beti zain egoten gara mahaian eserita, urdaiazpikoaren eta mantel zuriaren aurrean. Hankak baldartuta iristen da, handiputz doinu horrekin hasten da berriketan eta... Zaratustra bera isilduko luke. Baina okerrena ez da bere ezjakintasun lotsagarria, okerrena bere jateko modua da. Bitxia da nola irits gaitezkeen norbaiten jateko modua horren biziki gorrotatzera. Astoek bezala jaten du, aurreko hortzekin. Hantxe ibiltzen du jatekoa batetik bestera, ahoan duena oraindik bizirik balego bezala. Morroia hizketan, kristoren txorakeriak esaten, eta gu han, bere aurrean, ahoan bizirik dagoen zerbait daukala pentsatzen. Noizbait dentistarengana joan beharko duela esaten diot, plastikozko hagin batzuk jartzera –Txarlik ahoan sartu zituen atzamarrak, azken esaldia apenas ulertu zitzaion.

– Ez dituk plastikozkoak izaten –zuzendu zion Oskarrek–. Zeramikazkoak izaten dituk. Nola izango dira ba plastikozkoak?

– Berdin ziok, egurrezkoak badira ere, baina jar dezala zerbait, arren!

Mikel anaia gazteena zuen Txarlik. Artean etxean jarraitzen zuen, gurasoekin. Oliveirak eta Oskarrek askotan entzuten zuten Txarli anaiaz gaizki esaka.

Basoak berriro betetzera joan zen Oliveira. Hordituta sentitu zen, eta puska bat errudun ere bai, apur bat lizun. Laster etxeratu nahi zuen, biharamun iluntzeko afariko giroa epeltzeko, baina azkenean ez zuen nahikoa adorerik bildu. Bere buruari esango zion nahi gabe joan zitzaiola denbora, nahiz eta egiazki bazekien ama aurrez aurre aurkitzeko batere gogorik ez zuelako zela.

Jende gutxi geratzen zen tabernan. Goiko mahaian bikote bat: neska hizketan, gai interesgarri batez antza, eskuen joan-etorrien grina ikusita; mutila aspertuta. Tarteka eskua kuleropean sartu ahal izateko zer egin behar den!, pentsatu zuen Oliveirak. Neskatilak eskuak mutilaren sor-

baldan jartzen zituen, haren interesa esnatzeko ahalegin desesperatuan, baina mutila neskaren lagunen inguruko kontuok laurogei bider entzundakoa zen eta jada ez zuen antzerkia egiteko premiarik. Han egon izan balitz, eskua masailean jarriko zion Oliveirak eta bere arazoak konpontzeko *gakoak* emango zizkion, baina aitatasunik gabe, gutxietsi gabe. «Ulertzen dut, bai» esango zion. Baina Oliveira ez zegoen han, eta han zegoen mutilak ez zuen neska irabazteko beharrizanik. Arraina sarean zeukan.

– Nire anaia amaz maiteminduta zagok. Bai, bai: amaz –esaten ari zitzaion Txarli Oskarri, Oliveira mahaira itzuli zenean.

Eta orduan Txarli mahaitik ostikoka botatzeko gogoa sentitu zuen. Bazekien ez zuela botako, ez berak ez Oskarrek, ustez zorrotzak eta ahoberoak izanagatik, ez baitzeukaten halako egoeratan argi eta garbi inor mozteko potrorik. Makina bat txapa jasandakoak ziren.

– Maitasun mota horrek bi alde ditu: premia edo guraria, batetik; ukoaren mina bestetik, porrotaren mingotsa, badakizue... –jada inork ez

zuen Txarli geraraziko; iragana trumilka zetorkion, ezpataz, eta indartsuegia zen.

– Irudi luke heure diagnostikoa egiten ari haizela –esan zuen Oliveirak.

– Neuk ere badiat halako zerbait. Ez diat onartzeko batere arazorik. Aitak beste autoritate bat izan balu... ez zakiat... Beti bizi izan da baztertuta, argindarra begiratzera etxera etorritako behargina bezala. Hantxe bizi izan da gure etxean, leihoaren aurrean eserita, beti irribarretsu; ostatu bateko bezeroa zirudien...

Bakarrizketan ari zen Txarli.

Oskarrek burua Oliveiraren belarrira hurreratu zuen:

– Nondik atera duk hire lehengusuen kontu hori?

– Ez zakiat. Asmatu egin diat.

– Ipurdian, horixe, ipurdian sartu diok atzamarra. Ea nork isiltzen duen orain.

– Familia guztietan izaten dituk lehengusuak: lehengusu jasangaitzak, norberaren aurkariak, gurasoen kuttunak... Neuk orain bazauzkat bi: Nagore eta Iker. Perfektuak dituk: makinista eta ile apaintzailea. Ia haiek ikusteko irrikaz nagok.

Burua eskuen artean ezkutatu zuen Oskarrek:

– Ero koadrila puta hau!

Oliveira taulari begira geratu zen. Parekatua zihoan partida.

–11–

Urteko azken egunean Gabriela bisitatzea erabaki zuen Oliveirak. Etxe hartara itzultzeko gogoz, aitzakiak pentsatzen eman zituen egun batzuk. Liburuak saldu zizkionez, eskaria bere osotasunean iritsi ote zitzaion egiaztatzera joan zitekeen. «Eskerrik asko kezkatzeagatik» esango lioke Gabrielak, eta barrura sartzeko gonbitaz batera interesatuko litzateke Oliveirarengatik: «Zer moduz? Anai-arrebarik baduzu?». Egueberriez eta amari buruz hitz egitera behartuko lukeen arren, gezur txiki batzuk asmatuko lituzke. Gezurrak esatea beti da bizitzan aurrera egiteko modu aproposa, alferrikako oztopoak saihesteko baliabidea.

Tinori hots egin zion.

– Ebakuntza egin diote aitonari. Bainugelan erori eta aldaka hautsi du.

– Hara!

– Erortzean ezin jarriko zituen eskuak eta... Bera ez da ezertaz akordatzen, gizajoa. Harreman ona dugu aitonak eta biok, ongi dakizunez.

Gaztetako kontuak kontatzen dizkit, maitaleak zituenekoak...

– Bat baino gehiago?

– Itsasontzi bateko makinetan aritzen zen. Mundu osoan zituen amoranteak. Larru-jotzaile porrokatua zen!

Tinoren irria entzun zuen telefonoaren bestaldetik. Gogoko zituen lizunkeriak. Oso erraza zen bide horretatik haren laguntasuna lotzea. Lizunkeriak aipatzen hasi ahala, ahaztu aldaka eta ahaztu lanetik libratzea.

Aitona ozta-ozta ezagutu zuen Oliveirak. Egia zen makinista ibilia zena, baina emakumetan, besteak bezala, ezer gutxi. Horrela bizi izan zen Juanito, ozpinduta baina alaitasun faltsua erakusteko beharrik gabe, eta hala joan zen, protesta artean, minbiziaz, mundu guztia egiten zuela errudun.

Gabrielarena herriko etxe guztiak bezain itsusia zen. Ume batek marraztutako auzoa zen hura, inolako harmoniarik gabea. Horiz margotuak hormak, laranjaz balkoiak eta azpialdean marmol beltza, babes ofizialekoak ez zirela azpimarratzeko jarria seguruen. Ezkaratza ohikoa,

ohiko handikeriaz apaindua alegia. Bigarren solairuan bizi zen atsoa, baina une batez zalantza egin zuen zein ote zen atea. Behetik azalpenak eman behar ez izateagatik beste tinbre bati sakatu zion, eta korrika igo zituen eskailerak. Ate aurrean geratu zen. Ez zen ezer aditzen, eskailera zulotik zetozen telebista hotsa, haur baten negarra eta lehorgailu bat izan ezik. Zopa usaina zegoen atarian.

Txirrinari sakatu bezain laster hasi ziren zaunkak.

Neska gazte batek zabaldu zuen atea. Txakurra irten zen hankartetik, buztana zut.

– Gabriela etxean al dago?

– Gabriela? –goitik behera begiratu zion; ezpainak gorriz, sudurpean bilo *itzal* bat eta dirutza balioko zuen soinekoa (hori iruditu zitzaion Oliveirari).

– Bai, Jose Zarateren emaztea.

– Badakit nor den Gabriela. Bere *laguna* al zara?

– Ez zehazki. Duela egun batzuk liburuak erosi zizkidan eta...

– A, zu zara orduan amonari liburuak saldu zizkiona!

– Berak erosi zizkidan.

– Eta jakin al daiteke zertarako behar dituen amonak liburuak?

– Hori berari galdetu beharko zenioke.

– Baina zuri galdetzen dizut.

– Ulertu dut galdera, bai, baina ez dakit zer erantzun. Berak erosi zituen, berak esan beharko dizu zergatik eta zertarako.

– Zergatik: zuk saldu zenizkiolako; zertarako: ezertarako ez.

– Aizu, ze galdeketa klase da hau?

– Ez dut gustuko inork nire amona engainatzea.

Sudurra oker zuela begitandu zitzaion Oliveirari: «Sudur okerra, umore petrala».

– Nik ez diot ziririk sartu. Liburuak zuretzat behar zituela esan zidan.

– Niretzat, entziklopedia bat?

– Bai, zera esan zuen, eguna telebista aurrean pasatzen zenuela, eta entziklopediarekin beste zerbait edukiko zenuela entretenitzeko.

– Ez txorakeriarik esan.

– Ez naiz ezer asmatzen ari.

– Oraintxe hartuko dut lehen liburukotea, atea itxi orduko.

– Ezkerretik eskuinera irakurri, badakizu...

Oliveirak hankak gurutzatzeko erari erreparatu zion diskrezioz. Agian itzultzaile jardungo zuen kongresuetan eta halakoetan, uniformez jantzita. Baina beste zerbait gordetzen zuen buru horretan, pozoiren bat:

– Ezkerretik eskuinera irakurriz iritsi al zara zu horren urrun?

Sugegorria!

Begi beltzak zituen, eta inolako lotsarik ez. Amonaren etorria zuen, zalantzarik gabe, jario erakargarri berbera; amona baino askoz ere hotzagoa ordea. Ez zuen bizitzaren laburraren berri: horra aldea. Azken esaldiarekin Oliveira lotsatzea lortu zuen, jolasaz haratago joan baitzen, zuhaitza errotik ateratzera. Neska horren akorduan inolako arrastorik utziko ez zuela pentsatu zuen Oliveirak. Zein erraz sartzen diren neskak gizonen postalen kutxan, eta zein zaila den kutxa eder horretan toki bat egitea. Noizbait liburukoteei erreparatu eta lanbroa baino ez

zuen gogoratuko neskak: nor ote zen saltzailea? Baina Oliveirak ate horretan Gabrielaren biloba baino gehiago ikusten zuen, eta lipar txiki horretan jabetu zen sentimenduaz eta lipar txiki horretan borrokatu zen sentimendu haren kontra, artean esateko kontu egokirik aurkitzen ez zuela. Orduan pentsatu zuen, zakur ttattar hark tamaina eta pisu aproposak zituela ostikoz beste izkinaraino bidaltzeko modu zorigaiztoko batean, eta halaxe behintzat neska betiko akordatuko zela berarekin.

– Esaiozu etorri naizela, gehiegi eskatzea ez bada.

– Utzidazu telefono zenbakia, nahi baduzu.

– Ez daukat –pentsatu gabe erantzun zuen Oliveirak, eta berehala damutu zen.

Zigarro bat piztu zuen kalean, pixka bat asaldatuta, pozik hala ere. Edertasunak poztuta. Ez ageriko edertasuna, arrunta eta ikusten erraza den hori, ikusten ez dena baizik: norberak nahi duenean eta nahi duelako ikusten duena, horren prometagarria izan daitekeena.

Aita Donostia kaletik Beraungo futbol zelaira jo zuen, etxera oinez joateko asmoz, euritik ba-

bestearren balkoipeetan ostatu hartuz. Zergatik ez zuen inoiz ere aterkirik eramaten?, horra zer zerabilen kaskoan bueltaka. Pontikatik gertu egonagatik, lotsagarri eta garestia zitzaion autobusa hartzea, baina eguraldi zakurra zegoen. Markesinan geratu zen beraz. Bizkar zorrotik Alvaro Mutisen liburu bat atera zuen: *La última escala del Tramp Steamer*. Liburu txikia baina trinkoa eta aberatsa. Esaldi guztiak kopiatzeko tentazioa sentitzen zuen Oliveirak, haiek idazteko plazeragatik bakarrik.

Zigarroa ahoan hartuta irakurtzeko ahalegina egin zuen. Kea begietan sartu zitzaion, amorratuta bota zuen harrika. Zorrotik egunkaria atera eta liburua paperean biltzen hasi zen. Aspaldi zen Oskarri oparirik egiten ez ziola. Bazekien berak ez zuela Oskarrengandik oparirik jasoko. Ardura gutxi. Etxekoen aurrean emango zion, maitagarriki begiratuko zion Oskarren amak.

Gizon edadetu bat zeukan alboan. Markesinako eserlekua lan-mahai gisa erabili zuen Oliveirak.

– Lagun bati oparia egingo diot gaur –esan zion, haren jakin-minaz ohartuta.

– Ongi da –esan zuen zaharrak.

– Gustatuko zaiola espero dut. Liburu bikaina da: atoiontzi baten istorioa.

– Diozun hori egia bada –txotxa batetik bestera mugitu zuen ezpainetan–, a zer liburu aspergarria!

– Egia bada, zer?

– Ontzi bati buruzko istorioa dela. Emakume bati buruzkoa balitz, edo asasino bati buruzkoa... Baina ontzi bat... seko aspergarria.

Liburua eskuetan hartu zuen Oliveirak, zalantzati, eta kartazal baten hegalaren kola erabili zuen paperarekin bilduki sendo bat egiteko. Ez zen itxuroso geratu, horratik. Zatar xamar.

– Egiozu keinu horri –esan zuen zaharrak eserlekutik mugitu gabe.

Oliveirak urrutitik keinu egin zion autobusari. Ozta-ozta gelditu zen hala ere. Gidariak haserre antzera ireki zuen atea. Donostiatik zetozen autobusek Pontikara iristeko azken-aurreko geltokia zuten Beraungoa; askotan pasatzen ziren gelditu gabe, ezikusiarena eginda.

Arineketan joan zen azken lerrora. Emakume batean aldamenean paratu zen, literatur kritikari hasiberritik aski urrun.

– Idazle izan aurretik beste lan batzuetan ibili zinen, adibidez: liburuak atez ate saltzen. Zein eragin izan du horrek zure literaturan?

– Egundokoa, baina uste dut ez naizela *outsider* bat; gure belaunaldiko idazleek badakite zer den babarrunak eltzetik ateratzen ibili beharra. Bizitzarekin izandako enkontru horrek literatura asko aberasten du, noski. Idazleak ezin du ikusle huts izan. Gaur egun supermerkatu batzuek etxera ekartzen dizkizute erosketak; telefonoz deitu eta hau eta bestea eskatzen ditu bezeroak: patata zaku bat, kolakao potoa, hortz-orea, gazta laurdena, iratzargailuarentzako pilak... eskatu eta ekarri. Erosleak badaki zer ekarriko dioten, baina dagoeneko ez daki zer den eroste ekintza bera: harategiko usain gozo-ozpindua, esnekien korridoreko hotza, arraina trapu zaharra balitz bezala gobernatzeko axolagabekeria, kutxaren ilaran aurrera egiteko atsoen trikimailuak, barra kodea irakurtzeko gailuaren soinua

(bihotzaren taupadak neurtzeko gailuena bezalakoa)...

– Noiz erabaki zenuen idazle izatea?

– Liburu salmentan nenbilela, egun batean neska batek hartu ninduen etxean. Aspaldi ikusitako ederrena zen. «Zuk baduzu *zerbait*, ez ezazu alferrik galtzen utzi» esan zidan. Harrituta geratu nintzen: nola konturatu ote zen? Tira, neskak halakoak dira, ezta? Dena dakite gutaz. Gure erraietako Gestapoak dira, nolabait. Egun euritsua zen, itzuleran autobusean igo nintzen, hutsik zegoen, Errenteriako ingurumariak zeharkatzen hasi ginen: sasi-etxe-orratz horiek (txikiak izateko handiegiak eta handiak izateko txikiegiak), okindegiak, mertzeriak, bizkor egindako graffitiak (*te quiero, Sonia*), Farias intsentsuz lurrindutako tabernak... Euria ari zuen erruz, ematen zuen autobusa uraren azpitik lentan zihoala. Trumoiak, tximistak, dinbili-danbala autobusa. Ikuskizun irreala zen, koadro inpresionista baten gisakoa. Bai, koadro eder baten barruan nengoen. Une horretan erabaki nuen gerora lehen liburua izango zena idaztea: Jose Zarate margolariaren bizitza.

– Ez-fikziozkoa beraz.

– Abiapuntu bat behar nuen. Horregatik aukeratu nuen Jose Zarateren pertsonaia, ia oharkabean. Behin bere koadroak ikusteko aukera suertatu zitzaidan, hain justu liburu salmentan nenbilela. Misteriotsuak ziren, koadroetako pertsonaiek zerbait sotila azaltzen baitzuten: ironia edo angustia edo lotsa... ez dakit, oso espresiboak ziren. Eta horrek idazketarekin lotura garbia zuen, bai neronek literatura ikusteko nuen moduarekin behintzat. Asko ikasi nuen Zarateri buruz, baina gero informazioa guztiz bihurritu nuen, narrazioa *erakargarriago* egitearren.

– Nobel sarirako lehen hautagai euskalduna zara. Ze sentipen sortzen dizu?

Barrez hasi zen Oliveira, haluzinazioen mailaz harrituta. Aldameneko emakumeak zorotzat hartu zuen.

Gabrielaren biloba sugegorriaz oroitu zen: arazoa izango zen neskatila, baldin eta neskatila etxean sarritan egoten bazen. Eta aldi berean, hura berriz ikustea zen buruan zeukan gauza bakarra. Agian haren hankartean igarotzea eterni-

tatea. Eternitatea eta egun bat gehiago, Angelopoulosen filmean bezala.

«Jose Zarate urte batzuk lehenago ezagutu ez izana, hori da nire bizitzako damu handiena. Hogei urte nituen artean. Errenteriako periferian bizi zen Jose Zarate, Beraun izeneko langile-auzoan. Urteak Buenos Airesen eta New Yorken eman ondoren itzultzea erabaki zuen, eta huraxe zuen etxea, langileen herri txiki hartan...». Horrela hasiko zuen liburua.

–12–

Gaztaina erre usaina zegoen urteko azken egunean. Elur pinportak erortzen hasi ziren, zoru labainkorra ukitu baino lehen desegiten zirenak. Lepoak bufandaz estalita eta eskuak jaken patriketan zihoazen Oskar eta Oliveira, goiz erretiratzeko asmotan.

Etxeetan izurriteen aurkako garbiketa egin izan balute bezala, kalean zegoen mundu osoa, denak apain festarako. Zarpailago zebilen baserritarrez jantzitako taldea Santxoenea kalean. Mutil bat bereizi zen multzotik Paraiso taberna parean, eta kideek pixka bat atzera egin zuten elkarri bultzaka. Morroi jatorra zirudien, hitzaren zentzu zehatzean *jator*, Oliveirari beste arraza batekoa iruditzen zitzaion horietakoa: patxadatsua, errotua, umorerik gabea, ondratua. Bere argazkia egongelan jarria izango zuen amak, hildako baten gisara: jaunartzeko jantzi zuriekin eta gurutzea lepotik zintzilik. «Masail gorriak ditu!» esango zuen amak urrez inguratutako argazkia jasotakoan; «Ume osasuntsua duzu»

erantzungo zion argazkilariak, beti erabiltzen zuen esaldia errepikatuz. Mutilak besoak jaso zituen eta kantuan hasi ziren gizon-emakumeak, poliki, aire izoztuan lurruna botaz. Atzeko pintadari erreparatu zion Oliveirak: *Policía asesina*, taldearentzat propio jarritako atrezzoa. Gizonezkoek kokotsa beheititzen zuten behar bezain grabe abesteko, eta burua goititzen zuten emakumeek, txoriek bezala. Halako batean ume kozkor batek zerbait utzi zuen gizon potoloenaren oinetan: argi izpi batetik kea zerion oparia. Pam! lehertu zen. Lodikoteak asaldatuta begiratu zuen gibelera. Bolbora usaina zabaldu zen jendartean. Beste puntatik emakume bat hurbildu zen lasterka, umea besotik hartu eta, haserrea antzeztuz, tas-tas egin zion ipurdian. Umeak barre besterik ez zuen egiten.

– Gustura egingo nikek gauza bera neronek ere! –esan zion Oskarrek Oliveirari.

– Bai, gustura hartuko hituzke horrek emandako ipurdikoak.

Umeak beste petardo bat piztu zuen. Abesbatzaren gainetik bota eta zuzendariaren aldamenean erori zen. Pauso bat egin zuen eskuinera,

gorputzaren posizioa milimetro bakar bat ere aldatu gabe. Pam! lehertu zen berriz. *Airian dabil orbela, etxe hontako jende leialak, gabon Jainkoak diyela* jarraitu zuten, baina buruez bihurrikeria gaitzesten. Zuzendariak bekainak altxa zituen: arreta pixka bat, faborez. Gizon muzindu bat agertu zen jendartetik. Bazetorrela ikusi zuen umeak ihes egin zion, bidean aurkitzen zituen helduen atzean babesturik. Gizona besoa luzatuta zebilen harrapaka, han eta hemen diskulpan: barkatu, barkatu, barkatu... baina ez zuen umea atzematea lortzen. Azkenean urrutitik agindu zion hurbiltzeko, eta umeari irria desagertu zitzaion orduan: «Nik ez dut ezer egin». Barrabas mukizuak amore eman zuenean, gizonak petardoak kendu eta patrikan gorde zituen. Akabo.

– Utzi mutikoari jolasean! –oihu egin zuen Oliveirak, adarra jotzeko.

Ernegatuta begiratu zion abesbatza osoak: *Lezo ta Errenteriya, irugarrena Oiartzun; nere lagunak, Dios te salve garbuarekin erantzun*. Alaitasunerako eta anaitasunerako deia zebilen ka-

lean, alaitasuna eta anaitasuna zer ote ziren herri hartan inork gutxik zekien arren.

– Baserritarrez mozorrotu eta astebete langostinoak zuritzen pasatzeari esaten zaiok *zoriona* herri triste honetan –esan zuen Oskarrek.

Oliveirari *krustazeo* hitza etorri zitzaion burura, baina ez zen Andoni Egaña *krustazeo* hitzarekin hitz-jokoak egiteko.

– Zaila zirudik langostinoek eguberri-aurreko bizitza izan dutela pentsatzeak, bizirik igerian ibili izan direla inoiz –norabiderik gabeko elkarrizketa filosofikoan murgildu zen Oliveira–. Bazirudik plater baten gainean etzanda bizi izan direla betidanik.

– Igerian? Joder, horiek ez zakitek igeri egiten. Kolpeka mugitzen dituk.

– Zer kristo da kolpeka! Kolpeak zeren kontra?

– Ez zakiat, baina hala ibiltzen dituk, txoptxop, dardara batean.

Gabrielaren bilobarekin akordatu zen Oliveira, haren sudurpeko biloez eta erakargarritasun misteriotsuaz.

– Zarateren biloba ezagutu diat.

– Pintore horrena?

– Neska polita.

– Sinesten diat.

– Ez zakiat polita den edo... ez zakiat.

– Polita da ala ez!

– Polita duk, bai, baina ez oso apaina.

– Noiz ezagutu duk ba?

– Ez duk neska pinpirina, badakik, bere itxuraz kezkatua eta abar. Baina polita duk. Eta azkarra ematen dik, aspertzen ez hauten horietakoa.

– Eta gorputzez?

– Ez zagok gaizki.

– Zer arraio da *ez zagok gaizki*?

– Ongi dagoela.

– Zarateren etxean izan haiz berriro?

Isilik geratu zen Oliveira, elur pinportak ahoan lerratzen uzten. Neska ahuspez etzanda irudikatu zuen, eta bera aldamenean gezurrak asmatzen: gezurrak, gezurrak, gezurrak. Beti hausten diren promesak egiten.

– Ez diat uste hemen barrena ibiliko denik. Donostian ibiliko duk, Eskola Ingeleseko lagunekin.

Oinez jarraitu zuten, ingelesez hizketan egiteko kapaz ez zirela pentsatzen. Elkarri etxera laguntzeko ohitura zeukaten, zuri-beltzezko filmetako maitaleen modura. Ezkaratz aurrean azken berriketa laburra egingo zuten gero. Biak berandu iritsiko ziren etxera, baina ase.

Porlanean zutik gelditzen ziren malutak, bigundu egiten ziren gutxika, eta zoruaren poroetan desagertzen ziren azkenean, arrasto ilun bat utzita.

– Ez du zurituko –esan zuen Oliveirak.

– Ez du inoiz zuritzen.

Biteri kalea ere langostino zuritzailez beteta zegoen, tabernaz taberna dohainik ateratako gozoak jaten ibilitakoak. Jendartetik taxi bat azaldu zen diesel marrantaz. Etsita zihoan txoferra, tarteka aurreko leihoan ukabileko hezurrekin jotzen, bidea irekitzeko itxaropenez. Atzeko eserlekuan emakume edadetu bat, larri, festa bera gabe hasiko zelakoan: «Festa bukatuko da, eta ni hemen, jendailaren artean galduta». Taxilariari esan, ez zion esango, baina ziur pentsatuko zuela: «Zanpatu itzazu lasai!».

– Oso zakarra duk. Alaba bakarra izango duk beharbada. Familia onekoa, erretxindua, zorrotza, gupida gabekoa.

– Nor?

– Zarateren biloba. Bere amonari entziklopedia saldu izana aurpegiratu zidak. Sekulakoak bota zizkidak.

– Zer axola dio berari?

– Ez zakiat. Nola jakin liteke neska batek zer pentsatzen duen?

– Errieta egin al dik?

– Errieta ez, baina... tira, bai.

– Eta jada hasi haiz ametsetan: liskar batekin hasitako maitasun istorio bat...

– Hoa popatik!

– Oliveira, ahaztu errieta egiten duten neskak: bi egun ere ez dituk aguantatzen.

– Bost axola neska horrek! Baina dena duk pixka bat arraroa: amona, margolaria, biloba...

– Posizio interesgarri bat, alegia.

– Horixe. Jokoaren erdira ailegatu eta aukera guztiak zaudek zabalik: beltzek zein zuriek irabaz zezaketek.

Bat-batean pausoa gelditu zuen Oskarrek:

– Zergatik esaten duk *joko*? Zergatik esaten duzue denek *joko*? Xakea ez duk joko bat, puñetas!

– Puñetas...?

– Bai, puñetas!

– Nire amak erabiltzen dik hitz hori.

– Seguru hire amak ere *joko* esaten diola xakeari, redios.

Alfer-alferrik zen eztabaidatzea.

– Zer da ba xakea?

– Joko bat ez behintzat.

– Baina zerbait izango duk.

– Xakea, xakea duk. Kito.

– Eta nola esaten da ba *jokaldi bat*?

– Xakean ez zagok jokaldirik, mugimenduak zaudek. Xakelariek ez ditek jokaldirik egiten, ez dituk Romario eta Lopez Ufarte. Pieza eskuan hartu eta mugitu, horixe egiten ditek.

Ile sarria zuen Oskarrek, elur malutak bertan geratzen hasi zitzaizkion.

– Ezin duk horren serio hitz egin, ilea malutaz beteta daukaala. Txizagura ematen duk!

Eskua patrikatik atera eta elurra kendu zuen. Ezin zuen ulertu: nolatan uste zezakeen mun-

duak xakea joko bat dela? Horra, urtea amaitzeko galdera garrantzitsu bat.

Iberdueroko maldan agurtu zuten elkar. Ez zen ohikoa han banantzea, baina hotzegi zegoen. Gora joan zen Oskar, Beraunera. Pontikara segitu zuen Oliveirak.

Eguberri puta haiek! Gabrielaren etxean egotea desiratu zuen. Rukula entsalada eta horrelakoak jango zituzten han: brika, hostopilak, gauza finak. Mahai azpitik oinarekin potroak igurtziko zizkion Gabrielaren bilobak, komunera ihes egingo zuten eta larrutan egingo zuten konketa gainean. Horren ordez amarekin afalduko zuen Oliveirak eta hitzik gurutzatu gabe pasako zuten gaua: fluoreszentearen zarata, kroketak eta langostinoak.

Aitak Mitsubishi bideoa ekarri zuen egunaz gogoratu zen. 1989ko Gabonak. Touringek bigarren urtea zuen hirugarren mailan. Egunkari paperean bilduta zegoen oparia, baina zabaldutakoan ezusteko txundigarria hartu zuen Oliveirak. Hantxe agertu zen handi-handian *Mitsubishi* hitza, *Mitsubishi 4 heads*. Aitak hatza *4 heads* hitzaren gainean jarri zuen: «Badakizu zer esan

nahi duen honek? Irudia gelditzeko edo kamera geldoan ikusteko tramankulu bikaina dela. Hala esan dit dendakoak. Ez dago hoberik». Biharamunean Pontikako bideo-klubera joan zen, filmak ilaran ikusi zituen, milioi bat egon zitezkeela kalkulatu zuen: *Gremlins*, *En busca del arca perdida*, *Goonies*, *Karate Kid*, Bruce Leeren dozena bat, *Superman*, *Regreso al futuro, Alien, Excalibur, Willow*, *Esperanza y gloria...* Bideo-klubeko arduradun burusoila kasete sorta bati paper-zati laranjak ipintzen ari zen mostradorean: «Alokatua». Axolagabe begiratu zion Oliveirari eta bere zereginarekin segitu zuen. *La guerra de los Rose*, *Tiburón, Amadeus, Cyrano de Bergerac, Misery, Terminator, Blade Runner, Poltergeist, El color púrpura...*

– Ba al daukazue Robert de Niroren pelikularen bat? –galdetu zion, bai baitzekien aitak huraxe zuela gustukoen.

Mostradore atzetik irten eta korridorean zehar abiatu zen gizona. Hatzak filmen gainetik mugitzen zituen, gatza botatzen ariko balitzaie bezala, alde batetik bestera, lerroaren luzera osoan, Robert de Niro ditxosozkoa noiz agertuko.

– Hauxe! –*El corazón del Ángel* erakutsi zion–. Badituzu gehiago, nahi izanez gero: *El Padrino, Taxi driver*, *El cazador, Toro Salvaje*, *Érase una vez en América, La misión*... denak oso onak.

– Horiek ikusita dauzkat. Ez daukazu *Novecento*?

– Ez, hori ez.

– Eta *Los Intocables*?

– Hori berrietakoa da. Alokatuta dago. Eraman ezazu arrakasta gehien duena.

Pesadilla en Elm Street jarri zion eskuan.

– Freddy Krueger! –garrasi egin zuen burusoilak, eta atzamarrak altxa zituen mehatxagarri; ondoren algara egin zuen, zerbait oso barregarria esan izan balu bezala.

Érase una vez en América eraman zuen. Gozatu handia hartu zuen aitak.

–13–

Ezkaratzeko argia piztu ahala arakatu zituen zokoak, Freddy Krueger handik ote zebilen; ezingo zuen harekiko beldurra inoiz gainditu. Azkar igo zituen eskailerak, bere buruaz puska bat lotsatuta. Atea ireki aurretik etxe barruan ahotsak entzutea iruditu zitzaion.

– Non dauzkazu kubiertoak? –esan zuen gizonezko batek.

Korridorearen erdian gelditu zen Oliveira.

– Beti gustatu izan zait mahaia jartzea –jarraitu zuen ahotsak.

Nor arraio zen sukaldean zegoena?

– Hortxe dauzkazu armairuko lehen tiraderan... Ez, beste aldean... Bai, hortxe –argitu zion Maitek.

– Jesus, baldarra naiz gero!

Hitz maitagarriak eta konplizeak zerabiltzaten; beraz, ez zen etxekoa (ezta urruneko senideren bat ere, haiekin ere ez baitzen gozoa) eta ez zen kalean jasotako norbait. Aldez aurretik ezagutuko zuten elkar.

Sukaldeko atetik ikusi zituen: ama, muskuilu bat zartaginera botatzeko prest; adineko gizon burusoila, botila ardoa ezkerreko eskuan eta daratulua eskuinekoan.

– Muskuiluak, zeinen goxoak!

Oliveirak segundo gutxi zituen figura beltzen mugimendua erabakitzeko:

1. Ospa egin (zaldia atzeratu).

2. Sartu eta ezikusiarena egin (peoi bat aurreratu).

3. Sartu eta zakarra izan (alfilaz oldartu).

4. Sartu eta zibilizatua izan (endrokea).

5. Sartu eta biak tiroka garbitu (taula irauli).

Gizonak Oliveira ikusi zuen atepean, ez atzera ez aurrera.

– Hara! Zu Raul izango zara noski –gizonak botila mahai gainean utzi eta eskua galtzetan xukatu zuen berari luzatzeko.

Bostekoa eman zion.

– Hau Pepelu da, lagun bat –esan zuen Maitek.

Lagun bat!

Buruaz keinu bitxi bat egin zuen gizonak, akaso adierazgarria izan nahi zuena, baina Mai-

terentzat bakarrik. Litekeena zen ordurako euren artean koderen bat erabiltzea.

60 urte ingurukoa, azal zuria, alproja itxura, makarra xamarra nolabait (makarra izan gabe). Gauza arraroa. Oliveirak amaren titien artean imajinatu zuen Pepelu, animalia baten orroak egiten.

– Gurekin afalduko al du honek?

– Bai –amak lakar.

– Uste nuen familia arteko afaria genuela gaur...

– Raul, ez ezazu ergel plantarik egin, mesedez. Hemen afalduko du –ez zen dialektikan denbora galdu zalea.

Gizonak zapiak hartu zituen armairutik, txistuka ari zela, «Etxe barruko aferetan ez naiz sartuko» esanez bezala. Plateren aldamenean paratu zituen, maitasunik gabe, mahaia gutxitan jarritakoa zela agerian utziz. Oliveirak bizitzaren okerra gogoratu zuen: zein zabala den mundua, zein jendez betea, eta hantxe zegoen bera, gutxien desio zuen tokian.

– Usain ederra dago, alajaina! –esan zuen Pepeluk alai–. Ez al da hala, mutil?

Pepelu ez zen berehala etsitzen dutenetakoa, eta Oliveirak ez zuen asmatu zakar portatzen. Beste era bateko barruak behar dira jendeari gauzak zuzen-zuzenean esateko: «Honekin egiten al duzu larrutan, ama, trapu zahar honekin?».

– Ez da oso hitz egin zalea –ohartarazi zion Maitek Pepeluri.

Honek zapi biribildu bat hartu zuen suaren ondotik. Oliveirari mutur aurrean jarri eta zabaltzen hasi zen, lau izkinak banaka, magoen antzera.

– Eta, zer diozu orain?

Oliveirak zizare pila bat ikusi zuen zapian. Mugitzen ari zirela iruditu zitzaion.

– Ez ditut inoiz dastatu, jauna.

– *Jauna*?, tira ba, motel, Gabon zaharra da!

Oliveirak ez zuen grina hari izkin egiteko biderik topatu.

– Dastatuko ditut –esan zuen, ahoa apenas ireki gabe.

– Jakina! Aurrera, Maite, bota zartaginera gutizia hauek! –zapian bihotz bat eramango balu bezala hurreratu zen sutara.

Maitek eta Oliveirak elkarri begiratu zioten istant batez. Aspaldi zen ez ziotela elkarri segundo erdiko begirada ere eskaintzen. «Hau al da aitaren ordezkoa?». Amak zainzurien alboan paratu zituen muskuiluak (pixka bat erreta zeuden); foie zatitxo bat ere bazen mahai gainean, langostinoak eta urdaiazpikoa. Oliveirak gogoratzen zuenetik, gauza bera afaltzen zuten Gabonetan eta Urtezahar gauean. Beti gauza bera jartzeko tema amari nondik zetorkion, hori ez zion inoiz galdetu. Bestetik, berari bost, mahaian zer zegoen. Mahaian nor zegoen, horra zerk zuen erabateko garrantzia.

– Has zaitezte –agindu zuen Maitek.

Pepeluk eskuak igurtzi zituen. Urdaiazpiko xerra bat hartzen ahalegindu zen. Dirua zenbatzen ari den bankuko bulegaria zirudien. Bizpahiru xerra hartu zituen azkenean, ogi tartean sartzeko. Ehunka ogitarteko egindakoa zela antzematen zitzaion.

Otarrainxka bat hartu zuen amak, hanka batetik tiraka, eta astiro ipini zuen platerean, zabar azaltzeko beldur. Disekatuta zegoela zirudien, ganorazko azaldu nahiak zurrunduta. Hatz ma-

miekin zuritu nahi zuen, eta halaxe ekin zion. Osorik zuritzerako mahatsak jaten hasi beharko zuen.

Zakurrak baino gosetuago iritsi zen Oliveira, baina ez zekien nondik *eraso* egin, herabe, beste norbaiten etxean egoteko sentimenduaz. Bere etxean zegoen, ordea, bere amari larrutan egiten zion gizonaren aldamenean eserita, eta honek irribarre egiten zion, hortz txikiak erakutsiz, akaso etengabe jaten ibiltzeagatik makestuak.

– Eta... zertan zabiltza, Raul, jakin badaiteke?

– Handik eta hemendik ateratzen dut bizibidea.

– Ez duzu ergel plantarik, ez jauna!

Amari so egin zion. Begiratu mortu bat itzuli zion amak, hieratikoa. Gizona ez zen kikildu: koipekeria bat (inbidia diet gazteei), laudorio bat (argia zara), eta abar. Horrek beste galdera berri bat egiteko eskubidea emango zion Pepeluri. Horretarako botatzen baitira laudorioak, besteen bizitzan are gehiago arakatzeko.

– Zein planta dute ba ergelek? –esan zuen Oliveirak.

Pepeluk ahoa okertu zuen beherantz eta bekainak gorantz.

– Galdera ona! –foiez igurtzitako ogi xigortua ahoan sartuz erantzun zuen–. Segituan antzematen zaie. Eta zuri ere bai, ergela ez zarela, alegia.

– Begiak, ezpainak, sudurra... aurpegiko zerk uzten du agerian norbait ergela edo azkarra dela?

Keinua aldatu zitzaion Pepeluri, alaitasunak ziplo ospa egin izan balio bezala. Maite azaldu zen erreskatean:

– Atsegina izan nahi zuen, Raul. Ez zaitez pedante jarri.

– Nik galdera bat besterik ez dut egin.

– Nire ustez –ausartu zen gizona– pertsona argi batek ezin du ederregia izan, ezta zatarregia ere.

Zientzia!

Oliveirak bere burua ikusi zuen Pepeluri labana bizkarrean sartzen. Honen kexu abaildua, katu baten eztularen tankerakoa, amaren oihuak, odola alkandora loredunetik behera. Anabasa horretatik ateratzeko zailtasunak irudikatu zituen gero. Eskailerak arrapaladan jaitsi,

mendira alde egin, egun batzuk noraezean pasatu, auto bat lapurtu, ogi gogorra jan, iturriren batean garbitu... Erailketa gehienak segundo erdi batengatik saihesten dira, ekintza bera baino are zailagoa baita ondorioei ihes egitea. Nagikeria hutsagatik daude zientoka lagun bizirik hor zehar, norbaiten amets asasinoen jomuga direnik ere jakin gabe.

Hasperen egin zuen Oliveirak. Poztu egin zen Pepelu bizirik ikusteaz, ez horrenbeste bera bizirik egoteaz. Maiakovskiren hitzez oroitu zen: «Denoi! Ez dadila inor nire heriotzagatik arduratu, arren, zurrumurrurik ez. Hildakoari bereziki gogaikarriak zitzaizkion. Ama, arreba nireak, kamaradak, barkaidazue; hau ez da biderik onena, (ez diot inori gomendatzen), baina ez daukat beste irtenbiderik».

Angulak mahaira ekarri zituen Maitek. Artile lodiko jertsea zirudien platerak goitik begiratuta. Usain gozoa zuten. Sardekada handia hartu zuen Oliveirak.

– Kontuz! –oihu egin zuen Pepeluk–, ez dira espagetiak!

Lehen laudorioen ondoren, lehen aholkuak. Horrela bereganatuko zituen Pepeluk botere esparruak etxe hartan, lausenguak eta gaztiguak tartekatuz, modu gozo batez hasieran, aitakeriaz gero. Oso zuhur ibili beharko zuen Oliveirak bakoitza bere tokian jartzeko.

Aurreneko botila hustu zuten. Suziriak entzuten ziren kalean, baina etxea isilik zegoen; sukaldeko argiak firrinda egiten segitzen zuen beti bezala. Oliveirak hormako erlojuari behatu zion: ordubete falta zen gauerdirako. Pepeluri gorritu egin zitzaizkion begiak, maltzurtu aldartea. Ez zitzaion horregatik gosea berdindu. San Markoko zabortegiak ez luke gau bakarrean janari gehiago hartuko.

– Onak daude ipurdiko zizare hauek –esan zuen Oliveirak.

Pepeluk eta Maitek oso serio begiratu zioten elkarri.

–14–

Afaria bakean amaitu zuten behintzat. Gutizia haiek ipurdiarekin konparatu izanak Pepelu isilarazi ondoren, Maitek ironiaz esan zuen Oliveirak idazle izateko ametsa zuela, eta barkatzeko zatarkeria hura. Oliveirak ez zuen barkamenik eskatu, irri modukoa zintzilikatu zuen ezpainetatik, cavaz topa egin arte kendu ez zuena. Pepeluk zerbitzatu zituen hiru kopak, hatz lodia botilaren ipurdian sartuz: «Hala zerbitzatzen dute jatetxe onetan». Eta gero botila osoa hustu zuen amen batean. Maitek bonboi kaxa bat atera zuen, erreparo apur batekin begiratu zion Oliveirari, etxe hartan txokolatea *beretzat* erosten baitzuen; kanpoko gonbidatua zegoenez eta denek jango zutenez, akaso «Zuk ere jan dezakezu» esan beharko ziokeen semeari, baina ez zion esango, gauza horiek euren artekoak ziren eta. Maitek ale bat ahoratu zuen, balio handiko gauza txiki bat hartzen ariko balitz bezala, leuntasun noble bat antzeztuz. Oliveirak ez zuen okasioa alferrik

galdu: mordoxka bat atzeman zituen eta jakaren patrikan sartu.

Oskarrengana abiatu zen Berauneranz. Dotore zihoala iruditu zitzaion Gabrielaren txanoaz estalita. Pentsatu zuen banitatea sentimendu txoroa dela, baina aldartea bestelakotzen duela *benetan*. Itsusi sentitzen zenean konkortu egiten zen, gorputzaren barruan ezkutatu nahiko balu bezala, eta ongi ikusten zenean, aldiz, kanpaien moduan ibiltzen zen dinbili-danbala, zeruko zerari begira.

Etxetik irten aurretik paper batean idatzi zuen: «Xakea ez da joko bat». Soka bat lotu zion orriari, Oskarrenera ailegatzean paparrean zintzilikatzeko.

– Urteberri on! –oihukatu zuen Albertok atea zabaltzean.

– Ba al dakik zenbat bider ikusi dudan etxetik hona 1999 zenbakia? –esan zion Oliveirak.

– Ez zakiat. Ehun?

– Berrogeita hiru!

– Eta paparrean daramaan hori?

– Urte honetarako leloa: «Xakea ez da joko bat».

– Zer ostia da ba?

– Oskarri galdetu.

Sukaldean Oskarrek eskuz eta Aliziak musuz agurtu zuten. Rakel, Oskarren ama musika jogailuaren aurrean makurtuta zegoen, betaurrekoak sudur puntan, botoiari sakatzear, tentuz, mapa batean herrialde txiki-txiki bat seinalatzen dugunean bezala. Hankaz gora zegoen sukaldea: xanpain kopak, txokolatezko turroia, plater erabiliak, ogi papurrak, polboroien estalkiak, zapiak meta bat eginda. Eta mahaiaren bazter batean: karta jokorako tapetea, kartak eta harriak. Zoriona.

– Zer daramazu paparrean? –galdetu zion Aliziak.

– Mundua aldatzeko leloa: «Xakea ez da jokoa».

– Niri adarra jotzeko jarri du, Alizia. Ongi Raul, primeran hasi duk urtea.

– Halaxe aterako nauk kalera!

– Ez nirekin.

– Ba orduan Albertoren lagunekin.

Buddy Hollyren ahotsa entzun zen, dantzan hasi zen Rakel, eskuak pistola bilakatuta, airera

balak jaurtiz. *Every day it's a-gettin' closer, goin' faster than a roller coaster, love like yours will surely come my way, a hey, a hey-hey* abestu zuen. Eta denek segitu zioten, mahaiari itzuliak ematen, Oliveira besotik heldu eta zutitzera beharturik, *Every day, it's a-gettin' faster, everyone says go ahead and ask her, love like yours will surely come my way, a hey, a hey-hey* kantuan denak. Oliveirak *Every day* besterik ez zuen esaten, eta amaierako *a hey, a hey-hey*. Oskarrek eta Aliziak ez zekiten askoz gehiago. Rakelek oso-osorik, ingeles negargarrian baina grazia xarmangarriaz.

Rakelek bere seme Alvaro bahitu zuen, indarrez altxarazi eta estu lotuta dantzatzen hasi. Oliveirak kopa bat xanpain hustu eta sukaldean barna zebilen trena hartu zuen, mahaiari itzuliak egiten jarraitzeko: *Every day seems a little longer, every way, love's a little stronger, come what may, do you ever long for true love from me?* Emakume txikia zen Rakel, kaskarin eta txinparta. Ez zuen rocka entzuteko itxurarik, baina musikaz Oliveirak baino gehiago zekien; Kenny Rogers eta Joan Baez entzuten zituen.

Eseri eta kartak nahasi zituen Oliveirak, buruaz musika laguntzen, metronomo bihurtuta, Rakelek ez zezan goibel zebilenik susmatu. Antzemanez gero, dantzaz konpontzen saiatuko zen (askoz okerragoa izango zen sendabidea); berriz jaikiaraziko zuen, mahaiaren inguruan zanpantzarrena egiten jarri, berriz ahalketu. Kanta amaitzean txalo egiten zuten denek, eta mahaian eseri ziren kartetan hasteko. Baina Bobby Vintonen ahotsa entzun zen orduan; jaiki egin ziren atzera, txito marrantadunak bezala kantatu. *Roses are re-e-ed, violets are blu-u-ue...* Oskar nota guztiak banan-banan huts egiteko ahalegina egiten ari zela zirudien, baina ez zuen horregatik damurik agertzen. Hunkituta zegoen Oliveira, bazuen zerbait Vintonen ahots hegalari hark. Nahitaez jartzen zuen Oliveira aldamenekoekin batasunean, denek gozatzen baitzuten musika harekin, eta denak zeuden hunkidura berak harrapatuta, bortxatuta. Familia harekin zerbait lohia egiten ariko balitz bezala sentitu zen.

Eseri zirenean Oliveirak beste kopa bat xanpain hustu zuen, bonboiak atera zituen, Olentze-

ro aipatu zuen esaldia amaitu gabe, halako moduz non denak begira geratu baitziren baina zer esan zuen argi ulertu ezinik.

– Hau hiretzat –Alvaro Mutisen nobela laga zuen Oskarren ondoan.

– Zer demontre... Zer duk ba?

– Raketa bat, zera!, ez al duk ikusten liburu bat dela?

– Ireki gabe nola jakingo diat ba!

– Nik ez zakiat besterik oparitzen. Irudimena falta zaidak.

– Honekin nahikoa, hi. Mila esker!

– *Tramp Steamer* atoiontziaren istorioa –esan zuen Oliveirak esker onei muzin eginez–. Helsinki, San Petersburgo, Punta Arenas, Kingston, Orinoko... Jon Iturri kapitaina, Warda gaztea... hortxe zagok dena...

Periodiko papera puskatu zuen Oskarrek, besarkada bat eman zion. Malko baten printza ihesi zitzaion Rakeli.

– Hi, eskua sartu gabe! –protesta egin zuen Oliveirak.

– Hi haiz tipoa! –esan zuen Aliziak txeratsu.

Segundo batez isilik geratu ziren denak, eta Oliveira oparia ekarri izana madarikatzen hasi zen: gorroto zuen besteak *mileskerka* hastea. Ohitura falta zuen horretarako, begietara irri eginez begiratzeko eta halako kontuetarako. Zorionez kartak nahasten hasi zen Alberto:

– Orain hasten ez bagara, kalera joango naiz. Ez dut zazpi bider esango.

Norekin eta harekin jarri zuten Oliveira, noski: etxeko txarrenarekin. Ez zuen kexatzeko betarik izan.

– Utzidak niri jotzen –eskatu zion Oliveirak.

– Lasai, Oliveira –erantzun zion Albertok betaurreko okertuekin–, hauek ez zakitek jokatzen.

Alizia zintzoegia zen musean aritzeko. Intuizioa zuen besteen purrustei antzemateko, baina ez zeukan gaiztakeriarik, aise antzematen zitzaizkion gezurrak. Jokalari segurua zen, ez zen berotzen, atzera egin behar zenean patxadaz egiten zuen, gizonkeriarik gabe. Oliveirak eta Oskarrek ez zuten Aliziaren hoztasuna izatearekin ametsik ere egiten. Urguilua eta taktika, biak nahasten zituzten.

Oskarrek handira eta txikira bietara jotzen zuen beti, ohitura txar hori zeukan. Oliveira bere onetik ateratzea lortzen zuen. Gauza jakina da, mus jokalari bat bere onetik ateratzea dela taktikarik onena.

Oliveirari tantoak zenbatzeak ematen zion plazera, batik bat hauek ugariak zirenean. Jilito osaba zirudien, aberats, tantoak ondasunak balira bezala. Oso arin egiten zituen batuketak, eta batzuetan susmo txarrak sortzen zituen.

– Handiatatxikiahiru, pariabat'tadupliakhirusei, jokoatajokoalau-hamar.

Orduan Oliveirak tanto metatxoa seinalatzen zuen eta Albertori bi harri hartzeko agintzen zion, hitzak garden ahoskatuz. Eta horrek bere onetik ateratzen zuen Oskar.

Biek beren arma txikiak erabiltzen zituzten elkarri zirikatzeko.

Baina gau hartan urria izan zen partidaren epika. Oliveira mozkortuta zegoen: kartak ganoraz kudatzeko ahalmenik ez, Albertoren harri galduak berreskuratzeko nagikeria... Amaren bikotekide berriak ere aztoratuta zeukan, burusoil harroputz iruzurgile hark. Pepelu madarikatu ho-

rrekin zer egin pentsatu beharko zuen urte hastapenarekin batera.

– Zer moduz dabil ama? –galdetu zuen Rakelek, xanpain kopa eskuan.

– Utzi Oliveira jokoan trankil, ama– eskatu zion Albertok.

– Ongi. Umore arrastorik gabe, beti bezala –mikaztu zen Oliveira.

– Gaizki pasatu du aitaren heriotzaz geroztik. Eta lehendik ere bai. Asko sufritutakoa da.

– Ama, arren– agindu zion Oskarrek, begiak kartetatik aldendu gabe.

– Pareak bai– Albertok.

– Bai –Aliziak.

– Bai –Oskarrek.

– Ez –Oliveirak.

– Gaizki pasatu du, bai... –Rakelek bere artean.

Berehala amaitu zuten partida. Azkeneko jokaldian Albertok hordagoa galdu zuen Oskarren aurka: bi errege eta bi seiko, hiru zazpikoren aurka (hogeita hamaikarekin!). Handira paso eginda eta Oliveiraren txikirako enbidoari eutsita engainatu zuen anaia. Lege zaharra, muslaria-

ren lehen araua: aurkariari baztertu ezingo duen amua jartzea, eta besteak amua irenstea.

Minduta zutitu zen Oliveira, beti amorratzen zen porrotean. Irrikan zegoen Oskarri amaren nobioari buruzko kontuak azaltzeko, ordea, eta ezetz esan zion errebantxari.

– Nola kristo joango haiz errebantxa eskatu gabe –haserretu zen Alberto.

– Eguberriak dituk.

Oliveirak jaka jantzi eta bufanda lotu zuen lepoan. Zigarreta piztu eta albo batera jarri zuen ezpainetan, detektibe gogorren tankeran, eta pentsatu zuen zaila zela dotoreago egotea. Txanoa, jaka, bufanda eta zigarreta: Belmondo bera zirudien!

Agudo abiatu ziren zentrora, Azkena tabernan speed gramotxoa hartu eta Zumardira joateko asmoz. Han ikastola garaiko gizajoak pairatu beharko zituzten, institutuko ezagun astunak, algara faltsu haiek. Tabernaren bateko izkinan jarriko ziren, disko jartzailearen musika kritikatzen eta ertaintasun hura guztia deitoratzen.

Azkenara bidean Pepeluren berri eman zion Oskarri. Kontatu zion zizare batzuekin erosten

saiatu zela; lehen aldia zela bizitzan norbait horren argi bera erosten saiatzen zena, ez inguruan jende zuzena izan ohi zuelako, baizik eta inork ez zuelako halako lanik hartu.

– Sosak izango ditik. Zizare horiek urrea balio ditek –esan zuen Oskarrek.

– Beste garai bateko gizona duk, El dúo dinámico-ren eta Peugeot 505aren garaikoa. Bera ikustea denboraren makinan jauzi handia egitea duk. Badik zerbait nostalgikoa, zuri-beltzaren garaikoa. Alaia zirudik, jendezalea... baina egoskor puta bat duk, beti arrazoia duten ezjakin horietakoa. Miserable gezurti eta bizizale bat. Tipo horrek... nire aitaren ohean lo egingo duela pentsatze hutsak...

– Nire aitaren ohea? *Nire aitaren etxea* esaten ariko bahintz bezala...

– Aitaren ohea duk, joder –esan zuen Oliveirak, pixka bat oreka galduz.

Besotik heldu zion Oskarrek:

– Hire aita hil zuan. Nola izango da ba bere ohea? Ohea amarena duk, sar dezala bertan nahi duena!

– Sar daitezela ohean euren zizare horiekin...

–15–

‘Gauzak kanpoan gertatzen diren’ taberna txiki horietakoa zen Azkena: barruan barrarako tokia, komuna eta botilak doi-doi sartzeko eta kartel matxinoak zintzilikatzeko metro koadro pare bat. Ez zen askoz gehiago behar. Mandoak kanpoan geratzen ziren, gramo poltsak han edo hemen ezkutuan, begiak barrandari. Ez zen jende kaskarinarentzat aterpea.

Oliveirak kafesnea eskatu zuen. Oskarrek mihia klaskatu zuen, Oliveirak kafesnea norbait izorratzearren eskatuko balu bezala. Ez zen horrenbesterako. Antolin kamareroak barre egin zuen hortz-tarte eder bat erakutsiz, eta martxan jarri zuen mugimendu trebeez. Kanpoko eskaileretan eseri zen Oskar kalimotxoarekin. Oliveirak azukrea bota zion kafesneari eta, koilaraz eragin ondoren, barran utzi zituen koilara eta platera.

– Nola joango haiz ba kafesnea eskutan gramoa erostera? –errieta egin zion Oskarrek.

– Luzerna eskukada bat eramango zioat mando horri, gaizki iruditzen ez bazaik.

Katilua baso bat balitz bezala helduta, beste mando askok bezala Txino izena zuen Txino mandoarengana joan zen, ea gramotxo bat izango zuen galdetzera. Itxaroteko esan zion Txinok, katilu handiari begira. Oliveirak kafesneari trago bat kendu eta ezpainetako aparra garbitu zuen mihiaz. Neska koadrila bat ikusi zuen inguruan, denak beltzez jantzita: The Cureren estetika. Berehala itzuli zen Txino. Merkatu txikian kruasanak sartzeko erabiltzen dituzten zorro zuri finaz bildutako poltsatxo bat jarri zion eskuan, sandwich ogien poltsetan erabiltzen duten alanbre txiki horrekin itxia, marrazki bizidunetan dirua sartzeko erabiltzen duten horietako bat zirudiena, baina miniaturazkoa. Mila eta bostehun pezeta ordaindu zizkion.

Neskei begira zegoen Oskarrengana hurbildu zen.

– Listo! –esan zuen Oliveirak.

Reyna tabernara iritsi arte ez zen ezer aipagarririk gertatu. Txinok pasatako speeda dastatu zuten, speeda dasta badaiteke behintzat, Azkena aldameneko Zakilaren Plazan, beltzezko neskengandik gertu, halako moduz non baitzirudien

ezkutatzen ari zirela, baina era berean marrak oso agerian eginez (jarrera ausarta eta sotila, inondik ere), The Cureren *Boys don't cry* abestia ona ote zen arin eztabaidatu bitartean. Speeda sudurretik eztarrira pasarazteko trantzea benetan zaila eta higuingarria egiten zitzaion Oliveirari; horregatik eskatu zuen kafesnea, sabela ongi pausatuta edukitzeko, botaka egiteko gogoa sartzen baitzitzaion sarritan. Ahotik hartu behar izaten zuen arnasa, bestela dena botatzen baitzuen, irentsitako marra barne. Speeda sabelera etenik gabe iristen ari zela konturatutakoan, pozez txoratzen sentitu ziren biak.

– Felix Izetak irabaziko al lioke Bobby Fischerri? –galdetu zion Oliveirak–. Esan nahi diat, hamarretik bat irabazteko talentua izango ote lukeen.

– Erotu egin al haiz!

– Ehundik bat, akaso?

– Ehundik bat... beharbada bai –onartu zuen Oskarrek.

Eta Oliveirak sinetsi egin zion, aberriagatik halako harrotasun batekin. Speedaren kilimak sentitu zituen, bizitzeko gogo berritua eta (zer-

gatik ez) baita dantza pixka bat egitekoa ere. Eta supituan tximista-irudi bat etorri zitzaion gogora: Pepelu burusoilak lepoan lanperna bat eramaten zuela zintzilik. Oskarri kontatu zion, xehetasun horrek amaren bikotekidearen nortasunaren zeinuak azaltzen zituelakoan. Oskarrek lauso erantzun zuen, gogo handirik gabe.

Egun batzuk lehenago Reyna tabernako disko jartzaileaz hitz egin zien ezagun batek. «Kristoren musika jartzen dik 18 urteko nerabe horrek». Lepotik zintzilik lanperna eramatea normala ote zen, horixe galdetu zion Oliveirak Oskarri atzetik garrasi eginez, ilaran baitzihoazen, tabernakide hieratikoak agurtzen. Oskarrek ezetz, ez zela normala: «Normalena litzateke urrezko plakatxoa eramatea: Pepelu eta Maite». Segituan ikusi zuten Txarlik aipatutako mutila, disko jogailuen aurrean makurtuta, orratza bi kanten arteko tartean ipintzen, eskuan bisturia balu bezala. Ilea mototsean bildua, alkandora gorria, borobil zuriz betea: morroi xelebrea zen, heldu izan nahi zuen dotoretasun gizongabean. Sartu orduko giroa nabari zen Reynan, lainotsua, zerbaitek harrapatuko bazintu bezala, sintetizadoreen era-

ginez seguruenik. Dj-aren aldameneko barra zatian dantzan ari zen koadrila bat, bere lagunak seguruen, ukabilak zerura jarraitzen zuten erritmoa, dj-ari begira maiz; hark irribarre egiten zien (neskei mutilei baino gehiago, Oliveira berehala ohartu zenez). Alproja azkarra zen gazte hura, bai. Gorrotatu ala maitatu, erabaki hori ikusi orduko hartu behar zen, ikusi eta entzun orduko, ezen musika bere lurraren zatia baitzen, akaso handinahi itxura hura bainoago. Baina Oliveirak arrangurarako eta inbidiarako burmuin zatiak itxita zeuzkanez abisu berrira arte, mutilak itxura ona zeukala esan zion Oskarri, eta Oskarrek, noski, ez zion aurka egin, berak ere kamustuta baitzituen zorrotz juzgatzeko mekanismoak.

Kafe-antzokien gisako taberna zen Reyna, Ameriketatik ekarritako eredua, edo akaso beste nonbaitetik, jazz tankerakoa, nahiz eta gero jazza ez zen beste guztia jartzen zuten bezeroak ez uxatzearren. Groucho Marxen bibotea zeukan kamareroak atera zizkien tragoak, eta Oskarrek eta Oliveirak dj-aren zokoan gelditzeko zirrikitu bat aurkitu zuten, neska koadrila bat, denak zatarrak, sotilki bultzatuta. Eskua patrikan sartu

zuen Oliveirak, poltsatxoa ukitu zuen, baina, nahigabetuta, luzeegia iruditu zitzaion komunerainoko bidea. Puzgarria haizea galtzen ari zen artean. Garagardo trago handia hurrupatu zuen orduan, eta zigarreta bat eskatu zion bigarren kalimotxoa edaten ari zen Oskarri, bi gauzon artean anfetaminaren eragina berpiztuko zitzaiolakoan. Guns N' Rosesen *Welcome to the jungle* kanta jarri zuen alkandora gorridun nerabeak. Taberna osoa saltoka hasi zen zoramenaz. Burua mugitzen zuen dj-ak ere, airezko gitarrari eragiten, bere onetik aterata.

Oliveirak ezkerrera begiratu zuen, eta deskubritu zuen neska bat Oskarren belarrira hitz egiten ari zela. Natural agertzeko ahalegina egiten zuen Oskarrek: esateko zerbaiten bila ariko zen seguruen (zerbait normala), neska uxatuko ez zuen hitz apalen bat. Miraria izango zen neskak bezero berriaren arroztasunari ez erreparatzea eta harekin geratzea. Bazuen zerbait Oskarrek, neskak azkar izutzeko.

Hormonen arteko enkontruari esker irabazitako bat-bateko askatasun hura baliatu zuen Oliveirak jendartetik barraraino joateko, dj-arekin

hitz batzuk trukatzeko. Lotsa zeharo galduta zegoen.

Eneko izena zuen nerabeak; zinez nerabe ahotsa zeukan, halako eztitasun arraro bat. Azkarra zirudien, zeukan adinerako eskarmentatua. Michael Jacksonen *Billie Jean* jarriko ote zion galdetu zion Oliveirak. Ezkerreko platoaren behealdean zeukan tiraderara joan zen Eneko. Kontable batek bezala pasatu zituen diskoak, banaka, ziztu bizian. Berehala aurkitu zuen, harrotasunez erakutsi zion Michael Jackson zuriz jantzita azaltzen zen diskoa, Oliveirak hatz lodia erakutsi zion.

Txarli agertu zen. Ametsetan zegoela pentsatu zuen Oliveirak, eskuetan gitarra zuela ikustean. Gitarra ote zeukan? Egiazkoa?

– Esaiok ume horri zarata hori kentzeko!

– Musika kentzen badu jo eta txikitu egingo ditek.

– Nik txikituko diat kentzen ez badu!

– Tabernatik ostiaka atera eta txorimalo bat bezala utziko ditek lurrean botata.

– Esaiok txorimaloari musika kentzeko! –errepikatu zuen Txarlik, ez zen txantxetan ari.

Konposizio perfektua zen *Billie Jean*. Bateria doinu harrigarri batez hasten zen, baxuak sendo lagunduta. Sinplea eta indartsua zen hasiera hura, hezurrak mugimenduan jartzeko parerik gabea. Inguruko lagunek oihu egin zioten Enekori. Oliveirak kilimak sentitzen zituen buruaren atzealdean, eta bigarren zerbeza eskatu zuen. Konturatuta zegoen hegaldi hartatik lurreratzea gogorra izango zela, baina patrikan zeukan bidaia luzatzeko ekipajea. Txarli bere parean ikusten zuen, argudioren batean galduta, kablerik gabeko musikaren alde aldarri egiten; baina ez zen hura aditzeko gai, edo ez zegoen entzuten zuela agertzeko gai. Hodei batean zegoen. Bere buruari galdetu zion nola jokatuko ote zuen Txarlik gitarraren barruan garagardoa isuriz gero. Bizitzaren ironia: hortxe zeukan begien aurrean lagun estimatua, Michael Jacksonekin lehian, hura baino interesgarriagoa izan zitekeelakoan, nor eta ikastolatik kanporatutako irakaslea, udaletxeko arkupeetan noizean behin kantuan ibiltzen zena, ordurako Michael Jacksonen taldekide bilakatua, akaso nota bat edo beste tonu egokian jotzen.

Komunera alde egin zuen Oliveirak, speed dosi txiki bat hartzeko premiaz. Haragi eta izerdi masa handi bat gainditu behar izan zuen horretarako. Komuneko ilaran seriotasun handia zegoen: banketxe batean egon zitekeen, edo dentistaren itxarongelan: denak irriaren maskara erantzita zeuden. Komunetik irtendakoan Oskar ikusi zuen. Zoriona. Airean joan zen lagunarengana.

– Zer egin duk neskarekin?

– Ez zakiat non sartu den.

– Ez zegoan gaizki.

– Ergela zuan.

– Zer esan dik?

– Burua haizez betea sentitzen zuela eta nirekin egoteko gogoa zeukala.

– Eta zer esan diok hik?

– Ea xakean badakien.

– Zer?!

– Ez zaidak besterik bururatu, kristo!

– Nola puñetas galdetu diok hori?

Isilik geratu zen Oskar, John Wayne putaseme hura baino serioago, zigarroa ahoan.

– Oinak soinetik separatuta dauzkak –gaia aldatu zuen.

Oliveirak bere oinei begiratu zien, beste norbaitenak balira bezala zoruan. Eta aldamenean beste dozena bat oin, denak dantzan. Oin haiek guztiek ere euren soinetatik libre ziharduten alaitasun eta graziarik gabe.

– Ikusi al duk Txarli? –esan zuen Oliveirak–. Erotuta zabilek!

Oskar zigarro bat pizten ari zen, eta txiskeroak sua eman nahi ez zionez astindu egin zuen, kolpetxo batzuk eman zizkion gero esku-ahurraren kontra. Horrek adierazten zuen ez zegoela lur hartzeko tenorean eta berdin ziola, horrenbestez, Txarli gertu ote zebilen.

– Kendu txano hori burutik, motel –esan zion Oskarrek–. Kristoren beroa zagok hemen.

– E? –zaratarekin Oliveirak ez zion ulertu.

Txanoa hartzeko keinua egin zuen Oskarrek, baina eskua buruan jarri zuen Oliveirak, txanoa eutsiz.

– Utzi txanoa bere tokian! –oihu egin zion.

Orduan halako parentesi bat suertatu zen, non (ia) denak (ia) denekin hitz txoroak gurutzatu baitzituzten, tragoen eta zigarroen eta izer-

diaren eta beroaren eta xanpainaren eraginez. Edo aitzakian.

Oskarrek eta Oliveirak dj-aren ondoan eraiki zuten kanpalekua. Hantxe geratu ziren, Enekori kanta zailak proposatzen, kanta zailok jartzen zizkienean ingurura harro begiratzeko. Gero whiski botila oso bat eskatu zuen Oskarrek, eta hiru baso txiki. Ez zuten botila hustu arte handik alde egingo. Hura zen Oliveirak estimatzen zuen Oskar: hitz gutxikoa, baina estilo handikoa.

–16–

Goizeko seietan irten ziren Reynatik, Enekorekin eta bere lagunekin. Diskoentzako poltsa zeraman Enekok, postariek bezala alde batera. Balantzaka zihoan Oliveira, Oskarren eta Enekoren arteko elkarrizketan sartzeko ahaleginean.

Gasparrera heldu zirenean hodei ilun bat zen jendea. Bultzaka sartu ziren. Jaka eta bufanda egurrezko eserlekuan utzi zituen Oliveirak, tabernako azken zokoan: maizter zaharraren abantaila zen jakarentzat zoko egokia ezagutzea.

Eta orduan norbaitek, atzetik, begiak estali zizkion:

– Lapurra –esan zion belarrira.

Segituan ezagutu zuen: Gabrielaren biloba!

Egurrezko eserlekutik whiski botila hartu zuen Oliveirak, zerbait esateko gaitasuna berreskuratuko zuen esperantzaz.

– Bibotea egin duzu –esan zion.

– Bibotea bakarrik ez.

– Zer gehiago?

Neskak erdiko hatza ahoan sartu eta aurpegi parean jarri zion. Hatza harrapatzea lortu zuen Oliveirak, bustita zegoen oraindik. Haserre plantak eginez askatzeko gaztigatu zion neskak.

– Ez, barkamena eskatzen ez badidazu. Ni ez naiz lapurra.

– Bazara, bai.

– Orduan ez zaitut askatuko.

Beste neska batekin zegoen Gabrielaren biloba, ume joko hura noiz amaituko zain, besoak antxumatuta. Hatza askatu gabe, Oliveirak botila eman zion beste neska hari. Keinua aldatu gabe hartu zuen, eta trago batez hustu.

– Hatza bustita daukazu.

– Nazkagarria zara.

Hatza askatu zuen Oliveirak.

Jendartean galdu zen Gabrielaren biloba.

– Halakoa da Paula –esan zion beste neskak.

Paula izena zuen, beraz.

– Eta zu?

– Eta ni, zer? –galdera itzuli zion pozik.

– Zu beti al zaude halako egarriz?

– Beti, beti, beti.

Oskar bilatu zuen bistarekin. Enekoren lagunetako batekin zegoen izkina batean. Azkenako kamareroaren moduan hortzetako bat falta zuen mutilak, tatuaiez beteak zituen besoak: lehorreko marinela. Txapista ibiltzen zela esana zion lehenago. Elkarri tabernako telefonoa ematen ari zitzaizkion biak, urrutitik oso dibertigarria zirudien jolasean. Oskarrek barre eginez begiratu zion Oliveirari, kartoi zati batekin egindako sasihortza erakutsiz.

– Zure laguna joan da... –esan zion Oliveirak neskari.

– Ez da nire laguna.

– Zer da ba?

– Neska bat. Nik zer dakit.

– Ez al zeundeten elkarrekin?

– Bai, baina ez nuen ezagutzen.

– Beno... eta zer egingo dugu orain?

Txikia zen, titi mardulekoa. S-ak edo Z-k esatean txistu egiten zuen, hortzen artean haizea pasatzen utziko balu bezala. Gizonekin endredatzeko gehiegizko prestutasuna erakusten zuen, eta uste izatekoa zen gizonek zakar eta harrokeriaz jokatuko zutela berarekin. Lehen enkon-

truan gogorrak eta gerora negartiak: ezagutzen zituen halakoak.

– Zein txano ederra daramazun –esan zion–, morroi elegantea.

– Margolari handi batena zen. Oparitu egin zidan.

– Bakarrik al zaude?

– Lagunak beste puntan daude, telefonoz hizketan.

– Telefonoz hizketan?

– Bai, zera, nahiko arraroak dira...

Esaldia amaitu aurretik neskaren gorputza berearekin elkartu zela sentitu zuen.

– Zer? –galdetu zuen neskak.

Ezin zuen horren erraza izan. Ergela behar zuen, neska lotsarik gabe zerbait eskaintzen ari zitzaiola ez konturatzeko. Baina ergela zen halako kontuetan. Gutxi ezagutzen zituen bera baino motzagoak, Oskarrez aparte. Neskaren alua begien aurrean izan arte ez zen guztiz seguru sentitzen.

Muxu eman zion.

Neskak.

Animalia zaurituaren begiak zeuzkan.

Eskutik heldu zuen Oliveirak eta Gasparreko komun gorrira eraman zuen. *Prime* markako kondoi bat eskuratu zuen hogei duroko txanpon baten truke. Han bertan egin zuten larrutan. Neskak galtzak eta kuleroak kendu zituen. Ipurdi guri eta biribil horixka erakutsi zion. Hanka indartsuak zeuzkan, motzak eta gihartsuak. Oinetan galtzerdiak eta zapatak, erotismoaz aparte, joko hartatik at. Eskuak neskaren ipurdian jarri eta zakila sartu zion. Hotz sentitu zituen ipurmasailak, kasik zakilaren igurtzia bainoago. Oliveirak bere burua ikusi zuen ispiluan: bera ote zen onetik aterata zegoen mamorroa?

Komunetik irtetean gerritik oratu zion neskak:

– Ez kezkatu, ez nabil nobio bila.

– Kezkatuta zaude kezkatuta nagoelakoan?

– Badaezpada ere esaten dizut, ez dezazun gaua izututa amaitu, datozen egunetan goizeko ordu txikietan esnatuko zaitudala pentsatuz eta abar. Ez neukan halako asmorik.

– Eta zein asmo zenuen ba?

– Larrutan egitea, besterik ez.

– Har dezagun azken tragoa.

Barrara gerturatu zirenean Joxemarik batere disimulurik gabe kliskatu zion begia.

– Mutilek dena dakizuela uste duzue –esan zuen neskak.

– Egia –onartu zuen Oliveirak.

Neska agurtu eta Enekoren etxera abiatu ziren denak, dozena bat lagun.

Anai-arrebekin bizi zen Eneko. Han aurkitu zuten goizeko argiari izkin egiteko aterpea. Barreiatuta zeuden denak: Enekoren eta honen anaien lagunak, eta akaso ezezagunen bat ere bai, oharkabean sartua. Gaztetxe itxura zuen etxe hark. Hainbatek logela bat okupatu zuten, jantziak lurrean utzi eta ohe arrotzean atseden hartzearren. Segituan azaldu zen logelaren jabea. «Ospa denak hemendik!», oihuka esnatu zituen Enekoren anaia nagusiak. Jantziak eskuetan agertu ziren berriz egongelan, hantxe egokitu ziren kexuka. Egongela ez zen palazio bat, baina sofa zaharrean hamar bat lagun jarri ziren, batzuk bizkarra bermatzekoan, besteak albo batera eserita. Gazte eta malguak ziren zoko ziztrinenetan baretasuna berreskuratzeko.

Leihoaren azpian paratu zen Oskar, aparte; baina nonbaitetik amildu egin izan balitz bezala, lurrean etzanda zegoen neska batengandik metro eskasera.

Harrigarria zen isiltasuna, tabernako iskanbilaren aldean. Isilegia agian, gaua bukatu zelako zeinu argia. Urteko lehen eguna zen Mitx katuarentzat ere. Ez zirudien bereziki asaldatuta: lo zegoen telebistaren gainean. Hortzik gabeko lagunak ukitu egin zuen, bizirik ote zen jakiteko.

– Bere zazpi bizitzak erre ziren bertan –kantatu zuen.

– Gurasoek ez al dute etorri behar? –galdetu zuen Oliveirak.

– Ez, beren bikotekideekin joan ziren bizitzera.

– Zuek hemen utzita?

– Bai.

– Joder, nolako zortea!

Enekok baietz egin zuen buruaz, ez konbentzimendu handiz.

Lau anai-arreba ziren etxean. Nagusiak 23 urte zituen eta Eneko zen txikiena. Denen artean egiten zituzten etxeko kontuak. Amak janariare-

kin laguntzeaz gainera, maiz etortzen zen arropa lisatzera.

– Nahi duelako etortzen da. Kuxkuxean ibiltzeko aitzakia besterik ez da –harrotu zen Eneko–. Plastikozko ontzietan ekartzen digu janaria, baina gu ondo moldatzen gara sukaldean. Pasta jaten dugu beti. Gazta xehatua zakuka erosten dugu.

Oliveirak ezin zuen sinetsi. Speedaren eragina sentitzen zuen oraindik, edozergatik pozteko edo harritzeko premia.

– Diskoak jartzeaz aparte beste lanik egiten duzu?

– Ez –kolakao bat prestatzen ari zen Eneko.

– Eta zer egiten duzu egun osoan?

– Musika entzun, musika erosi, musika grabatu. Eta zertxobait irakurri.

– Ez da plan txarra.

– Erosketak egiteko botea jartzen dugu. Gauzetako batzuk lapurtu egiten ditugu: desodorantea, bizarra egiteko aiztoak, xaboia, izokin kezatua eta, oro har, jertse azpian sartzen diren gauza guztiak.

– Arropa garbitzeko xaboia ez behintzat –esan zuen Oskarrek, lurretik mugitu gabe.

Enekok burusi bat atera zuen armairutik eta Oskarri bota zion. Gero kuxin bat ere ekarri zion, burua paretaren kontra baitzeukan. Oskarrek tapakia hartu eta zeharka so egin zion neskari, begirada iheskor batez. Oliveirak keinuari erreparatu zion, apur bat hunkituta, Oskarrek buruan zer zerabilen ondotxo asmatuz.

Hatz lodia ageri zen Enekoren ezkerreko txapineko zulotik. Mugitu egiten zuen solasean ari zen bitartean. Azalpenak emateaz nekatuta egongo zen agian. Besteentzat harrigarria zena, bere bizimodua zen, kito. Bizitza posible guztien artean hauxe zen arruntena Enekorentzat: gurasoez libratuta etxean bakean bizitzea.

– Poliziarik gabeko gizartea da gurea –esan zuen azkenik, aspaldi ateratako ondorioa balitz bezala–. Bakoitzak bere zereginak ditu, badaki ezin duela hutsik egin, beste hirurak ez baitaude batek uzten duen lana betetzeko prest. Sesio asko izaten dugu, jakina, baina hori da dibertigarriena: anai-arrebak dira behin eta berriz pikuta-

ra bidal daitezkeen abere bakarrak. Bestelakoak, behin haserretuta, betiko haserretzen dira.

Telebistaren ondoko bideoen artean arakatzen hasi zen. Anabasa hartan bakarra ere ez zegoen bere kaxan sartuta.

– Zinemaren ordua! –iragarri zuen–. Filma ikusi nahi ez duenak ospa egin dezala. Edo gera dadila lo.

– Zein film da?

– *Amadeus*. Mozarten bizitza.

Kruasan baten besoa sartu zuen ahora Oliveirak. Hostopila nola desegiten zen dastatu zuen. Gozo piloa zegoen mahai gainean, Enekok diskoak jartzen irabazitako diruaz Lekuonan erositakoak. Oliveirak sei edo zazpi kruasanen adarrak janak zituen ordurako.

Oskarrek postura aldatu zuela ohartu zen Oliveira. Atariko siziliarra prestatzen ari zen! Tarraka-tarraka gerturatu zen neskarengana: eskua luzatu zuen aurrena, gero besoa eta gorputza ondoren. Piezak taulan ondo kokatu, horixe zen lehen printzipioa. Ez, ez zen jokoa, ez horixe!

Amadeus euskaraz zeukan Enekok, ETB1etik grabatua. Bikoizketak ez zirudien ohikoan bezain

eskasa. Sallieri, filmaren arabera Mozarten etsaia izan zena, apaizarekin hizketan ari zen; bere kantuak pianoaz jotzen ari zitzaion, ezagutzen ote zituen galdezka; apaizak ez zuen bakarra ezagutzen, harik eta kanta ospetsu bat jo zion arte. Apaiza kantuan hasi zen pozarren:

«Bai, ezagutzen dut!, benetan ederra da!, ez nekien zeuk idatzi zenuenik».

«Ez dut neuk idatzi» erantzun zion Sallierik irri ziniko batez. «Mozartena da».

Ospea edo infernua. Loria edo ahanztura. Bizitza eternala edo heriotza. Hori zen elkarrizketa ustez txoro horretan erabakitzen ari zena.

– Estaltzea nahi al duzu?–Oskarren ahotsa entzun zuen Oliveirak, aldameneko neskari ahapeka.

Xakean zehaztasun izugarriz jipoiak banatzen jarduten zuen laguna, hara!, piezak gobernatu ezinik, taula handiegian galduta.

– Mmm? –zaratatxo bat egin zuen neskak, eta lo segitu zuen.

Burusiaren izkina luzatu zuen Oskarrek, neskaren zangoak estali arte. Ondo-ondoan geratu zen, begiak ezin bildurik.

Filma ikusia zuen Oliveirak, baina berriz ikusteko aldarteaz zegoen. Gaueko pasarte aldrebesak ahaztuko zituen behintzat.

–17–

Maitek beste aurpegi bat zeukan. Ezin zuen hori ukatu. «Gosaldu nahi al duzu?», benetan hori galdetu zion sukaldean topo egin zutenean. Lau urte izango zituen hori azkenekoz galdetu zionean, sei edo zazpi agian; bizitza ozpinez bete aurretik gerta zitezkeen halako mirariak.

Hozkailutik gurina atera zuen, ogi zahar xerra batzuk moztu zituen eta mahaiko papurrak bildu zituen obsesiorik gabe. Beti bezala zegoen: kulerotan eta hanka-hutsik. Zango sendoak zeuzkan, lanak gizondutakoak, zutik mendeetan irauteko eginak ziruditenak. Batetik bestera zebilen sukaldean, hartu kafetera, utzi ogia zartaginean, ogi xerraren zabalera osoa burdinarekin kontaktuan jarri arte eskuaz ongi zapaldu, hartu gurina, kendu estalkia, hartu koilara tiraderatik, atera galletak armairutik... Labanaz ireki zuen esne kaxa eta muturreko kartoi zatia guztiz kendu gabe hasi zen lapikoa betetzen. Oliveira mahaian eserita zegoen, pijamaz jantzita.

Amak hitz egiteko gogoa izango ote zuen? Balantzea egiteko, nolabait; elkarri kontuak eskatzeko. Eta Maite ere bere buruari galdetzen ariko zen, semeak hitz egiteko gogorik izango ote zuen? Biak horretan pentsatzen ariko ziren beharbada. Baina Oliveirak bazekien (entzun zuelako), Pepelu ordubete lehenago alde egina zela etxetik, eta, hortaz, amak bestelako kontuak edukiko zituela gogoan; hain justu horri esker jango zuen Oliveirak amak prestatutako gosaria. Horrek erakustean zuen, nahiko modu prosaikoan, Pepelu ez zela horren gertakari txarra.

Gauza guztien gainetik, ordea, gizartearauen arrastotik atera beharrak sumintzen zuen, jendeaz horren ezberdin izan beharrak. Ez bera, baina bai bere familia. Bere etxea. Eta Pepelu horren segida zen. Alkandora loreduna, kamioilari espainiarren itxura narrasa... gauza txikiak ziren, baina Oliveirarengan betiko sentimendu ozpina egiaztatzen zuten. Ohiko bizitza maskarada hutsa zen, bera irabazle izan zitekeelako ideia fantasioso horiek guztiak, bera besteak bezalakoa izan zitekeelako ustea... Pepelu-

ren irudiarekin batera, bere patua azaltzen zitzaion, madarikazio baten gisa, sorginkeriaren bat. Benedettiren liburuan bezala, su-etena zen zoriona: bizitza errealari lapurtutako une labur bat. Begira ezazue, jaun-andreok, begira ezazue horren trebe eta horren fin munduratu nahiko lukeen gaztearen ahalegina, jendaila izateari uzteko esfortzu nekagarri hori. Ba ote daki bere ahaleginak antzuak direla?

Oliveirak bazekien ustezko normaltasunik ez zegoela. Teoria hutsa zela. Hedabideen propaganda. Lanerako deia. Otzantasunaren aldeko maniobrak. Joan zaitezte lanera, irents ezazue telebistaz helarazten dizkizuegun bizitza ideal horien zorion dosi egunerokoak, teknologiza zaitezte, alda ezazue zeuon Corsa zaharra GTI tankerako auto moderno batengatik, eraman itzazue aita-amaginarrebak asteburuetan etxera bazkaltzera, zoriondu itzazue ilobak euren urtebetetzeetan, egin ezazue otoitz joan direnen alde... Hori guztia bazekien, baina zein gutxi balio zuen teoriak sentimenduak arrapaladan etortzen zitzaizkionean!

– Zure jornalik ikusi gabe jarraitzen dut –esan zuen amak.

Hortxe zen, bueltan, betiko ama.

– Oraindik ez dugu soldata jaso.

– Jasotzean abisatu.

Gurinez eta mermeladaz estalitako tostada sartu zuen ahora Oliveirak.

– Ama –galdetu zuen orduan–: zergatik ez duzu pijama bat erosten?

– Badauzkat pijamak.

– Eta zergatik ez duzu horietako bat janzten?

– Halaxe eroso nabilelako.

– Nahiagoko nuke pijama jantziko bazenu, jende arruntak bezala.

– Jende arruntik ez dago, Raul. Eta zuk nahiko zenukeen familia perfektu hori ere ez. Daukazuna daukazu, eta daukadana daukat neuk ere.

Familia perfektu ugari ezagutzen zituen Oliveirak. Enekorena, adibidez.

Amak tostadaren ertzak jaten zituen lehendabizi, arratoien moduan, karraska. Beti egin izan zuen hala.

– Pepelurekin joan nahiko bazenu... bere etxera esan nahi dut, ez nintzateke haserretuko.

Zeharka begiratu zion Maitek, jateari utzi gabe, karrask, karrask, karrask.

– Etxea saltzea nahi al duzu?

– Ez, ez dut horregatik esaten. Esan nahi dut ez nukeela gaizki hartuko.

– Badakit, maitea –irri egin zuen Maitek–. Zaude lasai, ez naiz joango.

Mahaia jasotzen hasi zen. Hotza sentitzen zuen Oliveirak ama oinutsik ikusita, hanka gorrixka horiek baldosaren gainean.

– Zerorrek joan nahi baduzu, ni ere ez naiz haserretuko –esan zion amak.

– Nora joan behar dut ba nik?

– Ez dakit.

– Ez daukat nora joan. Nora nahi duzu joatea?

– Hori ez da nire arazoa. Ikasi eta lan on bat aurkitu, horixe egin behar zenuen; eta ez zenuen nahi izan.

Eztabaida apur bat desbideratzea erabaki zuen Oliveirak.

– Lan on bat? Lan puta bat izango nuke, ama. Ba al dakizu nola dagoen lan merkatua?

– Goizero lauretan esnatzen naiz. Zuk baino askoz hobeto dakit nola dagoen lan merkatua.

– Gazteontzat okerrago dago.

– Okerrago? Ba al dakizu zuk zer den lan merkatua alargun batentzat?

Katilua harraskan kolpe batez utzi zuen amak. Oihu egiten ari zen.

– Ume harro tentel bat besterik ez zara... zure aita bezala.

– Nire aitak ez dauka zerikusirik honetan.

– Badauka, bai.

– Ez dauka.

Iturria ireki zuen Maitek.

– Pepeluk aipatu dit baduela lan bat zuretzat. Lan on bat. Ez daukazu aitzakiarik. Lana nahi baduzu, izango duzu.

– Badaukat lana.

– Lan *on* bat.

– Zer lan da ba, abokatu?

– Plastikorako injekzio lantegia dauka Lezon.

– Lan bikaina, dudarik gabe.

Aldi Baterako Lan Enpresa baten arduraduna zirudien hizketan, baina kulerotan zegoen.

– Ez niri esan orduan lanik ez duzula.

–18–

Egunkaria-n irakurria zuen Internet izeneko zerbait bazela, mundu osoko jendearekin harremanetan jartzeko balio zuena. Mundu guztiaren ahotan zebilen Internet: etorkizuna zen. Noizbait Internetik ez izatea, etxean «argindarrik ez izatea bezalakoa izango zen» artikuluaren arabera; apenas ordenagailu aurretik mugitu gabe egingo genuen lan urte gutxiren buruan mendebaldarrok; egunkaria ere Internetez irakurriko zuen mundu guztiak, erosketak ere halaxe egingo ziren, munduko edozein herrialdetako lagunekin harremanetan jarri... Baina Oliveirak ez zeukan ez ordenagailurik ez (noski) Internetik. Olivetti elektrikoa erabiltzen zuen idazteko. Gela osoa orri soltez beteta zeukan, ez baitzeukan idazten zuena nolabait ordenatzeko gaitasunik. Halako batean idatziren bat aurkitzen zuen eta, irakurtzen zuenean, ez zuen jakiten egiaz berak idatzia ote zen. Batzuetan onegia iruditzen zitzaion (harrigarria), beste batzuetan txarregia (lotsagarria). Orria hausten zuen penarik gabe.

Bazegoen, ordea, Iztieta auzoan toki bat ordenagailuak erabiltzeko. Ez zen ezer ordaindu behar, Aldundiak edo halakoren batek jarria baitzen. Ez zen jende asko joaten; ikasleak eta informatika zaleak, asko jota. Atez-ateko liburuan eta plastiko injektatuaren bidea uzteko atea ikusten zuen Oliveirak ordenagailuen mundu hartan. Piztu, idatzi, gorde, itzali: ez zirudien horren zaila. Interneten trabatuz gero aitzindaria izango zen, edo behintzat aitzindarietako bat. Ibainet izena zuen ordenagailuz hornitutako tokiak. Ezker-eskuin zeuden konputagailuak, denak errenkan jarrita.

Pastadun betaurrekoak zituen neska batek atenditu zuen. Internet zer zen jakin nahi zuela esan zion Oliveirak.

– Eser zaitez nahi duzun tokian. Berehala naiz zurekin. Azalduko dizut nola konektatu behar zaren.

Ordenagailu aurrean eseri eta zain geratu zen Oliveira. Egoitzan beste neska bat zegoen, ordenagailu aurrean eserita hura ere, aurpegia urdinez argituta. Oliveirari zeharka begiratu zion, bere ondorioak ateratzeko, seguruenik. Bai,

berekin larrutan egiteko mutila dirudi; edo ez, ez nuke makila batekin ere ukituko. Interesgarria dirudi; edo, bestela, kirten puska ikaragarria. Ero neurotikoen kastakoa dirudi, kontuz berarekin; edo poeta ameslaria dirudi, ea sarritan ikusten dudan eta lagun onak egiten garen. Ikusi orduko aterako zituen ondorioak, ondorioak ateratzen ditugun abiaduran, errukirako tarterik gabe. Gauza bera egin zuen Oliveirak ere: ordenagailuz betetako egoitzan zegoenez, neska jakintsua izango zela pentsatu zuen; edo ordenagailuak hortz eskuila erabiltzen den erraztasunaz erabiltzen zituela. Kikilduta sentitu zen eta, halako aldartean zegoenez, munduko gauzarik ziztrinena iruditzen zitzaion bere burua. Pasa beharreko trantzea zen lotsa hura guztia.

Oliveirak bizpahiru minutu eman zituen zain. Pastazko betaurrekoak zituen neska gela txiki batean zegoen, egoitzaren beste muturrean, norbaitekin solasean. Bere tokitik Oliveirak argia baino ez zuen ikusten. Ate txikia zuen gelak, biltegia izan zitekeena. Esaldi bakan batzuk entzuten ziren, eta barreak. Berarekin ahaztuta zego-

en agian. Baina ez, agertu zuen burua halako batean.

– Piztu al duzu ordenagailua? –galdetu zion beste puntatik.

– Piztu? –esan zuen Oliveirak, ordenagailua zen kaxa zurian *start* edo *on* botoiaren bila.

Beste neskaren atentzioa piztu zuen, ez ordenagailua. Oliveirak urduritasuna ezkutatzeko ahalegina egin zuen:

– Non dauka honek botoia? –galdetu zuen, *honek* hitza nabarmenduz, esanez bezala nik ere badaukat halako tramankulu bat etxean, baina botoia beste nonbait duenez, hau ez dakit pizten.

Ibaineteko arduradunak burua gelatxoan sartu zuen, barruan zegoenari zerbait esan zion, eta orduan beste neska bat irten zen, aurrekoa baino txikiagoa.

Paula zen! Segituan ezagutu zuen.

Ikusten zuen hirugarren aldia zen. Patua hizketan ari zitzaiola pentsatu zuen. Umetan halako izkinaraino autoa baino lehen iritsita Nagore edo Dorleta berarekin maiteminduko zirela pentsatzen zuenean bezala.

Kortesiaz agurtu zuen Paulak Oliveira. Ordenagailua pizteko kaxa zuriaren atzean sartu zuen eskua. Argi batzuk azaldu ziren pantailan, eta gero letra eta zenbaki batzuk. Une batez itxaron zuten. Letren eta zenbakien joan-etorria geratu zenean, ikono batzuk agertu ziren hondo urdin baten gainean. Neskak xagua hartu zuen, besoarekin Oliveiraren gorputza inguratuz.

– Aitonaren txanoa al da buruan daukazuna?

– Gabrielak oparitutakoa.

– Ez al duzu kendu behar?

Zergatik tematzen zen mundu guztia txanoa burutik kentzen; horra urtea hasteko beste galdera apropos bat.

– Explorer-en laburdura da *e* hau; hau da, Windowsen nabigatzailearena –esan zuen astiro Paulak.

Oliveira ez zegoen ez adi ez erne. Txanoa kendu zuen, ilea nahasi zuen eskuaz.

– Ordenagailu guztietan ikono hau aurkituko duzu –jarraitu zuen Paulak–. Ikonoari bitan sakatu eta Interneteko sarbidean izango zara. Pasahitza eskatuko dizu seguruenik. Ea asmatzen duzun hemengo pasahitza.

Oliveirari ez zitzaion ezer bururatu.

– Ez dut asmatuko.

– Ibainet –esan zuen Paulak–. Ez da zaila, ezta?

– Lapur batentzat oso erraza.

– Guk, adibidez, Google izeneko bilatzailea erabiltzen dugu. Berria da, baina oso erabilgarria. Googlen hitz bat idatzi eta Interneten hitz hori bilatzen lagunduko dizu. Galderarik?

Oliveirak ez zuen ezer ere ulertu.

– Ez, argi geratu da –esan zuen.

Paula gelatxora joan zen aldakak mugitzen. Ordenagailu aurrean geratu zen Oliveira. Ez zekien, egiaz, zer bila zezakeen Google horretan. Ez zitzaion ezer galdu. *Egunkaria*-ko artikuluan posta elektronikoaz zerbait irakurri zuen: erabiltzaileek elkarri bidaltzen zizkioten gutunak omen ziren. Baina berak ez zekien gutunak idazteko zer bilatu behar zuen. Gutun bat idaztekotan, hartzailerik ere ez zeukan.

Umetako M hura gogoratu zuen. Oskar falta zuen, ordea. Laguna madarikatu zuen; gehien behar zuenean, orduan desagertzen zen. Jaka kendu gabe zegoen. Sartu, eseri, zain egon. Ez

zuen besterik egin. Beste puntatik ahotsak entzuten zituen. Betaurrekodunari zer edo zer kontatzen ariko zitzaion Paula. «Nire laguna, badakizu, Laura, komunera eraman zuen, eta berarekin larrutan egin ondoren ba al dakizu zer egin zuen? Ilea erre zion! Zoro putaseme horrek!». Ez, neskek ez dute horrela hitz egiten; *nazkagarri* edo *urde* erabiliko zuen. Urde horrek.

Jaiki eta korrika alde egitekotan zela, Paula hurreratu zitzaion berriro. Oliveira lehen urratsean geratu zela deskubritu zuen.

– Lagun bati mezu bat idatzi nahi diot –esan zuen azkar, guztiz galduta zegoela ezkutatzeko asmoz.

– Ongi da. Zein da bere helbidea?

– Osorik esan behar dizut? –galdetu zuen Oliveirak harrituta.

– Bai, noski –esan zuen Paulak, irri eginez.

Irri atsegina izan zen, gaiztakeriarik gabea. Lehen aldia zen Paularen irria ozpinik gabe ikusten zuena.

– Aita Donostia kalea, 16 zenbakia, 3.C –bota zuen Oliveirak.

Eskuaz aurpegia estali zuen Paulak, barreka. Beste puntako neska ere berdin. Betaurrekodu-na gelatik irten zen, gertatzen ari zena asmatu nahian. Amesgaizto batean zegoela pentsatu zuen une batez Oliveirak. Baina barreak egiazko-ak ziren.

Esandako helbidea buruz errepasatu zuen: Aita Donostia 16, 3.C. Ongi esana zegoen: Aita Donostia 16, 3.C; Aita Donostia 16, 3.C.

– Helbide elektronikoa, motel!

Oliveirak ia xuxurlaka esan zion Paulari:

– Bidali lasai helbide horretara, iritsiko zaio.

Barreak algara bilakatu ziren.

– Txistea zein den jakingo banu –haserretzen hasi zen Oliveira–, zuekin egingo nuke barre.

Ziztuan alde egin zuen Ibainetetik, neskek halako malezia izan zezaketenik ezin sinetsita. Zer egin zezakeen? Txipez eta kableez betetako zerritoki hura erre, Lancrek sorginak erre zituen bezalaxe. Makila batekin hara sartu eta konputa-gailuak banaka txikitu. Bizitza osoa bizi beharko zuen arantza horrekin. Zahartzaroan ere gogora-tuko zen, eta Oskarri kontatuko zion, gurpildun aulkitik gurpildun aulkira, xake partida amaiezin

horietako batean. Orduan Oskarrek pardela bustitzeraino barre egingo zuen, alprojak.

Kalearen amaierara iritsi zenean, ordea, esku bat sentitu zuen sorbaldan.

Paulak ez zuen askorik erregutu behar izan. Barkamena eskatu zion. Larruzko jaka, jeans urdinak, antezko bota motzak; han zegoen, bere aurrean, aspaldi ikusitako neskarik ederrena, beragatik lasterka ehun edo berrehun metro eginda. «Gorroto dut kirola» esango zukeen galdetuz gero. Ahots sendoa zeukan, edo sendo hitz egiten zuen behintzat (fedea zeukan esaten zuen horretan, amonaren leinukoa zen).

– Zerk eragin dizue barre egiteko gogo txoro hori?

– Goazen kafe bat hartzera.

– Zuk pagatzen baduzu, bai.

– Zure gabezia teknologikoak ikusita –esan zion Jaizkibel tabernan–, hobe izango dugu esertzea.

«Gabezia teknologikoak», pentsatu zuen Oliveirak, «filmetan bezala hitz egiten du». Zalantza une bat antzeztu zuen, modu duinean bere iritziz. Ez zuen antsiarik agertu nahi.

Hasteko azaldu zion Interneten ez zegoela postaririk, dena birtuala zela. Internetez bidaltzen zena Internetez jasotzen zela, alegia. Horixe zela Interneten berrikuntza, horixe zela Internet jendearen artean ezinbesteko bilakatuko zuena.

– Zure lagunak helbide bat izango du, baina Interneteko zerbitzariren batek emandakoa, helbide fikziozko bat, alegia, informazio hutsa dena, ez adreiluzkoa –esan zuen.

– Nire lagunak nahikoa du bere etxeko helbidea oroitzearekin.

– Orduan ezin diozu mezu elektronikorik idatzi. Biek izan behar duzue helbidea: zuk bidaltzeko eta berak jasotzeko.

Gero atarien kontua azaldu zion, baina Oliveira zorabiatu egin zen.

– Ez nekien informatikaria zinenik.

– Ez naiz informatikaria. Argentinako sendiarekin hitz egiteko hasi nintzen Internet erabiltzen. Ondoren Aldundian lana lortu nuen, baina hezitzaile modura. Ibainet sortzean hona bidali ninduten, informatikaz zer edo zer ote nekien

kontuan hartu gabe. Gutxi nekien eta orain ere gutxi dakit, baina azkar ikasten dut.

– Barkatu beste egunekoa –zintzotu zen Oliveira–, ume batek bezala jokatu nuen. Beranduegi zen, badakizu.

– Ni hasi nintzen, zera, badakizu, irainka eta.

– Zer moduz zure laguna?

– Zein?

– Zure lagun... ttattarra, ile kizkurrekoa.

– Gasparren ezagutu nuen, ez dakit nor den ere. Itziar izena zuen. Ez dakit gehiago.

– Hantxe geratu zen bakarrik– esan zuen Oliveirak.

Zapata bakoitzean kolore bateko lokarriak zituen Paulak. Hankak bularreraino ekarrita esertzen zen, botak aulkian igota. Nesken malgutasuna.

– Harrigarria egiten zait zurekin builarik egin gabe hitz egitea, uste nuen beti zinela haserre.

– Ez daukat amonaren umore ona, ez.

– Nire lagun Oskar dirudizu... hura beti ibiltzen da kargadorea beteta, badakizu, tiro egiteko prest.

– Eta zu, etxeko alaitasuna al zara?

– Keba. Ez naiz plantak egiten hasiko.

– Bakeak orduan –esan zuen Paulak, eta mototsetik kanpo geratutako ile xerloak belarri atzera eraman zituen herabe.

Gabrielaren begi elkartuak zituen, bere aho txikia.

– Hezitzailea zara orduan.

– Bai.

– Beldurra ematen didate hezitzaileek.

– Zergatik?

– Oso zaila naiz hezteko. Hezkuntza garaia oso traumatikoa izan nuen. Ezin nintzen kontzentratu, asko aspertzen nintzen eskolako datu eta zenbaki horiekin guztiekin. Azterketa garaian goizeko ordu txikiak arte egoten nintzen esna, baina nobelak irakurtzen! Oraindik ikastolako usaina gogoratzen dut... amesgaiztoa izan ziren urte haiek.

– Ez dago hezteko pertsona zailik, sistema da huts egiten duena.

– Nahiko alferra nintzen, egia esateko.

– Alferra?, ez dut uste.

– Eskolan lo geratzen nintzen askotan, irakaslearen hitz jarioak kulunkatuta edo. Behin ba-

tean irakasleak, Simon izeneko batek, besotik heldu eta garrasi batean esnatu ninduen. Zer kristo? galdetu nion, eta hark esnatzeko, eskolan geundela. Denak begira, badakizu, eguneko ikuskizunaz gozatzen. Besotik helduta eraman ninduen korridorera. Komunean sartzean ubela neukan hemen goian, zerri haren indarragatik. Eta badakizu zer egin nuen?

– Ez.

– Eskolako barandan lotu nuen bere Citroënaren paratxokea. Autoa abian jarri zuenean paratxoke gabe joan zen. Astebeterako bota nindu-ten institututik. Baina hura oroitzean hartzen dudan poza ez dit inork kenduko.

– Harrigarria egiten zait eskolan huts egiten duen jendeak zein iritzi txarra izaten duen bere buruaz. Eskolaz gaizki hitz egiten dute, badakitelako eskolak bazuela arduraren bat, baina azkenean beti esaten dute eurak direla errudunak. Eskola ongi moldatzen da ikasleen buruetan erru sentimendu hori uzteko. Ia denei gertatu zaigu gaitasunik gabeko irakasleekin behin eta berriz topo egin beharra, denok dakigu han ez zegoela ezer irakasteko bokazioa zeukan ia inor, baina

azkenean eskolaren izen ona edo ospea gailentzen da. Konturatu zara horretaz?

– Ez orain arte.

– Orain dirutza irabazten ariko bazina, eskolaz iritzi okerragoa izango zenuke eta hobea zure buruaz. Baina herrenka ibiltzeak beti uzten du kontzientzia txarra. Azkenean norberak bere buruari errua egotzi beste biderik ez du aurkitzen.

– Eta zuk nola dakizu zein iritzi dudan nik neure buruaz?

– Ez dakit. Nire aldamenean jende asko ikusi dut porrot egiten, baina haiek izaten ziren gelako onenak, irakasleei aurre egiten ausartenak, matxinatzen zirenak. Aurrerago haiekin hitz egitean, ordea, zera oldarkor hura ahaztuta ikusten ditut, frakaso sentimenduak irentsita. Pena da.

– Zuk ikasketak amaitu zenituen?

– Unibertsitatera joan nintzen, baina kafetegian ematen genuen eguna, musean.

– Ba al dakizu musean?

– Erraza da gezurrak esatea, ezta?

– Ez. Artea da. Artista bat zara!

– Gezurretan dakidalako?

– Ez, musean!, joder, musean.

– Ez nuen imajinatuko mutil batek nire abilidadeen artean musean jokatzen jakitea goraipatuko zuenik.

– Musean jokatzea handia da –azpimarratu zuen Oliveirak, bere bizitzan halako egiarik esan izan ez balu bezala–. Musean eta xakean jokatzea, eta gauza ederrekiko interesa izatea: horiexek dira gizaki izateko baldintzak.

– Gauza ederrak?

– Bai... gauza *ederrak*.

Lehen aldia zen Oliveira Jaizkibel tabernan sartzen zela. Seko itsusia zen, lurrean irrist ez egiteko zerrautsa daukaten horietakoa. Telebistan futbol partida baten marmarra entzuten zen. Partidari begira zegoen tabernaria, aho ertzean txotxa jarrita, bezero batekin jokaldirik txarrenak komentatzen.

Ez zirudien eszenatokirik egokiena maitasunaz hitz egiteko.

– Lotsa pixka bat ematen dit zertaz ari naizen azaltzeak, egia esan.

– Utzi, orduan.

– Hobe, bai.

Pintxo gutxi batzuk zeuden barran. Denak hestekiak: txorizo mutur lodiak, saltxitxoia, urdaiazpikoa... Beste izkinan gizon mehar bat makina txanponjalean, tarteka «qué hijaputa» esaten zuena.

Oliveira ohartu zen, Paulak hitz egitean ezkutatu egiten zuela sudurra, sudur oker hura. Agian norbaiti sudur itsusia irudituko zitzaion. Noizbait esan beharko zion sudur polita zuela, guztietan politena. Baina hori esateko garaia iritsita, agian ez zuen berdin pentsatuko, sudurraz nekatzen hasia egongo zen, eta iritsiko zen eguna sudurra bere maitasun desagertuaren aitzakia izango zena. Beti gertatzen zitzaion gauza bera. Akats txikiak erabiltzen ditugu geurea den hutsunea ezkutatzeko. Akatsak ez dira akats, maitearekin larrutan egiteko gogoa desagertzen den arte.

– Liburuena –esan zuen Oliveirak–, zera, zure amonak erositako haiek... nire lana da.

Neskak jakaren kremailera itxi zuen. Ileak mototsean bildu zituen gero.

– Lan hobea merezi duzu, ez duzu uste?

– Norbaitek ba al dauka ba merezi duena?

Hankak luzatu zituen Paulak. Bere buruaz harro egongo zen akaso, mutilari zenbat zekien azalduta ase.

– Hurrengo baterako pentsatuko dut horren erantzuna.

–19–

Egun batzuk igaro ziren, eta Oliveira bere bizitza horrenbeste aldatu izana madarikatzen hasi zen, arrantzale bati igeri ongi egin dezan eskatzen diotenean bezala. Nagi zegoen. Malenkonia txiki batez. Bizitza begien aurrean aurkezten zitzaion, eskaparate betean, baina Oliveirak ikusle izatearen erosotasuna atsegin zuen. Matxainera bizikletak ikustera joaten zenean, orduak eman zitzakeen tramankulu perfektuak diren bizikletei begira. Dendara sartzen zen eta ea bizikletak ikusmira zitzakeen galdetzen zuen. Bazekiten nor zen. Matxain bera egoten zen dendan, ziklista ona izandakoa, bere hanka okerrekin, betilun eta gaitzituta. Bizikleta berrien gurpilen gomazko arantzak zituen gogoko; tira egiten zien, gero esku-ahurra pasatzen zuen gomazko arantzen kilimak sentitzeko. Bizikleten galgei sakatzen zien, eta hauek azkar etortzen ziren atzera, malgukiaren indar leunaz. Galgaren kirtenak burdinaren kontra zarata txikia egiten zuen, zehatza, tak: harrigarria zirudien norbaitek torloju festa

distiratsu hura asmatu izana. Argazki handi bat zegoen horman: Matxain bera, zuri-beltzean, maldan gora, bizitza epika zen garaian.

Enekok idazle harekin biltzeko esan zionean poztu egin zen. Baina segituan desagertu zitzaion ilusioa, iritsi ahala ospa. Kikilduta geratu zen. Enekok idazlearen izena esan eta Oliveirak ezagutzen ez, nolako zaputza! Oliveirak bazekien zer sentitzen zen halakoetan, berari gauza bera gertatu baitzitzaion Oskarrekin, Zarate handiarekin izandako enkontruaren ondotik.

– Kristoren tipoa duk. Asko zakik –esan zion Enekok.

– Baina zer esango diot nik?

– Nahi duana, motel! Zergatik idatzi nahi duan liburua, adibidez.

Eneko Zippo markako txiskero batekin jolasean ari zen, esku bakarraz pizteko ahaleginean. Oliveirak Pasaiako portuko garabietan pausatuta zeukan soa. Oskar xake mugimendu batzuk buruz aztertzen ariko zen.

– Zergatik jartzen duk hik musika? –galdetu zion Oliveirak.

– Musika ona entzuteak zorionez betetzen nauelako.

– Jar ezak musika hire etxean.

– Jartzen diat, etengabe jartzen diat.

– Jar ezak heuretzat bakarrik.

– Niretzat bakarrik? Zergatik niretzat bakarrik?

– Zorionez betetzen hauena entzutea bada...

– Nire zoriona partekatzen diat. Besteentzat jarrita zoriontsu egin nahi nitizkek besteak ere. Horra arrazoi bat, oso altruista.

– Neskei larrutan egin ahal izateko jartzen duk musika, koletas –elkarrizketan muturra sartu zuen Oskarrek.

– Horretarako ere bai. Jakina, bai, hori garrantzitsua duk.

Antxon geldialdia egin zuen autobusak. Neska bat sartu zen atzeko atetik, haurrentzako orga batekin. Orga sartzen ari zenean atea itxi zuen gidariak.

– Aizu!, kontuz! –oihu egin zuen gizonezko batek, salto batez zutituta.

Atea ireki zuen gidariak, eta gizonezkoa berriz eseri eta jaka lisatu zuen, oihu egin izanak jaka zimurtu izan balio bezala.

– Diru pixka bat irabazteko, horretarako ere jartzen diat musika.

– Ez hadi gezurtia izan –kontra egin zion Oliveirak–. Zerbait gehiago bilatzen duk, diruaz apartekoa. Zerbait ona egiten ari haizela pentsatuko duk behintzat.

Masailak gorrituta zituen neskak. «A ze sustoa, e!» esan zion umeari. Umeak ez zuen imintziorik egin.

– Tabernetan entzuten den zaborra ikusita, zerbait ona jartzea ekintza etikoa duk –argudiatu zuen Oskarrek–: ekintza plastikoa, estetikoa eta patetikoa.

– Ez zakiat ona eta txarra musika neurtzeko hitz egokiak diren –gaztigatu zion Enekok.

– Ez hadi epela izan –esan zuen Oliveirak–. Txarra dena txarra da, eta kito. Eta kristorena dena, kristorena.

Oskarrek eta Oliveirak maiz ikusten zuten Eneko azkenaldian. Elkarri neurria hartzen ari ziren hirurak, zakurrek elkarri uzkia usnatzean

bezala. Agian ez zen haiek espero zutena; agian epela zen, errukiorra, on plantak egiten dituztenetakoa.

– Baina norbera ikusle hutsa denean errazagoa duk. Zerbait egiten hasten haizenean, zailtasunaz jabetzean, txar hitza gutxiagotan erabiltzen hasten haiz, zuhurtziagatik, besteek higatik horixe bera esan dezaketelakoan –defendatu zen Eneko.

– Ez hik egiten duana benetan ona bada.

– Zerbait ona egitea oso zaila duk. Eta zaila duk zerbait txarra egin izanaz benetan jabetzea. Hire liburu hori idaztean konturatuko haiz horretaz.

Oskarrek xake taula txikitik burua altxa zuen.

– Katekistari entzundako argudioa zirudik –esan zuen.

Oliveira atzeko atetik sartutako neska begiratuz urrundu zen kalakatik. Oskarren eta Enekoren artean segitu zuen solasak.

– Zer da musika ona hiretzat? –galdetu zion Enekok.

– Galdera horrek tranpa zaukak.

– Ez ba, galdera sinplea duk.

– Ez duk sinplea, ez. Musika bera definitzea ezinezkoa duk; bazaudek hitzez formulatu ezin diren gauzak, eta ezin da esan formulatu ezin daitezkeenez ez direnik existitzen.

Oliveirak ezagutzen zuen argudio klase hori. Irrati-formulan agertzen diren taldeek ere kanta *onak* egiten dituztela, horixe esan nahi zuen Enekok. Ezin dela esan kanta horien atzean dagoen jendea eskasa denik. Maisuak dira, mertzenarioak izanagatik.

– Zer da haizea? –galdetu zion orduan Oskarrek.

– Joder, zer galdera mota da hori?

– Galdera sinple bat, Eneko.

– Ez zakiat, ez zakiat zer kristo den haizea.

Apur batean isildu ziren.

– Zerbait txarra dela, edo, areago, musika bat puzkerraren zarata baino itsusiagoa dela esatea giza eskubide bat izan behar likek. Musikariek eskubidea zaukatek nahi duten musika egiteko, dela rocka dela bakailaoa; baina guk ez zaukaagu eskubiderik zarata hori kaka dela esateko? Pairatu bai, baina ezin diagu kexatzeko

oihurik egin, agian bihar geuk egiten duguna kritikatuko dutelako: ederra panorama.

– Esan nahi dudana duk, guk txartzat duguna beste batek ontzat jo dezakeela. Maiz gertatzen duk hori, eta horrek erakusten dik musika ezin dela horren modu sinplean sailkatu, atun laten moduan.

– Baina gustukoa izateak ez dik esan nahi ona denik. Gauza batzuk txarrak dituk, zatarrak, gaizki egindakoak, zintzotasunik gabeak; eta horrexegatik duk ona salatzea, egia bilatzea. Edozein sorkuntza baino garrantzitsuagoa duk egia. Areago: sorkuntzarik ederrena, justuki, egia duk. Edo egia bilatzea.

– Amen! –amaitu zuen Enekok.

Autobusa gelditu egin zen, gidariak bi bider jo zuen klaxona.

– Eta besteek berdin pentsatzen ez badute, ideia putarik ez daukaten seinale –esan zuen Oskarrek.

Enekok etsipenezko keinua egin zuen.

– Izan hadi zintzoa, Eneko; halakoxeak gaituk: pentsatzen dugun bezala pentsatzen diagu, eta norbaitek geuk bezala pentsatzen ez due-

nean, nahi gabe horixe sentitzen diagu: ideia putarik ez daukala. Beldurra ematen ziguk hala esateak, aitortzeak, itsusia delako, baina hala duk: ez zaukatek ideia putarik.

Purrusten klub txikira erakarri nahi zuten Eneko.

– Txorakeriak –txiskeroa sakelan gorde zuen Enekok–. Denbora gehiegi pasatzen duzue zuek elkarrekin.

Oliveirak gaia aldatu zuen:

– Zer esan behar zioat orduan hire lagun idazleari?

– Esaiok txarrak direla bere liburuak, ez daukala idazteko ideia putarik –erretxinduta zegoen.

– Ez zakiat zer esango diodan, baina behintzat ez zioat esango «orain arte idatzi ez dena» idatzi nahi dudala. Denek gauza bera esaten ditek, euren liburua literaturaren historian mugarri izateko sortu izan balitz bezala: «Orain arte ez zen horrelakorik egiten», tar, tar, tar.

– Nork esaten du hori? –galdetu zuen Oskarrek.

– Denek, denek esaten ditek hori.

Mirakruz kalea jaitsi zutenean (zenbatgarren aldia zen errepidea konpontzen ari zirela?), Grosen sartzean ikusi zuten itsasoa oldartuta zegoela, neguko haizeak zirikatua. Urdin turkesak eta arrakala zuriak agertzen zitzaizkion han eta hemen. Kotoizkoa zen zerua. Jendea aterkipean ezkutatua zihoan, norbait urrunetik geziak botatzen ariko balitz bezala.

Idazlea Barandiaran tabernaren terrazan jesarrita zegoen. Bulegaria ematen zuen, edo arrantzontziak miniaturan egiten zituen erretiratua. Eneko ikustean zutitu egin zen, paperezko zapi batez muturra eta eskuak garbitzen. Patata tortilla zati bat zeukan parean. Pozik zirudien enkontruarekin. Baina atsegintasun hark ikaratuago jarri zuen Oliveira; laster hasiko ziren galderak, idazlea pixka bat zapuztuko zen erantzunekin... Oliveira gaztea zen, ordea, eta gaztetasunari beti eskaintzen zaio tarte bat, txarra edo ausarta izateko aukera. Noizbait helduko delako promesak, noizbait jenioa izango delako ametsak dena estaltzen du, baita pixka bat zekena edo harroa izatea ere. Denek nahi lukete jenio

bat aurrean izan, «nik hasi berritan ezagutu nuen» esateko.

– Giro aparta dago! –esan zuen idazleak–. Nor da zuetatik idazlea?

Oskarrek xake taula madarikatua zabaldu zuen, elkarrizketak berarekin loturarik ez zuela agerian uztearren. Oliveirak listua irentsi zuen, txanoa zuzen jarri zuen buruan.

– Gauza txikiak bakarrik idatzi ditut.

– Denok idatzi ditugu gauza txikiak, asko edo nahikotxo argitaratuagatik. Merezi duen esaldi solteren bat... gehiago ez. Kantitateak ez du ezer ere esan nahi. Eta, esan, malaletxerik ba al daukazu?

– Ez dakit.

– Ba malaletxea behar da idazteko. Ez dizut gosea aipatuko, ez nuke nahi ni aguretzat hartzerik. Baina esateko zerbait izan beharra dago, bestela ez du merezi. Esan, noiz erabaki zenuen idazle izatea?

– Ez dut gogoan.

– Berdin dio. Emadazu zigarro horietako bat –kolpetxo bat eman zion ahoratu baino lehen–. *Noiz*... zer axola du horrek!

– Gustuko dudan liburu bat besapean hartzen dudanean –esan zuen Oliveirak– salbu sentitzen naiz. Autobus geltokian jartzen naiz liburua irakurtzen eta autobusak ihes egiten dit. Hantxe agertu da autobusa bere burrunbarekin, igo dira bidaiariak, joan da, eta ni ez naiz ohartu.

– Irakurtzea gustuko duzu orduan. Ez da beti hala izaten. Idazleek apenas irakurtzen duten.

– Ez da egia izango.

– Beldur diete besteen bertuteei.

Oliveira famaz gogoratu zen, Nastassiaren ipurmasailez. Baina ez zuen aipatu. Pentsatu gabe kontatu zuen autobusekoa. Ez zen gezurretan ari. Nazkatuta zegoen berez pentsatzen zuenaz haratago eskatzen zitzaiola sentitzeaz, bere fantasiez lotsatu beharraz. Ez zen eruditoa. Ez zekien ezer ere. Baina liburuak ziren huts egiten ez zioten bakarrak. Beti izango zuen haietara jotzeko aukera. Nork eskaini ziezaiokeen halakorik? Nastassiaren ipurdiak?

– Egunkarietan azaldu nahiko luke –esan zuen Oskarrek.

– Oskar! –errieta egin zion Oliveirak.

– Oraindik ez dakizu zer den prentsa. Dena gezurra! –salatu zuen idazleak–. Bi orrialdetara ekarria ikusten duzun idazlea, argazkietan harro eta hitzontzi, bakarrik dago. Testu bat dauka buruan, istorio bat, obsesio bat, baina inork ere ez dio jaramonik egiten. Inork ere ez du serio hartzen. Bere istorioaz lagunen artean edo etxekoekin hitz egiten duenean, ihes egiten diote. «Hasi da bere kontuekin» kexatuko dira. Egunkariko bi orrialdeak, horixe da idazleak hitz egiteko duen aukera bakarra; gainerakoan dena da basamortu bat. Egunkariak erreskatatzen duen une hori, gezurrezko une hori da gelditzen dena; baina idazleak goizeko bostetan jaiki beharko du, ordu pare batez idatzi eta gero lantokira, lanera! Jendea eskiatzera joaten denean, bera idaztera eseriko da; errieta egingo diote, ez duelako eguneroko bizitzan arretarik jartzen; txantxak egingo dituzte bere kontura. Liburua plazaratutakoan kasu pixka bat, bi astez sentituko da inportante, kritika on bat eta bi txar jasoko ditu eta, halako batean, isiltasunaren mailua eroriko zaio berriro gainera. Liburua dendetako apalategietan izango da hilabetez eta, akabo, desagertu egingo da

gero. Sei hilabeteren buruan inor ez da liburuaz gogoratuko. Idazlea bere mundura itzuliko da, bere obsesioetara, bere bakardadera, goizeko bostetara.

Trosta batean hitz egiten zuen idazleak. Esaldiaren azken zatiak abiada bizian botatzen zituen, amaiera buruz dakienaren moduan.

– Arrakasta mamu bat da, agerkunde baten antzekoa. Idazleak arrakasta izateko idazten du. Zertarako bestela? Bere buruari gustua ematearren? Ja! Idazleak irakurle asko nahi ditu, besterik ez. Eta bere testuez goza dezaten eta bere testuak goraipa ditzaten. Plazan agertzen denak hori bilatzen du: txaloak. Idazlea ere, bere intimitatean, txalo egindakoa da. Zeuk esan duzu, autobusaren istorioa kontatuta: liburuaren babesean, idazlearenganako maitasuna sentitzen duzu; txalo egingo zenioke geltokian eserita, eman dizun plazer handi horrekiko esker onez...

Pasio hutsa zen. Oliveirak beldurra izan zuen une batez, idazlea negarrez hasiko ote zen.

– Nolako txorakeriak esan ditudan! –irri egin zuen.

Hiru gazteek ere irriño bat egin zuten, gogo gutxirekin. Zerua berriz lainotu zen. Idazlea zigarreta itzaltzen ari zenean, Oskarrek xake taula itxi eta esan zuen:

– Arrakasta askoz ere ederragoa da kanpotik ikusita. Salingerrek ezin izan zuen arrakastaren lohi hura guztia jasan. Aio, utzi bakean! –gogoan Fischer zeukala zirudien–. Benetako kasta dauka hark.

– Zoro puta hori! –esan zuen idazleak.

Oliveirak idazlearen galtzerdi zuriei erreparatu zien. Pentsatu zuen idazle hura Sallieri zela, mundua Sallieriz beteta zegoela, eta Sallieri bezalakoa izango zela bera ere: tipo erretxindu bat. Eta segidan irudi izpi batean agertu zitzaion Nastassia: esnezko titiak, ardoa mahaian barreiatuta. Eta gero: autobusak alde egin zion irakurlea, han, geltokiko sehaska erosoan etzanda, errepideko burrunbaren aurrean soraio.

– Mirari batek baino ezin du idazlea osperantz eraman –esan zuen idazleak–. Gogoratu zaitezte irakurtzen hasi eta bukatu gabe uzten dituzuen liburu horiez. Batzuk oso txarrak, ados, beste batzuk eszelenteak, eta hala ere ezin izan zenuten

hamalaugarren orria gainditu. Beste batzuk eskuetan izan zenituzten, azala gustukoa zenutelako edo izenburua ezaguna egiten zitzaizuelako; baina azkenean apalategira itzuli zenituzten. Belarrira ezagunak egiten zaizkigun liburu asko misterio hutsa dira, ez dakigu zein soinu duten, zein forma duten, zein mezu dakarten. Duela berrehun urte Amerikako portuetan saltzen ziren esklaboen antzekoak dira liburuak: bezeroek planta begiratzen diete, hortzak eta hortzoiak, mihia, eskuak, hankak, eta haragi saldo haren erdian baten bat hautatzen dute, zergatik oso ongi jakin gabe, apeta hutsez. Ezinezkoa da liburu bat irakurri gabe bertan zer dagoen jakitea.

Idazleak zerbait atera zuen jakaren patrikatik. Txokolatezko gozoki txikiak. Mordoxka bat eraman zuen aho zulora.

– Musika: janari merkatua bezalakoa da. Denok dakigu zein zapore daukaten azenarioek, patatek, erremolatxek. Ezberdintasunak badaude, baina urriak izaten dira ezustekoak. Beethoven mundu guztiak entzun du, baina nork irakurri du Joyce? Inortxok ere ez. Biak dira historikoak, *kultoak*, baina Joyce hermetikoa da, grina es-

katzen du, pazientzia, sakrifizioa. Joyce esan eta denek pentsatzen dute: «Hara idazle bikain bat». Baina ez dakite morroi horrek westernak edo nobela arrosak idazten zituen. Mundu guztiak daki, ordea, Beethovenek ez zuela heavy metalik konposatzen.

– Ni ez nuke hori hain seguru esango –protesta egin zuen Enekok, baina ez zegoen jakiterik zergatik: edo heavy metalari buruzko komentarioagatik edo musika azenario batekin parekatu zuelako.

– Ez harrotu –esan zion Oskarrek–, zuk musika jarri besterik ez duzu egiten.

Orduan Enekok azaldu zuen sarritan azaltzen zuen gauza bera, akaso besteek ulertzen ez zutena edo ulertu nahi ez zutena; alegia, musika behin entzunda uste faltsu bat geureganatzen dugula, hain justu musika entzun izanaren ilusioa.

– Musika askotan aditu eta gero entzuten da zinez. Eta hala ere gehienok ez daukagu musika entzuteko gaitasunik. Belarriak izatea ez da nahikoa.

– Bada zerbait –erantzun zion Oskarrek–, betaurrekoak ez erortzeko balio dute behintzat.

Idazleak beste garagardo bat eskatu zuen, eta gazteei galdetu zien zerbait nahi ote zuten. Kafesne bat eskatu zuen Oliveirak, zerbitzariak irakiten ekarriko ziona.

– Badakit errespetagarritasunaren kontu horrekin ibiliko zarela bueltaka –esan zion idazleak Oliveirari–. Baina begira zer esango dizudan: atzera eta aurrera arropa garestiekin ikusten dituzun hauei guztiei ez zaie piperrik inporta zer egiten duzun, zein istorio asmatzen duzun edo asmatzen ez duzun. Egidazu kasu. Gehiago esango dizut: hemen paseatzen ibiltzeko denborarik eta dirurik ez duten langileei ere, ordu honetan aurpegia olioz edota eskuak porlanez zikinduta izango dituzten horiei, bost axola zure buruhausteak.

Hurrupa bakarrean hustu zuen basoa.

– Testuak kezkatu behar zaitu, ostias! Testuak! Idazleak ezin du aldez aurretik esanda dagoena esan, gauza berriak asmatzeko hautsi behar du burua. Zer uste duzu egiten dutela idazle handiek? Henry Millerren liburuetan beza-

la gela ilun batean alu bati harramazkak egiten dabiltzala uste al duzu? Horiek ez dute alurik urteetan usaindu. Ramon Saizarbitoria, Koldo Izagirre, Joseba Sarrionandia... horiek xanpaina edaten ibiltzen direla irakurri al duzu nonbait? Obsesionatuta, preso, orriaren aurrean ipurdia estututa, hala daude horiek une honetan bertan. Goethe, Flaubert, Tolstoi, Scott Fitzgerald, Faulkner... denak hain ezberdinak eta denak kezka beraren bazka: testua. Esnatu eta testua, jateko testua, bazkalostean testua, kaka egitean ere testua! Beste ezerk ez du axola.

Beste garagardo bat eskatzeko eskua altxatu zuen.

– Honek guztiak, edertasun ustezko honek, eguzkiak, itsasoak, zapata berriek, titi handiko turista ilehoriek, neguko parafernalia guztiak... horrek guztiak ez du distraitzeko baino balio. Dena da amarru bat. Badirudi geure eskura dagoela, zinez gu garela hemen bizi garenak, baina ez da hala. Herri hau antzoki handi bat da, fartsa hutsa.

Purrustekin gogaituta zegoen Oliveira. Galderarik egin gabe, aurreikuspen hutsetan babestu-

ta errieta egiten zutenak zoro jasangaitzak iruditzen zitzaizkion. Hura ote zen horrenbeste zekien idazle eruditoa? Utikan!

– Ohartu naiz –esan zion Oliveirak– ez duzula nire iritziei buruzko jakin-minik.

– Batere ez. Ez zait zeure iritzia zipitzik inporta. Badakit zer pentsatzen duzuen printzipianteek. Esaldi bat idatzi eta kanpaia jotzen hasten zarete, kexuka ez dizkizuetelako sariak ematen. Kaka idazten duzue eta ez zarete idatzitako kakaz kezkatzen, zuen kakari uko egiten diogulako baizik. Aspergarriak zarete.

– Idazlea izateko edukazio gutxi daukazu.

– Txalo egitea nahi al duzu?

– Ez, kontxo, baina ez dut ezer txarrik egin!

– Ezer txarra egin dezazun ekidin nahi nuke, hain zuzen.

– Umiliatuz?

– Umiliatua sentitu bazara, egia esan dizudan seinale.

– Egia esateko modu asko dago.

– Nik ez dut besterik ezagutzen.

– Ba baduzu adina.

– Horrexegatik, beranduegi egin zait ikasteko. Zu ordea garaiz zabiltza. Bizkarreko amultsuak ematen hasiko banintz, zure banitatea aseko banu, ez zenuke zaborra besterik idatziko. Zure zakilari begira biziko zinateke, hura nola handitzen den miretsiz. Erdipurdiko idazle andana dabil hortik. Niri ez zaizkit interesatzen. Agian zuk izango duzu talenturik zerbait esateko, baina ez niri kontatu. Eseri, sufritu eta idatzi. Horrek balio du. Hori da gailenduko dena. Orduan elkarrizketa hau oroitu eta pentsatuko duzu: egia zioen zoro malapartatu hark. Horixe bainaiz: zoro malapartatu bat. Zure adina nuenean *nouveau roman* eta halakoak egin nahi genituen, hemen ez baitzegoen ezer ere. Asmo handiegiak ziren, ordea, eta ez genion idazten genuenari erreparatzen. Zuek ez duzue halako zamarik. Baina hedabideen pozoiagatik itsututa bizi zarete. Literatura ez da idazmakinaz edo eskuz idazten duzun, gabardina edo koadrozko alkandora janzten duzun, leihotik New York edo Barakaldo ikusten duzun. Literatura testua da.

Oliveirari iruditu zitzaion ezingo zuela sekula zutitu, ezingo zuela handik ihes egin. Baina ordu-

rako ez zen haserre sentitzen. Barkamena eskatu gabe, barkamena eskatu zion idazleak. *Zoro malapartatu bat*, horixe esan zuen idazleak bere buruaz. Xelebrea zen. Zergatik ez ote zen fama handiko idazlea? Idazle handi batek bezala hitz egiten zuen behintzat.

– Idazteko ezabatzen jakin behar da. Hartu gaur egungo edozein liburu, eta konturatuko zara idazleak ez zuela hitzik ezabatu nahi. Hitzak ezabatzea ariketa osasuntsua da, baina idazleen tema itsugarria da: idatzitakoa gorde nahi dute, kosta ala kosta, idatzitakoa letra mordoiloa izanagatik, batere edertasunik gabea. Zergatik? Ez dutelako testuarekiko kezkarik, bolumenarekiko baino.

Idazleak kolpea jo zuen mahai gainean. Txokolatezko gozoki txiki bat aurkitu zuen tartean, ziztuan atera zen bala baten moduan eta lurrean jira-biran ibili zen luzaroan.

– Teatrora noa –desenkusatu zen–. Editore aspergarri batekin geratuta nago. Ezin diot hutsik egin –eta ospa egin zuen ezer ordaindu gabe.

Terraza aurretik jende apain askoa pasatzen ikusi zuten, denak ere tente, aurrera begira, ihesi ibiliko balira bezala. Horixe zen gizartea: jendea hara eta hona (eta teatrora), indiferentziaz, bakoitza bereaz kexu. Eta haien artean: idazleak. Zirkuetako elefante-gizonak, siamdarrak eta emakume bizardunak bezala, beren arrarotasuna erakusten, txanpona noiz eroriko.

–20–

Aurreneko soldata jasotzeko egunean Oliveira ez zegoen bereziki kontent. Poza... lagun ihesla-ri hura.

Beraunera oinez igo eta Oskarren etxe pare-tik pasatu zen; haragi egosi usaineko erlauntz hartan bizi zen, tropa osoarekin batera. Koldo Mi-txelena institutuan basket kantxan ikusi zituen ikasleak. Ehunka bider ibilia zen bera ere kantxa hartan, ez abilezia handiz; futbolean baino hobea zen behintzat saskibaloian. Tamalgarria da kiroletan txarra izatea: idazle bilakatzeko ata-riko aproposa, munduaren kontra arranguraz matxinatzen den gizakia izaki idazlea. Besteen-tzat erraza zirudiena egiteko gaitasun falta harri-garria zeukan Oliveirak; buruz bai jokaldi ede-rrak, baina burutik agindua besoetara edo zan-goetara helarazi orduko akabo; gorputz adarrak besteren baten buruak gobernatzen zizkiolako susmoa izaten zuen, beste partida batean eta, are, beste kirol batean ziharduen buru batek. Ze koordinazio falta!

Institutu aldameneko kafetegian ikasi zuen musean, belaunaldiko gehienek baino zatiaz lehenago, haiek unibertsitatera arte ez baitziren gezur eta amarrukerien jokoan trebatu. Goiztiarrak izan ziren Oliveira eta Oskar eskolatik baimenik gabe hanka egiten. Bi bidaide aurkitu zituzten euren abenturetan, oiartzuarrak biak: Juan Kruz eta Ismael. Musean hiru urterekin hasitakoak ziren haiek, baratzean eta ehizan bezala. Adiskide onak egin ziren, elkarren artean arrotzak izan arren. Juan Kruzek, gainera, urdaiazpiko ogitartekoa ekartzen zuen egunero, amak goizean zartaginean frijitutakoa. Hamaikak iritsi orduko haginak izerditan jartzen zitzaizkion Oliveirari, gutizia hura gogoan. Egunero kentzen zion mokadu bat eta egunero haserretzen zitzaion Juan Kruz: «Alde egintzak hemendik!».

Oliveirak institutuan hasi bezperan egin zuen bere bizitzan aurrenekoz bibotea. Erabaki azkarra izan zen, oso ondo neurtutakoa. Bazekien bibotea kentzen bazuen iseka egingo ziola Oskarrek, baina era berean bazekien institutua sudurpeko itzal harekin hasten bazuen, eskolak hasita

tokatuko zitzaiola bibotea egitea, eta orduan eskola kide guztien aurrean eman beharko zituela azalpenak. Eta ez zuen arrazoirik falta. Banakabanaka ikasle guztiei iritsi zitzaien besteen txantxak entzuteko trantzea. Juan Kruzi salbu. Sekulako bibotea zeukan Juan Kruzek, sarria, urte osoan kendu ez zuena. Axola ere gutxi. Uda pasata bibotea egingo zuelakoan zeuden denak, baina uda pasa eta ez zen itzuli, Lanbide Heziketara aldatu baitzen, Martutenera. Ez zuen mediku izateko asmorik, zertarako denbora galdu. Trigonometria ikastetik libratu zen behintzat.

Behin edo behin kalean aurkitu zuen Juan Kruz, eta inoiz ahaztuko ez zuen gauza bat esan zion:

– Lehen bakarretakoa ninduan piper egiten. Orain bakarretakoa nauk klasera agertzen, pentsa ezak.

– Eta zer egiten dute klasetik kanpo?

– Makilaz autoetako kristalak puskatzen zizkietek irakasleei.

– Basapiztiak! –Oliveirak pentsatu zuen unibertsitatea baino toki probetxugarriagoa izango zela hura.

– Ez, basapiztia ni nauk. Horiek astakirten koadrila bat dituk, deabru putaseme batzuk.

Oliveira, badaezpada ere, ez zen ausartu amari esaten Martuteneko eskolan benetako gizonak hezten zituztela (eta ez unibertsitate txatxuan, jende otzana ekoizteko fabrika hartan).

Pena sentitu zuen ikasle gazteak kantxan ikustean, igual ariko ziren pentsatzen latineko klaseari izkin egiteko aitzakiaren bat, aitaren sinadura imitatzeko artea ikasten, auskalo. «Irakasle jaun agurgarria, nire seme Mikel gaixo dagoela esateko idazten dizut, horregatik egin duela huts matematikan azken sei klaseetan» eta abar. Infernua.

Vivaldi taberna aurrean aurkitu zuen Oliveirak Universal Fundazioko bere koadrila. Tinoren bulego ibiltaria (autoa) zabalik zegoen, eta inguruan hainbat kaxa. Itxura txarra zeukan enpresa hark, urrutitik antzematen zitzaion.

Koro kaxetako batean arakatzen ari zen. Burua altxatu zuen Oliveirak agurtu zuenean:

– Ez dut uste hor ezer aurkituko duzunik.

– Kaixo... –musu gorrituta erantzun zion Korok.

Postura hartan ipurdia muturren aurrean erakutsi baitzion, Korok berehala asmatu zituen Oliveiraren pentsamenduak. Gizakia da abere guztietan ipurtzuloa ezkutatzearren bere morfologia aldatu duen bakarra. Ez da txikikeria bat. Sexuaren inguruko mitologia osoa elekeria hutsa izango litzateke, ez balitz elkarren bizkarra ikustean, uzkiaren ordez, haragizko obra bikain hau ikusten dugula, bizkarraldearen amaierako bihurgune preziatu hauek. Kontuz ipurdiaren ahalmena gutxiesteko joerarekin.

Auto barrendik atera zen Tino, paper mordoa eskuetan. Kartazal bat eman zion Oliveirari: lehenengo soldata! Ez agiririk, ez sinadurarik, ez protokolorik. Lege zaharra. Oliveirak kartazala haztatu zuen: ez zirudien milioi asko zegoenik. Zabaldu zuen: 45.000 pezeta.

– Hau al da dena?

– Zure salmentak dira –erantzun zion Tinok.

– Eta soldata?

– Soldataz hitz egin al genuen ba?

– Aberastu egingo nintzela esan zenidan. Zer ostia da limosna hau?

– Aberastuko zara, Raul. Baina tema gehiago jarri beharko duzu lanean. Mario Conde aberats jaio zela uste al duzu? Mario Conde enkarguak egiten hasi zen...

Lankideekin bazkaldu ez izanagatik, artaldetik ateratako ardiari jarritako zigor eredugarria besterik ez zen hura.

– Ni ez naiz pailazo hori bezala ilea olioz beteta sekulan ibiliko. Horrek amabirjina ere puta sartuko luke sos batzuk irabaztearren. Ez niri halako jendaila eredutzat jarri, faborez.

– Bale –esan zuen Tinok–, beste adibide bat jarriko dizut...

– Ez lanik alferrik hartu –eten zion Oliveirak–. Justua dena besterik ez dut nahi. Lanean irabazitakoa.

– Hortxe eman dizut irabazitakoa.

– Honekin ez daukat urratutako zapatak erosteko ere.

– Zapata italiarrak janzteko ez –esan zuen Tinok–, horiek janzteko amabirjina saldu beharko duzu!

–Grazia putarik ez daukazu!

Tinok besoak zabaldu zituen:

– Oliveira, Oliveira, ez zaitez horrela jarri. Ba al dakizu zenbat saldu duten horiek? Ez zenuke jakin nahiko. Zu baino askoz ere gehiago saldu dute. Ez dute kexurik. Baina utzidazu gauza bat esaten: zu eurak baino hobea zara. Ez zaude kontzentratuta ordea. Ez duzu sinesten!

Horiek beste lankideak ziren, une hartan zeharka begiratzen ari zirenak.

– Ezin dut zu baino bizkarroi handiagorik imajinatu –esan zion Oliveirak.

Tinok ezpainak estutu zituen. Biboteak dardara egin zion.

– Zeure burua engainatzen duzu horrela hitz eginez zerbait irabazten duzula pentsatuta. Orain harro egongo zara, baina bihar lan bila hasi beharko duzu berriz. Eta zer daukazu? Zer ikasi duzu, harroputz jauna? Nork nahi du zu bezalako mutil zahar eta bakarti bat bere ondoan?

Touché.

– Zurea bezalako lan beltzak erruz aurkituko ditut, Tino, hain justu hauek dira inork nahi ez dituenak. Material astuna eta baldarra, eta ugazaba eskasagoa.

Eskasa hitza da gizakiari hobekien egokitzen zaiona: kaskarra, txarra, okerra.

– Ugazaba eskasik ez dago, saltzaile traketsak asko.

– Saltzaile ona izateko lapurra izan behar da. Nik etika gehiegi daukat.

– Etikak ez du jaten ematen.

– Ezta zure limosnak ere.

– Ez dut eztabaidatu nahi, Oliveira. Horiek gustura daude euren sariarekin. Zuk ikusi: lanean jarraitu nahi baduzu... Serafin Sierra kalea egokitu zaizu gaur, eta bazkaltzeko betiko tokian egongo gara.

Horixe zen dena: ezberdina besteen mailara ekartzeko setakeria.

– Joan zaitez gregario horiekin zu zeu. Nik amaitu dut.

Marrazoen bizkarraren kolorea zuen zeruak goizeko bederatzi eta erdietan. *Egunkaria* erosi eta kafea hartzera joan zen, denbora pixka bat egitearren Zaratetarren etxera joan aurretik. Kontuak argitzeko garaia zen.

–21–

Gabrielak atea ireki zionean Oliveirak pentsatu zuen etxera itzultzea moduko bat zela hura. Zakurrak Oliveiraren inguruan itzuli bat egin zuen eta Gabrielaren atzean jarri zen berriz zelatan. Zopa usaina zegoen han ere.

– Idazle jauna! –esan zuen Gabrielak–. Nolatan hemen?

Ez zuen halako galderarik espero.

– Bueno, hemen barrena nenbilen eta igotzea bururatu zait, liburuak ondo iritsi ote zaizkizun jakiteko.

Gabrielak aurpegia ilundu zuen:

– Bisitan zentozela uste nuen.

– Horretara ere bai.

– Ba orduan ordena gaizki aukeratu duzu: aurreneko gauza pertsonak dira eta gero lana –barre txiki bat egin zuen, karminez zikindutako hortzak agerian utziz.

– Arrazoi osoa duzu.

– Zatoz Jose agurtzera.

Zarate jauna ohean etzanda zegoen, beti bezala baina pixka bat harrizkoagoa. Azkazal luze-luzeak zituen gizajoak. Oliveirak higuina sentitu zuen.

– Egun on –esan zuen, behartuta.

Jaka erantzi eta alkandoraren goiko botoia askatu zuen Oliveirak, lanean goiko botoia lotuta ibiltzen baitzen, alkandoraren azpiko elastikoa ikus ez zedin.

– Kafea ekarriko dut –esan zuen Gabrielak, eta Oliveira bakarrik geratu zen.

Bigarren aldia zen zaharrarekin bakarrik geratzen zena. Iruditu zitzaion, pintore zaharra esnarazteko modua izan zitekeela labanaz koadroak txikitzen hastea. Akaso salto batez altxatuko zen pintorea. Edo ez, akaso hortxe bertan amaituko ziren artistaren sufrikarioak (eta baita Gabrielarenak ere).

– Paulak esan zidan elkar ezagutu zenutela –Oliveira maltzurkeriak pentsatzen harrapatu zuen Gabrielak.

– Esan al zizun etorri nintzela?

– Bai, eta errieta egin nion esan zizunagatik. Utzidazu neure dirua nahi dudan bezala gastatzen, halaxe esan nion.

– Ez zenioke errietarik egin behar...

– Trepeta horietan trebatzen hasi zarela ere aitatu dit.

– A, bai, ordenagailuan –poztu egin zen Oliveira, Paula kontu kontari aritu zitzaiolako amonari.

– Paulak badu horietako bat. Dirutza balio dute, eta zer egin horiekin?

– Noizbait dena egingo dugu trepeta horiekin. Egunkarian irakurri nuen duela gutxi.

– Zer da *dena* ordea?

– Ez dakit. Horixe jartzen zuen: *dena*.

– Paulak orduak ematen ditu, ez dakit zertan. Nik jakingo banu.

Beheko ezpainak dardara egiten zion kafea zerbitzatzean, negarrez hastear balego bezala.

– Eta? Zer moduz doaz salmentak?

– Gaizki.

– Lastima.

Gelatinazko begietatik irriñoa egin zuen, eta samurtasunaren ezkutua baliatu zuen gaia aldatzeko:

– Orduan... zer iruditu nire biloba?, ez al da polita?

– Bai –onartu zuen, «txoratuta nauka!» ezin esanik.

– Politagoa izango litzateke apainduko balitz. Baina bere xarma galduko luke, bere zera berezi hori, badakizu...

Eguzkia sartu zen leihotik, ia etzanda.

– Ona da, baina ez da ergela. Ba al dakizu zer den hori? –esan zuen Gabrielak–. Neska jatorra da, eta argia –eta bi hatz erakutsi zizkion Oliveirari–: biak aldi berean. Bera ere galduta dabil, zu bezala. Mundu hau ez dago zuentzat egina, ez horixe.

– Niretzat ez behintzat.

– Beretzat ere ez. Gurasoek hona bidali zuten, Lehen Mundura. Eta zer dauka hemen? Konputagailu bat!

Gorputz eder bat ere badauka, pentsatu zuen Oliveirak, jateko modukoa.

– Lan ona dauka. Eta lankidea ere bai... betaurreko moderno batzuekin. Ez dut halako betaurrekorik inon ikusi.

– Eta zer dute ba betaurreko horiek? –jakin nahi zuen Gabrielak.

– Buddy Hollyrenak bezalakoak dira, baina modernoagoak...

– Woody Allen esan nahi duzu.

– Ez, Buddy Holly. Allenek ere baditu, antzekoak nahi baduzu, baina zatarxeagoak... Ruper Ordorikak ere halakoak ditu. Beti izan ditu halakoak.

– Nork?

– Ruperrek.

– Ez dakit nor den.

– Kantari bat.

– Kantari gutxi ezagutzen dut.

Leihotik sartzen zen eguzki argiari begira geratu zen, eta gero esan zuen:

– Ederki da. Ainara, bai, neska maja da.

– Nor?

– Ainara, betaurrekoduna.

– Bai, hala dirudi.

Gabrielak kontuak entzun nahi zituela konturatu zen Oliveira. Goizeko iskanbila kontatu zion, xehetasun guztiekin, xehetasun batzuk puztuz noski, okertuz, zorroztuz. Ez zuen emakumea inpresionatzeko aukera alferrik galduko. Froga gisa sobrea atera zuen, jaka barruan tolestuta zeramana. Bertolt Brechten teatroko pertsonaien antza izan zuen une batez, Gabrielak berak oparitutako txanoa mahai gainean, limosna hura aldamenean... Bereziki txundituta geratu zen bulego ibiltariaren kontuarekin, ezin zuen Tinok dena autoan zeramala sinetsi, itsusiegia iruditzen zitzaion:

– Ilegala behar du.

Lanaz hitz egin zuten. Gabrielak pasta batzuk atera zituen, daniarrak. Oliveirak antsiaz hartu zituen. Eta zakurrak ere jan zituen, ia Oliveirak baino gehiago.

– Mesede bat eskatu nahiko nizuke –esan zuen Gabrielak–. Erosketa batzuk egin behar ditut.

– Bai, neu jaitsiko naiz.

– Botikara joan behar dut.

– Esan zer erosi behar dudan...

– Ez, ez, botika asko dira. Erotuko zinateke.

– Lagunduko dizut orduan.

– Horixe da kontua: Joserekin norbaitek egon behar du.

Orduantxe geratu zen, hirugarren aldiz, egongela hartan bakarrik. Jose Zaratek ez zirudien oso kezkatua, nahiz eta etxean halako isiltasuna zabaldu zen, hautsaren moduan erori zena altzarien gainean.

Hauspo mekanikoak agurearen arnasa ematen zuen. Hantxe zegoen artista: lo eternalean murgilduta, errauts kolorez margotua, burusi koadrodun batez estalia.

Zein bitxia gorputz mortuan alferrik geratzen den bizitzaren tema.

Zigarro bat piztu eta bueltaka hasi zen Oliveira. Alderrai. Bake santuan utzi zuen Zarate eta etxean barna lerratu zen. Zein ote zen Paularena? Ate bat zabaldu zuen: oihal ubel batez estalitako ohe handia, koadro pisu bat hormaren erdian. Gabrielaren gela zen. Errezelak lurreraino iristen ziren, palazioetan bezala.

Beste ate bat zabaldu zuen ondoren. Paularen gelan sartu zen. Ohean eseri eta maindireen

azpian sartu zuen eskua: hango leuntasun hotza, usain gozoa. Ohearen aldamenean akordu batzuk: postalak, paper txatalak, argazki zaharrak. Neska-mutilak ageri ziren denetan: hondartza, mendia, zelaia, hiria... bizitza oparo eta aberats baten arrastoak, denak han zintzilik, mundu debekatu baten lekuko. Eta nor zen bera, Oliveira, eskua ohearen barruan, argazki horiei begira: lagun arrotza. Festetan zokoren batean garagardoa eskuan isilik geratzen den voyeurra. Haren ohean eserita egonagatik, ezinezkoa iruditzen zitzaion Paula zen zera abstraktu eta konplexu horren baitan sartzea, ameskeria bat. Eta orduan Oskarren hitzak gogoratu zituen, han, gau amaiezin haietan taula ongi begiratzeko esaten zionean, tentuz, arretaz, eta pieza guztien artean zein hautatu ondo pentsa zezan agintzen zionean, eta hura nora mugitu, kontua ez baitzen mugimendu bakarraren eragina kalkulatzea, mugimenduak elkarren artean ongi lotzea baino: «Laukien jabetza lortu behar duzu, erregea lauki gabe uztea baita garaipena, gutxika itotzea, ihesbiderik gabe uztea». Kontrarioak ere mugitzen du, jakina, baina hark baino hobeto

egitea da gakoa, hari erasoa geratzeko denborarik ez ematea, alegia. Errukirik ez izatea, bidean ez galtzea, ez kikiltzea, ez lotsatzea.

Erraza da bidean izuarekin topo egitea, arerioak jokaldi erabakigarriak sortzeko gaitasuna izango duela pentsatzea (sinestea), eta uste horren menpe jokaldi baldarrak egitea, inora ez zaramatzatenak, eta hurkoak hain justu jokaldi horiek baliatzea abantaila hartzeko.

Ezer ez da betiko, ezta porrota ere.

Beltzarana eta intelektual plantakoa zen argazkietan gehien errepikatzen zen gizasemearen itxura. Ariel izena izango zuen, edo Daniel, edo Dario, edo Diego agian. Lotan ere hitz egiten duten sasi-poeta handiki eta kurtsi horietakoa izango zen. Aise irudika zezakeen morroia bere burua goraipatzen, bere ertainkeria guztia mozorrotzen. Arerio gaiztoa, inondik ere, gezurti profesionala. Kanpalekutan, gauetan denak gogaitzen ibiliko zen gitarrarekin, ziur, Silvio Rodriguezen eta Victor Jararen abestiak hankaz gora jartzen, astoen arrantzak baina zarata handiagoa egiten. Gaspar aldean halako ugari ibiltzen zen, eta eurek eramaten zituzten neskarik ederrenak

beti. Oskarrek eta Oliveirak bazekiten funtsean ez zutela ezer ere gordean, baina neskak ez ziren ohartzen, eta ohartzen baziren ez zirudien ardura zienik. Hortxe zegoen, beti erdi-erdian, larruzko lepoko hippy hura zintzilik.

Haurrentzako altzariak zeuzkan Paularen gelak, urdin kolorekoak. Idazmahaian ordenagailua, itxura ederrekoa: sofistikatua eta teknologikoa oso. Pizteko grina segituan baztertu zuen Oliveirak, arriskutsuegia zen (ez zekien tramankulu haiek nola itzaltzen ziren). Liburuen artean: John Kennedy Toole, Italo Calvino, Mario Benedetti, Albert Camus, Henry Miller, Patricia Highsmith... Ez zegoen gaizki, liluratzekoa ez bazen ere.

Irri txiki bat egin zuen diskoen artean Silvio Rodriguez aurkitu zuenean, baina segituan seriostu zen, argazkiko mutila oroituta. John Lennon (Beatlesen diskorik ez), Joan Baez, The Cure, REM, Serge Gainsbourg... Ez zen disko dendetan ale bitxiak bilatzen ibiltzen zenetakoa, baina Elton Johnen diskorik ez zeukan behintzat. Grabatu ziezazkiokeen diskoen zerrenda egiten hasi zen: Cat Stevens, Willy DeVille, Miles Davis, Tom

Waits, M-ak eta Jotakie grabatuko zizkion, eta *The Big Blue* filmeko soinu banda, etxetik mugitu gabe bidaiatzeko inoiz sortutako diskorik hoberena. Bere ipurmasailak muturren aurrean izatekotan edozein musika izango zen egokia hala ere. *Edozein*. Baita Duncan Dhu ere.

Emakume baten erretratua horman: beltzarana, fusila eskuan.

Armairuetan miatu zuen, jantzien artean. Dozena bat zapata pare, jakak, berokiak, alkandorak, txaketak, elastikoak... ez zirudien gainerako nesken armairuen oso ezberdina. Ez zuen ulertzen nolatan izan zezakeen pertsona bakar batek horrenbeste jantzi. Bi bizitza beharko zituen trapu haiek guztiak janzteko. Kulero bat eraman zuen sudurrera, baina bidearen erdian errudun sentitu zen, eta atzera berriz utzi zuen tiraderan. Armairua itxi eta karpetetan arakatzen hasi zen. Gero armairua zabaldu zuen berriz eta lehen ateratako kuleroa hartu zuen sudurrera eramateko. Lixiba usaina zeukan, noski. Etsigarria al zen? Ez eta bai.

Ohean etzan eta une batez buruz gora geratu zen. Zer pentsatzen ari zen? Ezer ere ez. Ba-

tzuetan, *zerbait pentsatu behar* zuenenen bereziki, Oliveirak ez zuen ezer pentsatzen, eta horixe esaten zion bere buruari: ez naiz ezer pentsatzen ari.

Gabriela etxera itzuli zenerako Jose Zarateren ondoan liburu bat irakurtzen ari zen Oliveira. Ahal zuen itxura patxadatsuena erakusten ahalegindu zen. Ez zen aktore txarra.

– Aspertu egingo zinen...

– Ez, ez, edozer gauza irakurtzen entretenitzen naiz.

– Bazkaltzera geratuko zara, ezta?

– Ez nuke abusatu nahi –begiak igurtzi zituen, ezkutatzearren.

– Ez zaitez mozoloa izan. Xerrak erosi ditut hirurontzat.

Korridorean barna emakumearen atzetik joan zen Oliveira, ezetz esateko zirrikituren baten bila. Zakurra segika zeraman emakumeak. Oliveirak Gabrielaren poltsak hartzeko keinua egin zuen, baina korridorea estuegia zen eta zakurrarekin estropezu egitea besterik ez zuen lortu.

– Ez nuen uste Josek xerra jan zezakeenik.

– Ez zaitez mozoloa izan –bigarrenez esan zion Gabrielak–. Paula, zu eta hirurontzat erosi ditut xerrak.

Sukaldeko leihoak patiora ematen zuen, irrati baten hasperenak ailegatzen ziren.

– Zarateren bizitza idatzi nahiko nuke –aitortu zion Oliveirak.

– Joserena?

– Bai.

Labana eskuetan geratu zen Gabriela. Estreinako aldia zen Gabriela zalantzan ikusten zuela. Segundoak luzatu ziren orduan, patioko irratian albiste inportante bat ematen ariko balira bezala: Parisen lurrikara bat! Gabriela iraganeko ateko harritzarra mugitzen ari zen bere buruan, han, barruko iluntasuna berriz argitzekotan. Bidaia astunegia izango zen agian, isiltasunean egitekoa. Eta iraganerako bidaia horretatik bueltan, etorkizuna irudikatuko zuen Gabrielak. Iraganarekin gogoetan aritzeak beti baitarama etorkizunera. Iragana etorkizuna da, baina alderantziz begiratua.

– Ez dakit interesik ote duen. Badira margolari hobeak.

– Baina nik Jose Zaraterena idatzi nahi dut. Zurea eta berea.

Lapiko bat urez bete eta sutan jarri zuen.

– Eta zergatik ez duzu ba zeure bizitza kontatzen?

– Norberak ezin du bere bizitza idatzi, ez bada zaharra edo ospetsua. Zaharrek eta ospetsuek idazten dituzte euren bizitzak.

– Eta zer axola zaizu zuri besteek zer egiten duten? Ez da beti besteek zer egiten duten begira ibili behar. Alferrik da. Bakoitzak bere bizitza dauka –Gabrielak bizkor erabiltzen zuen labana–. Niri zure bizitza interesatzen zait. Joserena ezagutzen dut. Eta nireak ez du piperrik axola.

Mahai gaineko ogiari begiratu zion Oliveirak. Bizitza emango zukeen puska batengatik.

Gabrielak ikaratuta zirudien, pirañaz betetako putzu batera bultzatzen ariko balira bezala. Beste nonbait zegoen, bere akorduak antolatzen, benetan gertatutakoak eta oroitutakoetatik asmatutakoen artean bereizi nahian. Kontatuko al zizkion atelierrean izandako maitasun saioak, hormaren kontra arroparik gabe, margolariak hatz zikinekin egindako laztan hezeak, basatiak.

Ez, hori ezingo zuen kontatu. Beti gertatzen da, ezin dela kontatu garrantzitsuena, ustez salgarriak diren azaleko kontuekin betetzen direla akorduen kronika zuri eta zintzoak.

– Lasai egon zaitez –esan zuen Oliveirak–, ez dugu eskandalurik sortuko.

– Eskandalua? Zergatik diozu?

– Esan nahi dut ez dudala ezer intimoa idatzi nahi. Hori zuen artekoa da.

– Gure artean jada ez dago isiltasuna baino. Liburuek, gainera, ez dute eskandalurik sortzen –algara bat egin zuen Gabrielak, eta Oliveirarengana itzuli zen labana eskuan–. Nahi duzuna kontatuko dizut.

– Benetan?

– Bai. Gogoratzen dudana: gauza solteak, argazkiak balira bezala. Eta esaldiak. Elkarrizketa osoak, luzeak eta antzekoak ahaztu. Nik esaldiak gogoratzen ditut, eta ez garrantzitsuak zirelako, ez. Ez dira esaldi handiak, baina igual uneak dauka garrantzi handiagoa. Askotan une garrantzitsuetan tentelkeriak esaten dira, eta gero horiek geratzen dira gogoan: tentelkeriak. Esaldi handiak, entzun orduko betiko gorde nahi geni-

tuzkeenak, horiek ahaztu egiten dira. Zer egingo zaio.

Arrautzak eta patatak uretan sartu zituen Gabrielak.

– Esaldi handiak zeuk asmatu beharko dituzu.

Oliveirak eskuak igurtzi zituen. Oskarrek bazuen grabagailu bat. Oskarrek beti izaten zituen halako gauzak: lo-zakua, Nintendoa, Nike oinetakoak, gitarra, gelan idazteko mahaia, eskiak, mendiko bizikleta (eta txirrindulari jantzia), zulorik gabeko galtzerdiak, bideo-kamera, urpekari betaurrekoak... munduan ibiltzeko zera ezinbesteko horiek. Oso txikitatik zekien Oskarrek dendena eskura izateko zortea zeukala, urtero aldatzen baitzuen inauterietako mozorroa. Egon litezkeen pertsonaia guztiak pasatuak ziren Oskarren soinetik: piratak, bakeroak, Sinbad kapitaina, Donald, Bonaparte, Sid Vicious, Chaplin... Oliveira, aldiz, urtero joaten zen betaurreko sudurdunarekin eta bi pistola horiekin. Zoritxarreko egun batean Urbieta jostailu-dendan erosi zituen Maitek, inoiz besterik erosteko asmorik gabe. Oliveirak bazekien halako portaera ulertzea ezinezkoa izango zitzaiola, amak berak bere ekin-

tzak epaitzeko miopia erabatekoa zuenez, eta beraz autokritikarako ezintasun kronikoa.

– Zertaz mozorrotuta zaude? –galdetzen zioten Oliveirari.

– Bakeroz.

– Sonbreirurik gabe bakeroz? Zer bakero klase zara zu?

– Sonbreirurik gabeko bakeroa. Makina bat daude horrelakoak.

Urtero gauza bera. Aspertuta zegoen, baina azkenean nahiago zuen betaurreko madarikatuak eta bi pistola haiek eraman, ezer ez eramatea baino. Oraindik etxean gelako argazki multitudinario horietako bat gordetzen zuen, printze eta erregeen artean bera, galtza bakeroekin eta mozorro baldar harekin.

Lepoa egingo luke Oskarrek grabatzeko bat bazuela.

Etxeko atea entzun zenean zutitu egin zen Oliveira. Paulak aupa esan zuen beste puntatik eta bere gelara joan zen. Gabrielak oihu egin zion sukaldetik:

– Bisita daukagu!

Paulak burua sartu zuen sukaldeko atean. Poztuko al zen? Ez, erotzat hartuko zuen ziur! Baina... irribarre egin zion:

– Liburu gehiago ekarri al duzu?

– Ez, ez. Zu etorri behar zinela jakinik...

– Hobe duzu! –mehatxu egin zion atzamarraz.

Hatz hura eskuan izan zuela oroitu zen Oliveira, eskuan geratu zitzaiola Paularen ahoko listua.

– Hemen bazkalduko du –iragarri zuen Gabrielak, Oliveiraren urduritasuna antzemanez.

Mahaian eseri zirenean zirrara txiki bat sentitu zuen Oliveirak, pozaren gertuko zerbait, baina ez urduritasunik gabekoa. Lotsatia zen, ezin zuen saihestu. Mahaiko bi emakumeak arruntak izan balira, ametsetan zegokeen ordurako, Oliveira idazleari lumadunen batek egindako elkarrizketa horietako batean lotuta, baina bi emakumeak ez ziren edozein. Hantxe zeuden, entsalada zerbitzatzen, letxuga pixka bat, arrautza, azenario xehatua, erremolatxa eta sagar zati batzuk, denentzako berdin, inor ez zedin gosez geratu. Bazekien biak zertxobait antzezten ariko zi-

rela, keinu lasaiak galduko zituztela bere aurrean, baina okasiorako dotoretutako keinuen atzean ikus zezakeen euren arteko harremana, senidetasunaz haragokoa.

– Zure aitonaren bizitza idatzi nahi omen du honek –esan zuen Gabrielak.

– Horregatik nago hemen –esan zuen Oliveirak.

– Ez duzu aitzakiarik behar hemen egoteko –esan zion Gabrielak.

– Mila esker. Niretzat garrantzitsua da liburu hau.

– Zergatik? –galdetu zuen Paulak.

– Margolari bikaina eta ezezaguna delako.

Paulak harriduraz begiratu zion amonari.

– Margolari ona bai. Bikaina ez dakit –zuzendu zion Gabrielak–. Ezta Paula?

Paulak serio begiratu zion amonari.

– Zuek biok –esan zuen–, zuek biok nirekin bukatuko duzue.

– Ez al duzu liburua idazterik nahi? –galdetu zuen Oliveirak–. Nahi ez baduzu ez dut idatziko.

– Nolatan ez du ba nahiko –esan zuen Gabrielak.

– Niri berdin zait. Ongi iruditzen zait. Zuen kontuak dira.

Kakalardo baten pareko sentitu zen Oliveira, baina irribarrea ez galtzeko ahalegina egin zuen.

– Aitzakia bat da –esan zuen Oliveirak–. Zerbait librea egingo dut, inor ez konturatzeko modukoa...

Eskuak mahaian paratu zituen Paulak eta, asko gerturatuta, esan zuen:

– Ongi iruditzen zait, benetan, lasai.

– Bale, lasai nago.

– Hori da. Ederki –esan zuen Gabrielak.

Gabrielaren patatak antologikoak ziren. Gehiago eskatzekotan izan zen Oliveira.

– Bikainak dira patata hauek.

– Munduko onenak –zuzendu zion Paulak.

– Bai, munduko onenak. Dudarik gabe.

– Isildu zaitezte behingoz –kafea prestatzen hasi zen Gabriela.

Paulak kexu egin zuen, uzteko berak egingo zuela, baina Gabrielak keinu batez uxatu zuen. Esku dardaratiaz kafetera bete zuen, eta gero Oliveirari eman zion estutu zezan.

– Ikusten? –esan zuen Paulak–. Amonak ongi daki zer den bizitza. Gizon bat etxean badago, hura etxeko sentiarazi behar du.

Gabrielak sudurretik haizea bota zuen. Ezetz egin zuen buruaz.

– Zuk kontatuko al diozu zeuon istorioa? –galdetu zion Paulak.

– Lehenago hilko naiz –esan zuen Gabrielak.

Mantso eseri zen Oliveiraren aldamenean.

– Paulak kontatuko dizu. Neska jatorra da, eta polita, oso polita.

– Ez dut inoiz ederragorik ikusi –esan zuen Oliveirak.

Gabrielari begiak busti zitzaizkion. Horra, bere aurrean, lasai hiltzeko arrazoia haragi bilakatuta (lasai hiltzerik baldin badago behintzat).

– Neska argia gainera. Lastima gizonentzat egindako mundu honetan bizi beharra.

Postrerako mandarinak jan zituzten. Gero Paula oinutsik jarri zen sofan, hankak bilduta, eta amonarekin hitz egin zuen lagunak balira bezala. Horixe zen *etxean egotea* eta ez norberaren etxean gonbidatua izatea. Gurasoak bisitan etorriko balira, agian, Paulak ez zituzkeen oinak

sofan jarriko, edo jarriko balitu amak errieta egingo ziokeen, eta Paulak kendu egingo zituen, amek ez baitituzte aginduak ematen horiek zentzudunak direlako, agintea nork duen argi uzteko baizik.

– Gauza batzuk egin behar ditut –esan zuen Oliveirak.

Gehiegi luzatu aurretik alde egin zuen, alde egiteko gogorik gabe.

–22–

Beraundik zentrorako bidea arineketan egin zuen. Ez zegoen denbora galtzerik. Institutuko kafetegitik hots egin zion Enekori, etxean ote zegoen jakiteko.

– Kasete bat grabatu nahi diat. Libre al hago?

– Argentinako neskarentzat?

– Bai.

Enekok eztul egin zuen:

– Orduan hirurok oheratuko gara?

– Prestatu diskorik onenak, Eneko, eta saiatuko gaituk.

– Baina hirurok oheratuko gara edo ez?

Zaila zen jakiten txantxetan ari ote zen.

– Oheratzeko bi lagun nahi badituk, nire ama eta bere nobioa utziko ditiat.

Beste eztul bat entzun zen beste aldetik.

– Oliveira, hire amarekin ez –esan zuen Enekok–, hire lagunarekin nahi diat nik...

Moztu egin zen deia.

Sukaldean zegoen Eneko. Dena zegoen diskoz beteta: mahaia, hozkailuaren goiko aldea,

harraskaren ingurumariak. Diskoak banaka garbitzen ari zen. Tabernako nikotinak koipetu egiten omen zituen, eta soinua kaskartu. Karpetatik atera eta urez eta xaboiz garbitzen zituen, platerak bezala. Gero lehortzen utzi eta berriz karpetara. Metodikoa zen.

– Bi zinta grabatuko ditiagu, bat kañeroa eta bestea lasaia.

Artilezko jertsea zeraman, galtza zabalak eta etxeko txapinak, zulatutako haiek. Peta bat ezpainetan, ilea solte, belarrien atzean heldua. Mahaiaren aldamenean katuarentzako kaxa: harriz eta txizaz. Halako usaina zegoen sukaldean ere. The Smiths-en disko baten gainean etzanda katua, Enekok eskukada batez kendu zuena.

– Ospa Mitx!

Gorputza mihiaz garbitu eta alde egin zuen, atsedenerako toki aproposago baten bila.

– Black Crows, Pearl Jam, The Cult, Guns N’ Roses, Vincent Rocco, Pink Floyd... Hauek ez bazaizkio gustatzen, ez dik merezi kasu putarik egitea –esan zuen Enekok.

– Gustatuko zaizkiok.

– Neskek paso egiten ditek musikaz, egidak kasu.

– Paulak ez.

– Paulak ez, ados.

The Culten poster erraldoi batek apaintzen zuen Enekoren gela: larruzko botak eta cowboy kapelak. Posterra ikusita segituan antzeman zuen Oliveirak nondik zetorren Enekoren estetika. Ohe desegin bat, ehunka disko apalategietan, Oliveiraren ametsetako gela zen, zikinkeria aldarri, jasotzeko agindurik ez, gurasokeriarik gabeko gela baten askatasun zarpaildua, glamurrez zipriztindua. Ohearen gainean *Blue Velvet* filmaren afixa, Isabella Rosselliniren lepoa. Neskak seduzitzeko diseinatuta zegoen gela hura.

– Ederra benetan.

– Barka nahastea.

– Ez, ez, primerakoa duk, benetan.

– Desastrea. Usaindu... Ez al duk usaintzen? Katu nazkagarri hori!

– Ez zagok usain txarrik –gezurra esan zion Oliveirak.

– Pixa usaina zagok beti.

– Ez diat sumatzen.

– Nola ezetz.

– Beno, pixka bat igual.

– Katu putaseme horrek egiten dik. Ar guztiek egiten ditek pixa eremua markatzeko. Kristo, eremua eta ostiak. Etxea berea balitz bezala.

Enekok hautsontzi bete bat hartu zuen disko jogailuaren aldamenetik. Moduluka banatutako hi-fia zeukan, potentzia handikoa. Hura piztu zuen, plastikoa kendu zion kasete bati, Temple of the Dog-en diskoa jarri zuen platerean eta Oliveirari begiratu zion:

– Paula horrek orain jakingo dik zer den benetan flipatzea.

Oliveirak zigarro bat piztu zuen ohean eserita. Ondoan jarri zen Mitx, eta hantxe geratu ziren biak Enekori begira. Musika hasi zenean, musika bakarrik entzuten zen gelan, etxe osoan, baita aldameneko etxebizitzan ere seguruenik. Oliveirak esku ahurrean bota zituen zigarroaren hautsak, Temple of the Dogek Paularengan zein eragin izango ote zuen asmatzen saiatzen zen bitartean.

Oskar ailegatu zen handik gutxira, xake eramangarria besapean. Hotza zekarren kaletik: su-

durra gorrituta, bufanda lepoan korapilatuta. Zertan ari ziren azaldu zioten, eta Oskarrek zeharka begiratu zion Oliveirari.

– Hik grabatu duala esan behar al diok?

– Bai ba, noski.

– Fartsante halakoa.

Enekok zigarreta ezpainetan egin zion arrapostua, kea ez sartzeko ezkerreko begia itxita zeukala:

– Fartsantea izan beharra zagok, bestela ez zagok irabazterik.

– Ezin esan saiatzen ez zaretenik.

Ohean eseri zen Oskar ere, Oliveiraren eta katuaren ondoan. Atzamarrak garbitzen hasi zen katua, kras-kras. Estimatzekoa katuaren garbizaletasuna, etxean zabaldutako usaina ezagututa.

– Ba al dakik nor ikusi dudan klubetik hona etortzean? –Oskarrek Oliveirari belarrira.

– Ideiarik ez.

– Txarli, zipaioen autoan sartzen.

– Atxilotuta?

– Gora igo ditek –hatz lodia zerura jarri zuen Oskarrek–, berriz ere arrastoan sarraraztera.

Ama leihoan zegoan. Kristo, ez zeukaan keinu alaia, ez.

– Hark deituko ziean besteei... –buruaz ezetz egin zuen Oliveirak.

– Aitatasunez ari zitzaizkioan, zera: «Lasai, Carlos, aurrera, poliki, ezkerrera, poliki, makurtu, poliki...». Ezin diat Poliziaren aire horrekin, badakik, samur jartzen direnean. Gaixotu egiten naik.

– Eta Txarlik ezer esan al du?

– Bi ertzain zitian aldamenean, ukondotik eta eskumuturretik helduta –ohean eserita keinuka hasi zen Oskar–, badakik, indarrik gabe baina irmo zeukatean helduta. Bere baitara bilduta zihoaan Txarli, goiko harrera imajinatzen igual.

– Eta ez diok ezer esan?

– Zer esan behar nion ba?

– Ez zakiat, hi, zer edo zer. Agur egin diok?

– Joder, Oliveira, ez!, jende hura guztia han bilduta, Txarli bi arlote haiek helduta... Ez zaidak ezer etorri –zutituz erantzun zuen Oskarrek.

Oliveirak bazekien zeren bila zebilen: bere xake eramangarriaren bila. Beti egiten zuen gauza bera.

Lur jota sentitu zen Oliveira, eta Chris Isaaken *Wicked Game* kantak, huraxe grabatzen ari baitzen Eneko, ez zion alaiago sentitzen lagundu.

– Elurra ari du –esan zuen Oskarrek.

Leihora hurbildu zen Oliveira. Etxe barruan aditzen zen musikarekin dantzan zebiltzan elur malutak. Txarli ohe batera lotuta imajinatu zuen. Beharbada ez zuten lotuko, baina irudi hura etorri zitzaion Oliveirari.

– Ez du zurituko –esan zuen.

– Inoiz ez du zuritzen –erantzun zion Oskarrek, pieza beltzak taulan ipintzen ari zela.

Leihoko gandua kendu zuen eskuaz Oliveirak.

– Agur egin behar hion behintzat, kaguenlaputa.

–23–

Ibaineteko atariaren parean itxaron zion Paulari. Ilea mototsean bildua, jaka motz bat, galtza estuak (ipurmasailen aldarri). Eskuaz keinu egin zion Oliveirak. Paulak errepidea gurutzatu zuen, burua bufandan ezkutatuta.

– Kafe bat hartuko dugu? Grabagailua lortu dut. Elkarrizketa egiteko prest nago.

Txiki tabernara joan ziren. Bidean sentitu zuen Paularen lasaitasuna. Ez zen segituan defentsiban jartzen diren horietakoa, kafe bat hartzeko gonbita egin eta harekin ezkondu nahi zenukeela uste dutenetakoa. Inurritegia zirudien tabernak poteo orduan, baina hondoan bazen mahai bat.

– Oso arraroa da nire amonaren eta zure artekoa –esan zuen Paulak.

– Zer ba?

– Zu baino mende erdi bat zaharragoa delako, adibidez.

– Horrek egiten du interesgarri.

– Nire amonak jendea enamoratzen du. Beti izan du jendea inguruan. Baina abilezia galduta zeukala pentsatzen hasia nengoen. Gertuko jendearekin beti gertatzen da hori: kanpokoen lilura behar izaten dugula zenbat balio duten ohartzeko.

Txanoak azkura ematen zion Oliveirari, toki beroetan batik bat. Baina ezin zuen kendu, txanoaren forma izango baitzuen buruan. Eskua txanopean sartu zuen, hura kendu gabe azkura baretzeko.

– Egi-egia esatea nahi baduzu, esango dizut.

– Ez dakit egi-egia jakin nahi dudan –ikaratu egin zen Paula.

– Zaude –esan zuen Oliveirak, enigma bat deskubritzeko moduan–. Beti izan dut nire zilborrari begira ibiltzeko joera. Halakoa naiz: ez naiz harrotzen. Lepoko mina ere sentitzen hasia nintzen, nire buruaz gogaitzen hasia nintzen, badakizu; eta, halako batean, beste norabait begiratzeko keinua irakatsi zidan zure amonak. Ez nuke esoteriko jarri nahi, Coelho eta halako ustelen pare, baina... Ezingo dut ukatu aurkikuntza izan denik.

– Zure burua ez daukazu tipo interesgarritzat?

– Horixe da arazoa, badaukadala, baina ez naizela. Irakaspen gogorra da hori, zin egiten dizut.

Eskuaz sudurra estali zuen Paulak. Zerbait intimoa esatera zihoan:

– Dudatan ibiltzen naiz ni beti: izango naiz, ez naiz izango; interesgarria esan nahi dut. Arazoak sortzen dizkit duda madarikatu horrek.

– Axola al zaizu txanoa kentzen badut? Esan nahi dut, zera, ileak katilu formarekin izango ditudala...

– Kendu lasai, aizu.

– Bero handia ematen du, eta azkura ere bai –txanoa kendu zuen Oliveirak–. Zure amona bezalakoa zara, interesgarriagoa agian, etorri berbera daukazue biek.

– Mende erdia falta zait bera bezalakoa izateko.

– Ez, azkar ikasi duzu.

– Berak badu alde eszeptiko hori, horren axolagabe egiten duena, denok liluratzen gaituena. Nik ez daukat.

– Ez nuke halakorik esango.

– Ez, badakit antzezten, baina ez da benetakoa. Gogor planta bezalaxe: dena itxura.

Oliveirak ez zuen halako zintzotasunik espero. Ezin zuen aukera alferrik galtzen utzi. Totelka hitz egin zuen, pixka bat urduritutа:

– Zure gogor planta hori, zera, benetan zoratzeko modukoa da... dotorea eta ikaragarria.

Begiak kendu gabe begiratu zion Paulak, eta sudurra estali gabe. Noizbait, inoiz harremanetan hasten baziren, maiteminak nondik egingo ote zion ihes, horixe galdetzen zion Oliveirak bere buruari. Bazekien, bestalde, ez zegoela *akaso ez*-ik. Goiz edo berandu, amaitu egingo zen. Hasi aurretik kezkatu beharra, hura bai marka!

Makila batez bezeroak uxatu, atea kisketaz itxi eta barra gainean larrutan egin, ez zirudien oso zaila.

Nor da zure gelako argazkietan sarritan agertzen den morroi hori?, horixe galdetuko ziokeen Oliveirak.

– Inor joan al zaizue gaur Internet kontuekin aspertzera?

– Baten bat, bai. Amonak esan dit lanik gabe geratu zarela.

– A, bai.

– Zerbait bilatuko duzu?

– Beharko.

Kito: trebezia ikusgarria, Oliveirak, sua itzaltzeko.

– Eta zer egin behar duzu lana bilatu bitartean?

– Ez dakit. Xakean berandu arte ibili. Zure aitonari buruzko liburua idatzi.

Oliveiraren oinetakoei begiratu zien Paulak.

– Aizu, zera, ez nuke nahi zu haserretzerik, baina, tira, nire aitonarena... margolari ospetsua delako kontu hori...

– Ez al da?

– Ez da, ez. Hormetan ikusi zenituen koadroak amonarenak dira, berak margotuak. Apenas ikusi dituen inork. Ez ditu inoiz inon erakutsi.

– Txantxetan ari zara.

– Ez.

– Nola izango da ba gezurra!

– *Gezurra*... ezin esan gezurra denik, gezurra hitzaren zentsu itsusian...

– Eta zergatik esan zidan Zaraterenak zirela?

– Lotsagatik. Eta aitonak ezin du kontrakorik esan.

– Baina nola ezkutatzen du halako obra ederrak bereak direla?

– Beretzat zirriborroak besterik ez direlako beharbada.

Kaskarra igurtzi zuen Oliveirak, han erantzunen bat aurkituko zuelakoan.

– Jose Zarate handia...

– Handia?

– Joder, Paula, nik hala esaten nion: Jose Zarate handia, jenioa.

– Dena txantxa txiki bat izan zen, baina liburuaren kontu horrekin ilusionatuta ikusi zintuenean...

– Ergel bat bezala geratu naiz.

Buruko mina, horixe zeukan Oliveirak, eta kasko formaz orraztutako ileak.

– Gezurrari antzematea ezinezkoa zen.

– Berdin dio. Zure amona da. Hasi naiz ezagutzen.

– Baina ez zaude haserre, ezta?

– Ez, haserre ez, pixka bat jokoz kanpo. Jose Zarate niretzat garrantzitsua zen. Ez naiz plantak egiten ari. Benetan. Orain pertsonaia horren hutsunea nola bete asmatu behar dut.

Ardoak amaitu zituzten.

– Ezer gehiago erosi nahi badit, grabagailu bat salduko diot –esan zuen Oliveirak.

– Erosi?

– Amonak, badakizu...

Barre malenkoniatsua egin zuen Paulak. Zutitu eta berokia jantzi zuen Oliveirak. Txanoa zuzen jarri zuen gero.

– Liburua berdin idatz dezakezu. Ez da ezer aldatzen.

– Baina nik lehengo Gabriela nuen gustuko: Zarate margolariaren emaztea, senarraren koadroak maite zituena, bere musa...

– Zer da ba musa izatea? Koadro horiek berak egin ditu! Emakumea delako ez al du liburua merezi?

– A, orain liburua idatz dezadan nahi al duzu?

– Bai, noski.

– Ba idatziko dut... baina zuk nahi duzulako –esan zuen Oliveirak, eskaintzak ezkutatzen

zuena Paulak ulertuko zuelako esperantzaz–. Gasparrera noa, lagunekin lotu naiz; etorri nahi duzu?

Jaka jantzi eta erlojuari begiratu zion Paulak. Neskek beti begiratzen diote uneren batean erlojuari. Beti daude presatuta edo joateko irrikaz.

– Joan zaitez zu lasai.

Ez zen *ez* zurrun horietakoa.

– Tipo jatorrak dira, ikusiko duzu. Gauero biltzen gara xakean aritzeko.

– Gauero?

– Gasparren.

– Eta biharamunean?

– Kaixo andereño, zu al zara etxeko nagusia? Universal Fundaziokoa nauzu, unetxo bat besterik ez dizut lapurtuko, ez zaizu damutuko. Liburukote eder batzuk utziko dizkizut, hautsa pila dezaten.

Sorbaldan kolpe bat eman zion Paulak. Eskua segundo batez han utzi zuen. Oliveirak lotsa irentsi zuen. Paulak bere begiradaz zer esan nahi ote zion, auskalo. Ñabardura horietaz ohartzea ez zegoen Oliveiraren bertuteen artean. Txiki tabernatik irten eta elkarri pegatuta abiatu ziren.

Kalea husten hasia zegoen. Patrikan gordeta zeramatzan kaseteak atera zituen Oliveirak.

– Etxean aurkitu ditut gaur. Duela hilabete pare bat grabatu nituen. Entzun nahi badituzu...

– Niretzat dira?

– Gustuko badituzu, bai.

– Baina niretzat ekarri dituzu?

Esanarazi egin zion:

– Bai, oparia dira.

– Antzerki ederra egin duzu ba: «Etxean aurkitu ditut».

– Etxean aurkitu ditut-eta!

Eskuak patriketan gorde zituen Oliveirak. Zer axola zion umiliazio hark? Maiteminduta zegoen.

– Ba al zatoz Gasparrera?

– Bai.

Esan maiteminduta egonik lotsagarri jokatzen ez duen norbait. Ez dago. Pausoa azkartu zuen Oliveirak.

– Benetan esan didazu koadroak Gabrielarenak direla...

– Benetan.

–24–

Xake taularen alde banatan zeuden Oskar eta Eneko. Baina zain. Esan zitekeen ia, Oskar ere zain zegoela, xake partidan arreta berezirik jarri gabe. Egun hartan ezagutuko zuten Paula. Gertakaria zen Oliveirarentzat, eta beste bientzat ere bai. Emakume bat beti da gertakaria gizonezkoen bizitzan. Beti.

Une delikatua izan zen enkontrua, disimuluzko azterketak, begirada azkarrak, neskaren formak igartzeko grina ezkutukoa. Oskarrek eskuaz agurtu zuen. Enekok bi musu eman zizkion, eta segituan abandonatu zuen partida. Hala hobe, jasotzen ari zen jipoiaren neurria ikusita. Jokoan ez jakiteaz harro agertu zen eta aldi berean Oskarren maisutasuna goraipatu zuen, inork ez zezan zalantzan ipini beste arlotan abila zenak gabeziak onar zitzakeela.

– Fitxak mugitzen besterik ez dakit –aitortu zuen Enekok.

– Ez dituk fitxak–zuzendu zion Oskarrek–, piezak dituk! Ez duk inoiz ikasiko, kabroi halakoa.

Ofentsaz arduratu gabe segitu zuen gero, neskari itaunketan, neskaren arreta monopolizatzeko ahaleginean. Baina ez zen neska otzana, azkenean ihes egingo zion lilurari, edo hori espero zuen behintzat Oliveirak. Harrokeriaren eta zeloen arteko zalantzan zebilen: bere mundua erakusteaz harro, mundu hartako arriskuengatik izu.

Guraso gabe bizitzeaz jardun zuen Enekok, baina zeharka, alegia deus ez. Putzontzi agertu gabe, kexu zen bere anai-arreben zabarkeriaz. Egun osoa eman omen zuen brikolajean: han apalategiak ipini, hemen bonbilla aldatu, beste hartan iturriaren isuria gelditu. Neskari amua jartzen ari zitzaion Eneko. Bere anai-arreben ustezko zabarkeriaren kontu hura beste zerbaitez jarduteko trikimailua baino ez zen.

– Neskamea behar dutela ematen du, arraioa!

– Aspaldi bizi al zara bakarrik?

– 16 urtetatik. Orain ezingo nuke gurasoekin bizi. Baina abenturak badu bere alde gogorra, etxean dena egin beharra, badakizu.

Xake taula Enekoren bizkarrean hautsiko luke Oliveirak. Geroko isiltasuna imajinatu zuen: denen harridura, Oskarren algara... Bai, Oskarrek barre egingo zuen, ziur.

– Eta zuk, zer diozu? –galdetu zion Paulak Oskarri.

– Zertaz? –zigarrokin bati kotoia ateratzen ari zitzaion.

– Gurasoekin bizi beharraz.

– Horren suertea izan nahiko nukeela neuk ere. Ez baita gauza bera gurasoen etxetik alde egitea edo gurasoek alde egitea etxea zuri utzita.

– Emaitza bera da –esan zuen Enekok.

– Emaitza bera? Nork ordaintzen dik ba etxea?

– Et, et, et, nik lan egiten diat, e!

– Diskoak jartzeari lan egitea esaten diok...

– Ez al da lana!

– Ze kristo, lana beste gauza bat duk.

Bi lagunen arteko esgrima saioa baliatu zuen Oliveirak edari batzuk eskatzeko. Barratik zelatan segitu zuen. Ari ziren, bai, egurra ematen. Paulak Oliveirari begiratu zion eta keinu batez

adierazi zuen mahai hartan zerbait handia erabakitzen ari zela... Baina ez zen konturatu horrek bazuela zerikusia Oliveirarekin. Oskarrek irabazten badu, neska niretzat, agindu zion Oliveirak bere buruari.

– Badakik zer den lan egitea? –entzun zuen Oliveirak edariak ekarri zituenean–, honek egiten zuena!: atez ate liburuak saldu, jendearen mespretxua jasan, jendearen aurrejuzguekin borrokatu, kalerik kale hotza pasatu... Hori duk lan egitea.

Oliveirari begira geratu ziren denak.

– Nik dagoeneko ez dut libururik saltzen –esan zuen.

– Herria goitik behera ezagutzen duk behintzat –esan zuen Oskarrek.

– Badakizue zer pentsatzen duen jendeak bere etxeko atean liburu-saltzaile bat topatzen duenean? –esan zuen Oliveirak–. «Horra porrotaren irudia!».

– Bai zera, porrotaren irudia, jendeak eguna filosofia egiten pasatuko balu bezala –Oskarrek.

– Tipo bat apain baina luxurik gabe jantzita, exekutibo baten plantak egiten, larru imitaziozko

karpeta bat besapean... Ate baten aurrean agertzea, herriko plazan larrugorritan jartzea bezalakoa da. Gardena zara, dena duzu agerian. Uste duzu zeure elekeriak norbait konbentzi dezakeela, baina ez duzu inor konbentzitzen, salbu eta aldez aurretik konbentzituak zeudenak. Bada espezie arraro bat, besteekiko errukia sentitzen duena, auskalo zergatik: horiek astintzen dute patrika, ez beste inork. Kalean eskale ibiltzearen aurreko pausoa da atez ate ibiltzea, automobilen artean gidariei kleenexak saltzearen antzekoa, edo kale kantoian zakurraren konpainian txirula jotzea... Inork ez du txirula kontzertua saritzen, txirularia bistatik kentzeko ematen dizkiote txanponak.

Hitzaldia bukatzean konturatu zen Oliveira esandakoaz. Ez zekien hori pentsatzen zuenik ere. Modu arraro batez hunkituta zeuden lagunak.

– Barka gure adiskidearen errealitate gaindosia –esan zuen Oskarrek, eta barre egin zuten denek.

– Badu alde onik –esan zuen Oliveirak–. Besteren etxean sartzeko aukera. Besteren barrun-

betan miatzea, norberari ustez itxiak zaizkion bazterrak aurkitzea. Atez ate ibiltzen denak mundua ezagutzen du, etxeak ezagutzen dituelako. Etxean ez dago antzerkirik: bakoitza den bezalakoa agertzen da.

– Zergatik utzi duk ba lana? –galdetu zion Enekok.

– Antropologia ikastea baino garestiagoa zelako! Ez nian zapatak ordaintzeko ere irabazten. Tino putakume hori...

– Nor da ba Tino? –Paulak.

– Zirkuko gizon bizkarroia. Nagusia. Lapurra.

Edan eta edan aritu ziren, zerbait ospatzen ariko balira bezala. Eta hasierako nabarmentzeko asmoak baztertuta, seriotan hitz egiten hasi ziren: zer zen lana eta zer ez, lanari lan deitzeko lanak gogorra behar ote zuen, printzipio hura ez ote zen kapitalismoaren amarrua, alferrak errudun sentiarazi eta lanera bultzatzeko trikimailua.

Oliveirak gogoratu zuen Eneko diskoak xaboiaz garbitzen aurkitu zuela bere etxeko sukaldean, eta ezin zela hori lana ez zenik esan. Enekok hasperen egin zuen orduan, norbait alde izateagatik konforme.

Paulak jakin-minez galdetu zion Oskarri, nolatan irabaz zezakeen beti xakean. Gorritu egin zen.

– Hori da nire lana –esan zuen.

Denak azalpen luzeago baten zain geratu ziren. Alferrik, Oskarrek beti hitz egiten baitzuen motz: *le mot juste* eta abar.

– Txorakeriak etxean utzi behar dira xakean ikasteko –amaitu zuen.

Gero Oliveirak esan zuen xakea ez zela jokoa, hori esatea *majaderia* zela; eta piezak ez zirela fitxak; eta damari, noski, ez zitzaiola erregina esan behar, dama baizik, dama batek ez duelako zertan erregina izan behar, eta erregina batek dama ere ez.

– Dama da lehiara atera behar den azken pieza –esan zuen Oliveirak.

Oskarrek aharrausi egin zuen.

– Zein da munduko xakelaririk onena? –galdetu zuen Paulak.

Astia hartu zuen Oskarrek.

– Ezin zaio galdera horri erantzun.

– Zer ba? Benga, esan bat.

– Garai bakoitzak bere maisuak izan ditu. Ezin da jakin zein den onena. Capablanca gustukoa dut, tipo dotorea zelako, ez gaur egungo xakelari obsesionatu horien tankerakoa. Berezkoa zeukalako irabazten zuen. Baina Kasparovek hartuko balu, sekulako jipoia jasoko luke, *sekulakoa*, inoiz ez ahazteko modukoa.

– Zergatik? –galdetu zuen Paulak.

– Kasparovek Capablancaren bizitza osoa aztertu du, eta beste askorena. Capablanca ia ezerezetik sortu zen, xakea inork gutxik jokatzen zuenean. Ikaslea beti gailentzen zaio irakasleari, ezta?

– Capablanca –esan zuen Paulak–, ze izen bitxia.

– Capablanca abizena zuen –ohartarazi zuen Oliveirak–. Esaiozu, Oskar, nola izena zuen.

Buruaz ezetz egin zuen Oskarrek, sudurretik bota zuen airea.

– Jose Raul izena zuen.

– Nik bezala! –intziri moduko bat atera zitzaion Oliveirari.

Paulak joan beharra zeukala esan zuenean, bihotza azkartu zitzaion. Betiko joango balitz be-

zala. Gerarazten saiatu ziren, baina ez zuen amorerik eman.

Laguntzeko proposamena egin behar ote zion? Gauza asko zeuzkaten hitz egiteko. 1: Noiz hasiko ziren liburua grabatzen. 2: Noiz elkar ikusiko zuten berriro. 3: Zein modutan jarriko ziren harremanetan (nork nori deituta). 4: Zein zen Paularen telefonoa. 5: Zein zen Oliveiraren telefonoa. 6: Zer egingo zuten euren bizitzetan hurrengo 25 urteetan.

Baina Paulak jaka jantzi zuen, bufanda estutu zuen, denei irri egin zien, oso ongi pasa zuela esan eta Gasparretik irten zen.

Tabernako musika aditu zuten estreinakoz, hirurak ipurdi harekin (txundituta) amets eginez.

Nolatan joan zitekeen duda horiek guztiak argitu gabe? Atera begira geratu zen Oliveira. Berriz sartuko zen Paula, Oliveirarengana gerturatuko zen... eta eskatuko zion laguntzeko mesedez etxera.

Berokia janzten bazuen, Paularen atzetik zihoala pentsatuko zuten. Berokia jantzi zuen hala ere.

– Nora hoa? –galdetu zion Oskarrek.

– Etxera, nekatuta nagok.

– Paularen atzetik joan nahi dik –esan zuen Enekok.

Eskuak patriketan sartu zituen Oliveirak.

– Ederra duk neska –onartu zuen Oskarrek–. Sudurra zera dik... okerra, ezta?

– Zer duk, galdera bat? –Oliveirak.

– Alde batera zaukak, baina ez duk zatarra, ez –esan zuen Enekok, eskuaz bere sudurrari okerreko forma emanez.

Paularen fisionomiaz hausnar sakonean utzi zituen lagunak. Paulak zein bide hartu zuen asmatu behar zuen. Biteri kaletik joango zen seguruenik. Harantz jo zuen. Ez zekien zinez harrapatu nahi ote zuen. Harrapatzen bazuen, hondamendia izango zen: uxatu egingo zuen. Ezingo zion aurpegira begiratu.

Lasterka hasi zen.

Morrongileta kalean sartu zenean urrunera begiratu zuen, baina Paula ez zen inondik ageri. Hobe!, pentsatu zuen. Lasterka segitu zuen ordea. Lasterka igo zuen Beraunera iristeko hiru maldetako lehena ere. Birikak erre beharrean zeuzkan, hankak txindurrituta. Zortzigarren mai-

lako soinketa azterketatik ez zuen horrenbeste lasterka egin. Bigarren maldara iritsi zenean zuzengune bat aurkitu zuen, hurrengo berrehun metroak ikusten zituen, baina neskaren arrastorik ez. Hantxe bertan ezkerrera jotzen bazuen, Pio Baroja ikastetxetik Pontikara sartuko zen etxera joateko. Gorantz segituz gero, hogei minutu izango zituen gero etxera itzultzeko. Pentsatzeko denborarik ezin zuen hartu: banku batean eseri zen, ideiak argitzearren. Elektrogailu denda bat zegoen bankuaren ondoan. Garbigailu bat merkealdian. Erakusleihoko argiak piztuta zeuden artean, oinezkorik ez bazen ere; Oliveirarentzat piztutako argiak ziren. Galtzaraborda auzoko talaia hartatik paper fabrika ikusten zuen. Horra herriko zigarrorik handiena, pentsatu zuen. Fabrika hark ematen zion herriari sarri izan ohi zuen zakur usaina. Baina zer zen herria fabrikarik gabe?

Oskarren hitzak oroitu zituen: sudur okerra dik. Akatsa besterik ez ote zuten ikusi? Eta Paulak, bere akatsa ikusi ote zuen besteen begietatik? Lerro artean ibili ote zen neska sentimendu

haren bila? Paula ispilu aurrean imajinatu zuen, sudurrari begira.

Grabagailuarekin Gabrielaren etxera joango zen biharamunean. Beso zabalik hartuko zuen. Bihar ez, etzi, pentsatu zuen. Egun bateko tartea utzi behar zuen, bere hutsunea nabari zezaten, ez zitezen ohitu, ez zitezen nekatu. Ez zedin lilura amaitu.

Arnasa baretu zitzaion. Zeraman arropa mordoaren azpian izerditan zegoela sentitu zuen. Oro lanbro zen, hotzak errukirik gabe izoztutako paisaia, eta bera izerditan. Etxera abiatzeko zutitu zenean, burura kanta bat ekartzen saiatu zen bidean pentsamendu ilunak baztertzearren. Menderatua zuen teknika. Une bakoitzari, tenore bakoitzari zegokion kanta jakin bat. Garrantzitsua zen hitzak osorik gogoratzea, bidean ez galtzeko. Tango bat bilatu zuen eta *Volver* aurkitu zuen. Nola hasten zen? Hasiera da kanta guztietan zailena. Gero hitzak hitzekin lotzen dira, segidan, puzzleen gisara. *«Yo adivino el parpadeo, de las luces que a lo lejos, van marcando mi retorno...»*. Beti izan zuen ongi kantatzeko fama. Fama edo zera. Beti esan izan zion Oskarrek ongi

afinatzen zuela, eta horrek harrotasunez hanpatzen zuen. Oskarren amak bazuen Gardelen disko bat, han deskubritu zuen Lepera izeneko batek idatzi zizkiola Gardeli kantuarentzako hitzak. Ederrak, zorionean zoriontsu eta nahigabean hondoraturik sentitzeko hitzak. Esaldi bakoitzak zekarren mezuren bat, eta kanta osoak mezu ikaragarria: denboraren iragate gupidagabea. *«Son las mismas que alumbraron, con su pálido reflejo, hondas horas de dolor»*.

– Ezagutzen duzu *Volver*?

– Tangoa? Noski.

– Nire kuttuna da.

– Oso ederra.

– Niretzat ikaragarriena da biren arteko lana izatea, batek hitzak eta besteak musika egin izana, eta batuketa hartatik halako gauza ederra ateratzea.

– Biren artean? Ez dut halakorik inoiz entzun.

– Bai, Gardeli besteek idazten zizkioten tangoak. Lepera delako batek idatzi zion *Volver*. Gardelen tango mordoa idatzi zituen. Askotan pentsatu izan dut nola izan ote zen biak, hitza eta musika, elkartu ziren unea. Eurentzat ia egu-

nerokoa izango zen hitzak eta musika trukatzea. Behin, ordea, Leperak *Volver* tangoa eramango zion Gardeli, hain justu *Volver*, eta ez beste bat. Imajinatu Buenos Aireseko kafetegi zahar bat. Taxi beltz batetik jaitsi da Gardel eta aldameneko dendako emakumearekin topo egin du, aspaldiko ezaguna. «Señor Gardel: mire que le he guardado unas pastitas»; «Noooo, pero bueeeeno, vos si sos liiiinda, graaaaacias, no hacía falta»; «Es para mí un gusto, señor Gardel, Carlitos, que un chico del barrio sea tan famoso»; «No es para tanto, Lucita, sólo que aparezco nada más que de vez en cuando en los afiches». Lepera zain izango zuen atean: «¡Ché, Carlos, no te demorés más, carajo!». Eta gero taberna barruan: «Ché, Carlos, te dije que estaba tomando unas notas sobre el pasado, sobre la cosa esa de tener que volver a un punto, ¿te acordás?»; «Sí, esteeeeeee, sí, sobre la necesidad de volver a sentir cosas de antaño, ¿no?»... Une horretan Leperak orri tolestu bat utzi dio barran. Poliki, zeremoniatsu, truku bat egiten ari balitz bezala. Eskua gainean utzi du segundo batez eta, ondoren, poliki kendu. «Ahí tenés» esan dio. Gardelek

sonbreirua erantzi du, barran paratu. Hatza zeruratuz zerbitzariari deitu dio: kafe hutsa, bel-beltza. «Bueeeno», esan zuen azkenik, «a ver ese pasado cómo suena». Irakurtzen hasi zen Gardel eta, irakurri ahala melodia irudikatzen saiatu zen. «La reconcha», esan zuen, «¡es magistral!». Burua mugitu zuen, begiak itxita, eta eztarriaz hots apalak egin zituen, geroko noten lehen arrastoa. «*Yo adivino el parpadeoooooo, ta-ra-ta-ta... van marcaaaando mi retornoooooo...* ¡es divina, Lepera!». Eta Lepera alboan, eskuak igurtziz, irri eginez: «Es un tango para vos».

Irri egin zuen Paulak ere.

– Nondik atera duzu kontu hori?

– Ez dakit, dena asmatua da.

Halakoa izan zitekeen elkarrizketa. Elkarrizketa ederra benetan, Paula belauniko jartzeko modukoa. Baina etxean zen jada Oliveira, hozkailuko atea zabaltzen. Platerkada bat garbantzu zerbitzatu eta mikrouhin labean sartu zuen. Berotzen zen bitartean, txorizo zati bat sartu zuen ogi tartean eta haginkada on bat eman zion. Une batez Paula ahaztea lortu zuen, txerrikiaren koi-

pea aho-sabaian zabaldu zitzaion une zerutia-rrean.

–25–

Esnatzean hotza usain zitekeen. Burusietan kiribildu zen, baina ezin hura gorputzetik aldendu. Dutxa bero bat hartzea erabaki zuen, burusietatik etxeko izotzera amiltzea zaila izango zen arren. Bezperako esaldiak zetozkion arrapaladan: Gabrielaren trikimailuak, zaharraren loa, patata frijituak jateko Paularen manera (banaka, lehenik puntak ahoratuz, goxoki bat ahoratzen ariko balitz bezala), kabinako deia Enekori, diskoak sukaldean barreiatuta, katuaren urrumak, Temple of the Dog-en erritmo prometagarria, Ibainet pareko enkontrua, Paula errepidea zeharkatzen, Txiki tabernako elkarrizketa, kasete oparituak, Oskarren eta Enekoren begirada sarkorrak, Paula lagunen arteko eztabaidari jarraiki (burua eskuan bermatuta), zigarroa nerabeen ziurgabetasunaz erretzen.

– Ongi pasatu dut.

Zergatik alde egin zuen hurrengo enkonturako aztarna harekin eramanda? Amonaren laguna izango zen agian Oliveira, besterik gabe.

Mutil sinpatikoa, noizbait bi zinta eman zizkiona. Tarteka ikusiko zituen bi kaseteak idazmahaiaren gainean eta haiek noizbait entzuteko promesa egingo zion bere buruari, inoiz konplituko ez zuena. Kanpoko paperean abestien zerrenda jarri izan balu, baina ez zuen astirik izan. Narraskeria barkaezina.

Zaratak entzun zituen sukaldean, hitz solteak, katilu hotsak. Demonio!

Gelatik burua atera zuen Oliveirak eta, bainugelarako bidea garbi zegoela egiaztatuta, saltoka abiatu zen. Atea kisketaz itxi eta pijama erantzi zuen. Maiteren orrazia zegoen, basoaren barruan, konketa gainean. Xaboi pastilla bat, euskarririk gabe, eta haren inguruan xaboiak utzitako arrasto berdea, ia fosil bilakatua.

Sukaldean sartu zenean ogi xigortua jaten ari ziren ama eta Pepelu. Brinko batean jaiki zen Maite:

– A, Raul –berriz eseri zen.

– Egun on –esan zuen Pepeluk.

– Berdin –Oliveirak.

Armairutik bere katilua hartu zuen, Alf-en marrazkia zeukana, ikasturte amaierako bidaian

Benidormen erosia. Kafea zerbitzatu zuen. Mahaian eseri zen, lotsa apur batez. Akaso azalpenak eskatu beharko zizkien etxeko bi nerabeei: «Bakoitzak bere etxean egin dezala lo; ikastolan nahikoa egoten zarete elkarrekin» eta abar. Baina bere ama zen, arraioa, eta bestea amorantea. Lehen hanka etxean zeukan amorantea.

– Goiz esnatu zara –esan zion gizonak.

Gurina ogitan zabaltzen ziharduen, auzo osoa elikatzeko tamainan, potoa ogi xerra bakarrean husteko beldurrik gabe. Aulkitik altxa eta hozkailua zabaldu zuen Maitek, beste poto bat hartzeko. Harrituta geratu zen Oliveira, ama bata batez jantzita ikusi zuenean.

– Amak esan zizun –hasi zen gizona–, Lezon fabrika txikia daukagu. Lana soberan dago han. Toki bat egingo dizugu, nahi baduzu.

Oliveirak baietz erantzun zuen buruaz eta leihora begiratu zuen, leihotik kanpora beste bizitzaren bat ba ote zen ikusteko.

– Nahi duzunean etorri. Hantxe gaude. Jakin dezazun esaten dizut.

Gizonaren begiratua sentitu zuen Oliveirak masailean, ia ukitu egin zezakeen. Ez zuen begi-

radak gurutzatzeko adorerik, baina hantxe zeukan gizonaren soa, konplizitatezko enkontru txikiaren zain. Burua biratu eta baietz egin zuen berriz buruaz.

– Primeran! Orain badakizu, ez duzu zertan kezkatu.

– Nahi duzu kafe gehiago? –galdetu zion Maitek Pepeluri.

– Jakina, jakina –eta ukondoak mahaian paratuz eskuak elkartu zituen kokotsaren azpian–. Lanpernak gustuko al dituzu, gazte?

– Ez dakit. Lanpernak? Ez dakit.

– Nola ez dakizula.

– Aspaldi ez ditut jan. Ez nekien lanpernarik bazegoenik ere.

– Nola ez duzu ba jakingo? Lanpernak arroketan daude, Jesus!, betiko tokian.

– Aspaldi ikusi ez nik.

– Kristo maitea, lanpernak ote dauden... bost minutura Jaizkibel izanda...

– Hemen ez dugu lanpernarik jaten. Aspaldi da halakorik jaten ez dugula.

– Laster amaituko dira ohitura txar horiek hemen.

Maitek eta Pepeluk irribarre bat gurutzatu zuten.

– Nahi baduzu, lanpernak hartzera eramango zaitut. Hartu al duzu inoiz lanpernarik?

– Nola hartuko ditut ba lanpernak? Ikusi ere ez ditut egin.

– Lanpernak hartzea bezalakorik ez dago. Itsas behera dagoenean hartzen dira, baina olatuekin erne ibili behar da. Non dauden jakinez gero, otarreak eta otarreak bete litezke. Ez orain, jakina, orain ez da garaia, baina udaberrian ikusiko duzu.

Zapi batekin mahaia garbitzen hasi zen Maite. Jaikitzeko gogoa zuen Oliveirak, baina larunbata luze joango zela konturatu zen. Bederatzi eta erdiak ziren. Bederatzi eta erdiak! Non ote zebilen Paula? Egun osoa igaro beharko zuen zain, asteburu osoa akaso. Astelehenean joango zen Gabrielaren etxera. Ordura arte tripak jaten eman beharko zituen orduak. Oskar Lazkaora joana zen bere xake taldekideekin, Euskal Ligako jardunaldia baitzeukaten. Astebururo gauza bera. Bi astean behin etxean jokatzen zuten behintzat, eta Oliveira klubera joaten zen Oska-

rri zigarroak eramatera, irabazten ari ote zen galdetzera. «Ez zakiat» erantzuten zion beti. Lau orduko partidetan, nola jakin nork irabazi behar zuen amaieran? Edozer gerta zitekeen. Lau xakelarik jokatzen zuten beste lauren aurka: onenak onenen kontra eta txarrenak txarrenen kontra. Onenen kontra jokatzen zuen Oskarrek: Luis Olaizola, Iñigo Argandoña edo Txus Agirretxeren aurka, eta tarteka lortzen zuen irabaztea. Ez beti, baina batzuetan bai behintzat. Gasparren askok galdetzen zuten larunbat iluntzean: «Nola joan da partida?». Oliveirak erantzuten zuen Oskarren ordez. Joxemarik trago bat ateratzen zion irabazten zuenean (Oskarri bakarrik, kontua ez baitzen negozioa hondatzea).

– Zein lan egiten duzue fabrika horretan? –galdetu zuen Oliveirak.

– Plastikozko aplikeak; etengailuak eta entxufeak. Niessenek erosten dizkigu eta Amerikatan saltzen dituzte gero. Lan erraza da. Plastikoa moldean sartu, urtu, prentsatu eta atera. Gero pieza guztiei bizarra egin eta kito.

– Bizarra egin?

– Bai, bi moldeen arteko arrakalaren arrastoa geratzen da piezetan, eta hori esmerilaz kendu behar da. Lan delikatua da, baina erraza. Ongi irakatsiko nizuke.

Oliveirak kafea bukatu zuen.

– Zenbat ordainduko zenidake?

– Lana nahi al duzu, mutil?

– Ez, lana ez: dirua.

– Raul! –oihu egin zuen Maitek.

– Utzi, utzi –esan zuen gizonak–, arrazoi du. Niri ere ez zait lan egitea gustatzen. Arrazoia dauka, bai. Zintzoa da behintzat.

– Jakin nahiko nuke zenbat irabaziko nukeen, gero gaizkiulerturik egon ez dadin.

– Zer iruditzen... ehun mila pezeta?

– Gutxi. Ehun eta berrogeita hamar.

– Raul, aski da!

– Utzi!

– Ez, Pepelu, ez. Aski da. Zer uste du ba ume honek?

– Uzteko esan dizut, Maite, jainkoarren!

Oliveirari ez zitzaion gustatu ustel horrek zerabilen tonua, baina ez zuen ezer esan. Soldata negoziatzen ari zen patronalarekin.

– Ehun eta berrogeita hamar ez, ehun eta hogeita bost.

Kafeak utzitako arrastoari begiratu zion Oliveirak. Hasperen eginez onartu zuen:

– Ados.

– Gogotik lan egin beharko duzu –ohartarazi zuen gizonak.

– Bai, bai. Lana, jakina.

– Goizero zazpietan hasita. Zazpietan, ez zazpi eta erdietan. Zazpietan hasten gara lanean.

Ukabil koskorrekin begiak igurtzi zituen Oliveirak. Hasi aurretik damutu behar al zuen ba?

– Zazpietan azalduko naiz.

Bostekoa luzatu zion gizonak. Listua irentsi zuen Oliveirak. Biloz estalitako eskua estutu zuen. Bazekien bere burua traizionatzen ari zela. Baina sukaldera sartu orduko jakin zuen, gizon hura ez, bera zela etxean soberan zegoena. Etxean gera zitekeelako hipotesia fantasia hutsa zela ordurako. Ametsetan zebilela, etxeko gonbidatua gizona zela pentsatzen bazuen. Hala ere, soberan egoteko manerarik txarrena zen, hain justu, handik patrikak hutsik atera behar izatea.

Gizonak bera erosteko egiten zituen ahaleginak baliatu behar zituen, berak ere jokoan zerbait irabazteko. Denek irabazten zuten hala: amak, gizonak eta Oliveirak.

Zeharka begiratu zion Pepeluri. Alai zegoen, etxe arrotza konkistatzeko gertu, inoiz baino gertuago. Liburuak saltzen zituenean bezala sentitzen zen Oliveira: hormak, mahaia, aulkiak... dena beste norbaitena balitz bezala. Sentimendu higuingarria zen, baina ezin zion itzuri.

– Autoan eraman zaitzaket –esan zuen burusoilak.

– Ez naiz bizikletaz joango –Oliveirak.

– Ez dago haraino doan autobusik...

– Lastima. Benetan gogoko ditut katxarro zahar horiek –esan zuen Oliveirak, nahiz eta benetan autobusean ibiltzea eramangaitza egiten zitzaion: bidaiari guztiak buruak alde berera mugitzen... hura zen jendailaren pare sentitzea!

–26–

Idazmakinari estalkia kendu zion aspaldiko partez. Izenburuarekin bakarrik nahikoa lan izango zuela konturatu zen. Zapuztuta idatzi zituen: *Bizitza bat margoz*; *Margotutako bizitza*; *Gabriela Etxebeste, erbesteko artista*; *Erbesteko koloreak*; *Erbesteko paisaiak*...

Kazetariak burutik ezin uxatu zebilen. Idazten hasi orduko agertu zitzaizkion, denak arrapaladan, galdezka. Halako poz txiki bat sentitzen zuen haiek entzutean, baina lan pixka bat egin behar zuen, Paulari zer edo zer erakutsiko bazion.

– Oliveira jauna!, Oliveira jauna!

– Orain ez, faborez, nire liburuan sartuta nabil, ez dut beste ezertarako astirik.

– Oliveira jauna, erantzun bat, arren!

– Ados, baina galdera bakar bat.

– Irakurleak zure liburu berriaren nondik norakoak jakiteko irrikatan daude. Aurreratu al dezakezu zerbait?

– Margolari baten istorioa da. Hori baino ezin dut esan.

– Margolari bat? Oliveira jauna!, Oliveira jauna!: zein margolari?

– Irakurriko duzue. Utzi pasatzen, mesedez.

– Baina, jauna, esaguzu zerbait gehiago?

– Bizitzari eta sorkuntzari buruzko nobela bat da. Ez daukat esateko beste ezer... Mila esker... Utzi pasatzen, mesedez...

Letrei sakatzen jarraitu zuen:

«Zarate jaunak ez zuen deus ere esan lehen aldiz ondoezik sentitu zenean. Zergatik isildu zen, ez dugu inoiz jakingo. Arratsalde hartan Ugaldetxora joango zela arrantza egitera Victor Martinekin, Burgosko bere lagun zaharrarekin, eta ea non zeuden bere botak, horixe galdetu zion Gabriela Etxebesteri. *Non daude botak?*, esaten zuen behin eta berriz, *non daude bota madarikatuak?* Baina Gabrielak ez zuen erantzuten, azken koadroa amaitzen ari baitzen, eta koadroak amaitzeko uneak zitalak izaten ziren; bere baitara bilduta egoten zen, gau eta egun, ametsetan bezala. Patatak frijitzen jarri eta ahaztu egiten zituen sutan, nahiz eta etxe har-

tan patata frijituak beti jaten ziren pixka bat gordin, asko gorritu gabe.

«Paula bilobak ekarri zizkion botak balkoitik. Kexu artean jantzi zituen Jose Zaratek, balkoian nork demontre utzi zituen marmarrean. *Zeuk utzi dituzu, aitona*, esan zion Paulak. Zarate jaunak purrustaka segitu zuen: *Txorakeriak!, zuek ezkutatzen dizkidazue*. Aparailuak hartu zituen gero, aparailuak bakarrik, zizareen kontu Victorrek egiten baitzuen; hantxe ibiltzen zen bere ilobarekin masustak biltzen eta zizareak harrapatzen, neskatilaren gurasoak lanean zeuden bitartean.

«Bitxia zen Gabrielaren tema mihisearen aurrean. Haren obsesioa olioak nahasteko orduan! Eta gero koadroak senarrak eginak zirela esaten zuen beti. Loria irabazteko lan egiten ez zuen artista bakarretakoa zen munduan. Harro zegoen horregatik. Ezin esan dohatsua ez zenik; zoriontsu bizi zen, bai, batik bat koadroak bukatzeko tenorean, azken detaileak lantzeko trantze liluragarri hartan. *Ez dut inoiz koadrorik erakutsiko. Nire intimitate hau hautsiko banu, ez nuke inoiz*

gehiago pintatuko, esaten zuen, ingurukoek koadroak erakuts zitzan erregutzen ziotenean.

«Zarate ondoezik sentitu zen, eta hala ere arrantza egitera joan zen lagun zaharrarekin. Gauean itzuli zen bi amuarrainekin: hirurehun gramokoa bat eta handixeagoa bestea, kilo erdikoa. Eskuak garbitu eta botak balkoian utzi zituen, etxea lokatzez ez zikintzearren. Sofan eseri zen, dardara batean hasi zen berehala eta ez zuen inoiz gehiago hitzik egin. Medikuek Gabrielari azaldu ziotenez, garunaren ezker aldea hilda zeukan, ezingo zuen mintzoa sekula berritu. Eta mintzoa ez ezik, mugimendua ere galdu zuen Zarate jaunak. Zerraldo geratu zen betiko, arnasa hartzeko hauspo mekaniko bati lotuta».

Orriari begiratu bat eman zion Oliveirak. Zigarro bat piztu zuen. Orduak zenbatu zituen: bizpahiru ordu Oskar ikusteko, hogeita hamar bat Paula ikusteko. Baldin eta ez bazen igandean joaten. Ongi pentsatuta, bazuen aitzakia bat: Lezoko fabrikan lanean hasiko zenez, asteburuetan egin beharko zituzten grabaketa saioak.

Pixka bat zorabiatuta sentitu zen, azkarregi erretzeagatik akaso. Eta izualdi txiki bat ere izan

zuen: ez ote zen bera ere betiko zerraldo geratuko, *Istorio amaigabea* liburuan ateratzen ziren harri-bizidun haien moduan? Zaraterengatik enpatia sentitzen zuen estreinako aldia zen hura. Noizbait gizaki bizia izan zen, jakina, baina arrantza kontu haiek asmatu arte ohartu gabea zen Oliveira, *zinez* konturatu gabea alegia. Loaldi zoriontsuan izango zen agian... Handik ateratzeko oihu egiteko gogoz beharbada... Auskalo. Medikuek osoki lokartuta edukiko zuten, dudarik ez, botiketan ezkutatutako pozoi harekin guztiarekin. Horrexegatik eskatu zion batere kezkatu gabe Gabrielak, zaintzeko zaharra farmaziarako joan-etorria egin bitartean.

Idatzitako lerroak astiro irakurri zituen Oliveirak. Ez zitzaizkion hain txarrak iruditu. Ez, ez zen txarra, arranoa! Ongi zegoen arrantzaren kontu hura, amerikar samarra. Pepelu ustel horri eskertu beharko zion lanpernen kontua aipatu izana. Eta Victorrena eta bere ilobarena ere ez zen txarra: jokoa eman ziezaiokeen aurrerago. Gogo biziz zegoen amona-biloben ahotik istorioa oso-osorik entzuteko. Gero flashbackak erabiliz idatziko zuen Argentinako egonaldia, Paularen

haurtzaroa, bere gurasoengandik aldentzeko unea...

Ideiarekin eztitan izan beharrean, itota sentitu zen supituki, kaskarreko minez edo. Txikia zen Oliveiraren logela, hain txikia, ezen armairu barruko kanfor kiratsa logela osoan aditzen baitzen. «Logela *kutrea* daukak, *kutxitril* puta bat, ukuilu bat!» esaten zion Oskarrek, paretako Spassky eta Fischerren argazkia mirespenez aztertzen zuen bitartean. Armairuan gordetzen den horietakoa zen ohea, malguki bigunekoa (ia lurreraino iristen zena ohe purtzil hartan etzandakoan). Nahiago harri gainean lo egin, zulo hartan baino. Bazuen tokia idazmahaia zabaltzeko behintzat, bere nobelari haginka egiten hasi ahal izateko. Guztiagatik, handik ospa egiteko desiratzen zegoen. Lauzpabost soldataren ondoren alokairuan bilatuko zuen zerbait. Eneko bezala biziko zen, lastaira handi bat lurrean botata, gela diskoz eta liburuz josia, katu pixontzi bat eta txoko zabal bat bere idazmakinarentzat. Paula ekarriko zuen etxera, musuak emango zizkion sudur okerrean, berriketan jardungo zuten gaueko ordu txikiak arte.

Noizbait amaren etxera itzuliko zen bisitan, Pontikara, auzunera. Gozodendako Mertxe hurbilduko zitzaion, Gardeli bezala, berak egindako opilak eskaintzera. «Oso atsegina zara, mila esker!», esango zion Oliveirak; «Zoragarria da barrioko mutil bat horren famatua izatea», esango zuen Mertxek; «Ez da hainbesterakoa; egunkarian ateratzen naute tarteka, besterik ez».

Jaka eta txanoa jantzi zituen. Egongelatik pasatzean bizkarrez ikusi zituen burusoila eta ama, biak sofan eserita, futbol partida bati begira. Zergatik ote zeuden horren tente? Zer axola zien partida hark? Atepean geratu zen Oliveira: zaila zen gizon harena baina lepo aproposagorik aurkitzea aizkoraz mozteko. Ezingo zuen hutsik egin! Halako lepotzarra erauzteko motozerra bat lortu beharko zuela pentsatu zuen ondoren, eta gorputzetik askatutako buruak izango zuen pisua kalkulatu zuen azkenik: Iñaki Perurenak sorbalda gainera bildu ohi zuen harri biribil haren parekoa bai.

Oliveirak zorabio moduko bat sentitu zuen, sukarra balu bezala. Agur esan behar ote zien jakin gabe alde egin zuen Gaspar tabernara,

lagun zaharrarengana. Xakerako irrikatan zegoen.